

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2016-06-10  
EGUBAKOITZA  
687. ZENBAKIA  
16. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM

**Euskadi-Egipto  
partidua, Juan  
Carlos  
Elorzaren  
omenez** | 28

**Leintz Gatzaga,  
gela  
desplazatu  
barik geratzeko  
arriskuan** | 25

Oteizaren lana batzen duen  
katalogoa aurkeztuko dute | 30



Mila sinadura pasa, oraingoz,  
hondakin nahasiak ez ekartzeko | 3



Ekainaren 18an estreinatuko dute  
Arrasaten sortutako Batzen dantza | 32



Vanesa Gimbert bergararra  
Bizkaiko Foru Aldundiaren balkoian,  
zale ugari begira dituela,  
maritzaren ospakizunetan.

## LIGAKO TXAPELDUN!

Vanesa Gimbert bergararrak  
txapelketa irabazi du  
Athletic futbol taldearekin | 26

ARGAZKI PRESS.

# Puntaik Punta jaialdia gaur estreinatuko da

Turismoa eta mendizaletasuna bultzatu gura ditu | 2

**puntua**

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Lehen sektorearen etorkizuna
- Garitanok Lehen Mailara eraman du Leganes

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

SINADURAK	
	AITOR BIAIN BIDARTE   6
	6   JULEN IRIONDO
	ASIER ELORTZA   15
	18   JON SAGARZAZU
	JULEN ABASOLO   20
	24   MAIDER ALDAI
	MIKEL IRIZAR   40

Oñati gestio heziketa

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**Matrikula**  
uztailaren 11tik 15era

www.mondragon.edu/ogh  
info.enpresagintza@mondragon.edu  
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz  
gmhz.mgep@mondragon.edu  
943 71 21 91

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

2016-2017

LABORAL

HETEL

Fp

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# Gaur abiatuko da Puntaik Punta, Mundumiraren ordezkoko jaialdia

- ▶ Antolakuntzako kideek nabarmendu dute asteburu iristeko irrikaz eta gogoz daudela
- ▶ Hitzaldiak, azoka, tailerrak, mendi-martxak, kontzertuak, eta abar antolatu dituzte

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Dena prest daukate Leintz Gatzagan, Mundumira ordezkotako duen Puntaik Punta jaialdirako.

Gaur hasi eta domekara bitartean, mota guztietako ekintzaz osatutako egitarau oparoa antolatu dute gatzagarrek. "Udalak jaialdi hau antolatzeko konpromisoa hartu zuen eta proposamena herriari luzatu zion. Sekulako inplikazioa izan du herriak eta lan bikaina egin dugu guztion artean", dio Dorleta Elkorobarrutia antolakuntzako kideak.

Jaialdi hau Debagoieneko Mankomunitateko turismo sailak sustatutako ekimena da eta bailarako turismoa eta mendizaletasuna bultzatzeko helburuarekin jaio da. Horregatik, jaialdia Mankomunitateak ezarritako eguntara egokitu behar izan dutela nabarmendu du Elkorobarrutiak. "Gainera, badakigu asteburu



Deba ibaia jaisten, Menditxik-en kide bat. | MENDITXIK

honetan ekitaldi gehiago daudela bailaran, baina espero dugu Leintz Gatzaga jendez betetzea", adierazi du, baikor. Horrez gain, Mankomunitateari eskerrak eman nahi izan dizkio, gatzagarrei

horrelako asteburu bat antolatzeko aukera eman dielako eta antolakuntzan laguntzen aritu delako.

Elkorobarrutiaren esanetan, Leintz Gatzaga moduko herri batendako erronka garrantzitsua da tamaina honetako jaialdi bat antolatzeko, bailara osoa hartzen duena. "Ez dugu esperientziarik, eta, gainera, jaialdi honen lehenengo edizioa da. Hala ere, herria asko inplikatu da antolakuntzan. Lantalde desberdinak sortu ditugu -komunikazioa, txosnak, trafikoa...- eta guztion artean primeran moldatu garela esan daiteke", onartu du.

Azkenik, gatzagar guztiei zorionak eta eskerrak emateko baliatu nahi izan du aukera, hartutako konpromisoagatik eta egindako lanagatik. "Guztia espero bezala joaten bada, sekulako festa izango da asteburu guztian", azaldu du.

#### Autobusak egongo dira

Mugikortasuna hobetzeko, antolakuntzak autobusak jarri ditu Eskoriatzatik Leintz Gatzagara, eta alderantziz. Honako hauek dira geltokiak: Marisa, Gatzagain, Frontoia, Marulanda, Marin, Kua-truena, Mazmela, Aingeru Guardakoa, Gorosarri eta Intxartueta.

Autoak Gure Ametsan eta Eskoriatzan markatuko diren parkinetan utzi beharko dira.

Horrez gain, bertan lo egiteko gune bereziak jarri dituzte, auto-karabanaz eta furgonetaz joan nahi dutenek bertan aparkatu eta asteburu osoa bertan igaro dezaten. Hiru gune izango dira: Dorleta, Gure Ametsa eta Venta Fria. Azken bietatik autobusa egongo da, herriatik 10-15 minutura daude eta.

Informazio zabalagoa [puntaikpunta.wordpress.com](http://puntaikpunta.wordpress.com) webgunean dago

## PUNTAIK PUNTA JAIALDIAREN EGITARAUA

### EKAINAK 10, EGUBAKOITZA

**19:00** Jaialdiaren irekiera ekitaldia, Gatz Museoa.

**19:30** NANGA PARBAT (8126 m.) Lehenengo neguko irteera. Alex Txikonen hitzaldia eta proiektzioa, kultura etxean.

**20:30** Kantu potea, herrian zehar.

**21:30** BALTIAR ARIMA dokumentalaren proiektzioa.

**22:00** OLINDA taldearen musika emanaldia.

**23:00** Hareazko ametsak ikuskizuna, Borja Gonzalezen eskutik.

**00:00** Irteera, izarrak ikustera, Jesus Arregirekin.

**00:00** GAUEZ mendi ibilaldia, Leintz Gatzagatik Atxorrotxera. Hasiera pilotalekuan.

### EKAINAK 11, ZAPATUA

**08:00** Mendi ibilaldi luzea: Leintz Gatzaga -Leixargarate-Isuskitza. 23 kilometroko ibilaldia da, baina 17 kilometrokoa egiteko aukera ere egongo da.

**09:00** Bidezidor gidatuak, bailarako herrietan zehar.

**10:00-18:00** Gatz Museoa bisita gidatuak, orduo.

**10:00-14:00** Senderismo azoka pilotalekuan.

**10:30** Mendi irteera familian, Gurelen eskutik. Leintz gatzagatik Jarindo mendira.

**12:00** Deba ibaiko ur-jauzien jaitsiera, Menditxik-en eskutik.

**13:00** Leintz Gatzagako Trikitixa Eskolako kideen emanaldia, herrian zehar.

**16:00** Hitzaldia: Gipuzkoako GR sare berriaren aurkezpena, Gipuzkoako Mendizale Federazioko kide den Urdin Elorzaren eskutik.

**16:00-20:00** Senderismo azoka, pilotalekuan.

**16:00-20:00** Boulder gunea pilotalekuan, INGURU Abenturarekin: tirolina eta oreka tailerra.

**16:00-18:30** Deba ibaiko ur-jauzien jaitsiera, Menditxik taldearen eskutik.

**17:00** Oihana Kortazarren hitzaldia, bere ibilbide profesionalari buruz, kultura etxean.

**17:00** SENDABELARRAK ezagutzen. Ibilaldia eta tailerra.

**17:30-19:30** Kale musika, Agosti eta Barrena elektrotzaranga.

**18:00-20:00** Kale Blok (*street boulder*) Debagoieneko Eskalatzaileen Elkartearekin.

**19:30** TIKTARA taldearen kontzertua.

**22:30** BAD SOUND SYSTEM taldearen kontzertua.

**00:30** LOS ZOPILOTES TXIRRIOS taldearen kontzertua.

### EKAINAK 12, DOMEKA

**09:00** BTT ibilaldia, Leintz Gatzagan.

**09:00** Bidezidor gidatuak, bailarako herrietan zehar.

**09:00-11:00** Ibilketa nordikoaren teknika ezagutuz, ibilaldia.

**10:00-18:00** Gatz museoa bisita gidatuak, orduo.

**10:00-14:00** Senderismo azoka, pilotalekuan.

**10:30** Mendi-ibilaldia, familian. Leintz Gatzaga-Hiruerreketa.

**10:30** Jolas artean, natur parkea sortu, Dorletarekin.

**11:00** Paisaia argazkien tailerra.

**11:30** Kepa Larrearen eskutik, osasunaren eta ibilketa nordikoaren arteko loturaren gaineko hitzaldia.

**12:00** Baso ahaztuak dokumentalaren proiektzioa, Iker Yurrebasoren eskutik, kultura etxean.

**12:00** TEI MALICK Reggae Band musika taldearen kontzertua.

**13:00** Mari Miri itzalen teatroa, Gatz Museoa.

**13:30** AKATZ musika taldearen kontzertua.

**14:00** Sari banaketa, jaialdioko ekitaldi desberdinetan parte hartu dutenen artean.

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

**15/16 IKASTURTEA**

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**  
Nafarroa 2 - Aretxabaleta  
Intxartueta 9 - Eskoriatza  
943 79 21 68  
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Arimazubi plaza, 2  
Tel.: 943 79 70 77  
euskaltegi@arrasate.eus

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**  
Bidebarrieta, 18-behea Oñati  
Tel.: 943 78 24 96  
euskaltegia@onati.eus

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia)  
Tel.: 943 76 44 53  
euskaltegia@bergara.eus

# Sinadura bilketa, hondakin nahasiak ez ekartzeko

'Debagoiena eredu. Zaborte-girik ez!' plataforma dabil jasotzen

**E.AZKARATE / M.ALUBE** | DEBAGOIENA  
Sinadura bilketa jarri du abian *Debagoiena eredu. Zaborte-girik ez!* plataformak egunotan. Epeleko hiri hondakinen isurte-gira lurraldeko errefusa ez ekartzea eta Debagoiengan bezala Gipuzkoa osoan hiri hondakinen %80 gaika batzeko urratsak egitea eskatzen du plataforma horrek.

Sinadurak batzeko mahaiak Debagoieneko hainbat herritan jarriko dituztela iragarri dute; atzo hasi ziren horretan. Gainera, Interneten ere sina daiteke eskaera, *Change.org* bidez.

**Mankomunitatean aurkezteko**  
Plataformak herritarrei sinatzea eskatzen dien adierazpenak dio %80 birziklatzen duen Debagoieneko ez duela "merzezi" Gipuzkoa osoko zabor nahasia jasotzea: "Debagoieneko itunean adieraz-

ten genuen bezala, has dadila Gipuzkoa osoa urratsak egiten %80 gaika biltzeko eta orduan hasiko gara elkartzunez hitz egiten". Era berean, diote Debagoieneko emaitza Gipuzkoa osoa hedatuz gero, "zaborte-gi kutsakorrak ekidin" daitezkeela.

Atzo eguerdirako 1.300 sinaduratik gora zituzten jasota *Change.org* bidez. Egunotan jasoko dituzten sinadura guztiak Debagoieneko Mankomunitateari helaraziko dizkio plataformak.

**Kalifikazio aldaketa**  
Epeleko isurtegiak hiri hondakinak jaso ahal izateko, kalifikazioa aldatu beharra dago. Mankomunitateko ordezkariak onartu dute GHKren mezu bat jaso zutela kalifikazioa aldatzea aztertzeke eskatuz. Era berean, diote eskaera ofizialik ez dela egon.

## Epeleko konpostatze planta urrirako zabalik

**MIRARI ALUBE** | BERGARA  
Epeleko konpostatze planta dagoeneko lanean dago, baina ez zabalik. Oraindik probak egiten dabilta: "Gaitasunaren erdira dago martxan, eta konpostea egiten gabe; kalitate handikoa, gainera", adierazi du Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Atal Teknikoko arduradun Oihan Sagastuik. Debagoieneko hondakin organikoak Elgoibarrera eroaten dituzte orain, eta handik kantitate bat Epeleka ekarri probak egiteko.

Irekiera lizentzia dagoeneko badu plantak, baina erregistro guztietan ez dago alta emanda, eta horren zain daude GHKn: "Konpostarekin ongarrira egingo da, eta ongarrira ekoizle izendapena eskuartzeko zain gaude".

**Udazkenean %100ean**  
Araudi eta erregistro guztietan alta emandakoan jarriko dute abian lizentzia; hau da, lehiketa deialdia, planta horren ardura izango duen enpresa hartzeko. Ondo bidean, udazkenean "%100ean martxan" egongo dela aurreikusten dute.

## Enpleguan, salmentetan eta emaitzetan hazi egin da Mondragon

**LEIRE KORTABARRIA** | DEBAGOIENA  
Mondragon Korporazioak 2015eko ekitaldiaren oso balorazio positiboa egin du; izan ere, adierazle gehienak hobetu egin dira 2014tik.

**Enplegua eta salmentak gora**  
Enplegua %0,4 handitu zen iaz, guztira 74.335 pertsonarekin. Bereziki nabarmentzen dira industri kooperatibak, aurreko ekitaldian baino 1.258 enplegu gehiagorekin amaitu baituzten urtea. Guztira, 1.800 bazkideri eman zaie irtenbidea, erretiro eta aurretiko erretiroen bitartez, eta, batez ere, taldeko beste kooperatiba batzuetan bazkideak birkokatuz.

Salmentak %2,8 handitu ziren iaz; denetara, 11.368 milioiko salmentak lortu zituzten taldeko enpresa eta kooperatibek. Inbertsio zifra nabarmendu du Mondragonek: 316 milioi euro. Azken bosturtekoan, 1.578 milioi euro inbertitu dituzte korporazioko kideek. "Magni-

tude horiek kontuan hartuta, eta aurtengo lehen seihilekoaren portaera, non hazkunde maila apalarekin bada ere ebolutioa ikusten den, badirudi 2016an goranzko joera mantenduko egingo dela, dibertsifikazio maila altuagatik eta bere jarduera eremuetan berrikuntzaren alde egiteagatik", esan du Korporazioak.

**Industria, sasoiari**  
Industria Arloaren balantzea ere jakin da. Mondragoneko kooperatiba industrialek 32.925 langileko plantilla bat enplegatu zuten, eta 2015aren amaieran fakturazio totala 5.095 milioi euro izan da (%7,4), eta emaitzak 256,9 milioi euro (aurreko urtean baino %32,3 hobeto). Gainera, aurreko urtean 208 milioi euro inbertitu ziren industri kooperatibetan.

Nazioartekoetxearen aldeko apustuaren ondorioz, atzerriko merkatuetako salmentak dagoeneko industri arloaren %71 dira.

## Ehunkiak poltsa itxietan botatzeko dei egin du Mankomunitateak

Herritar askok ehunkiak ez dituztela poltsa itxietan botatzen adierazi dute Mankomunitateko ordezkariak, eta, ondorioz, ehunkiak berrera-biltzeko aukerak asko murrizten direla. Horregatik, lotutako poltsetan eta dagokien edukiontzietara botatzeko dei egiten diete herritarrei.



Ehunkien edukiontzia. | GOIENA

## Oñatin tirokatutako belatzaren auzian jarritako salaketa onartu du Fiskaltzak

Eguzki Talde Ekologista izan da auzitara eraman duena kasua

**M.A.** | OÑATI  
Joan den apirilaren Oñatin tiroz botatutako belatzaren kasua Eguzki Talde Ekologista bere egin, eta auzitara eramatea erabaki du. Fiskaltzak, gainera, onartu egin du salaketa hori. "Halako ekintzak ez direla bere horretan geratzen erakutsi gura dugu, eta erantzulea topatzeko ahalegina egin", jakinarazi dute.

**Froga eskaera onartuta**  
Oñatiko San Martin auzoan tiroz larri zauritutako belatza topatu zuten apirilaren 26an. Igeldoko Arrano Etxera eraman zuten sendatzera, baina berehala hil zen. Kasuari jarraipena egin gura dio Eguzkik, bere horretan ez dadin geratu: "Akusazio partikular gisa aurkezteko, baina, lehenengo, bide penala zabaldu beharra dago. Hala ere, kasuaren gaineko hainbat froga gura ditugula esan diogu Fiskaltzari eta onartu egin digu horiek eskatzea", diote Eguzkiko kideek. Eskatutakoak honako hauek dira: Oñatiko udaltzainek egindako atestatua, eta, ahal balitz, han zehaztutako herritarrei galderak egitea; Arrano Etxean jasotako datuak;



Oñatin tiroz hil zuten belatz handia. | OÑATIKO NATURZALIAK

heriotzaren arrazoia, egindako probak...; Aldundiaren bitartez espedientearen berri izatea, Fiskaltzari bideratzeko; eta basozainen txostena, jakiteko umaldian zegoen eta habiarik ote zuen.

**Hiru urtetan, hiru kasu**  
Legez babestutako espeziea dela belatz handia (*falco peregrinus*) jakinarazi du Eguzkik, eta hiru urtetan hiru akabatu dituztela Gipuzkoan: "2013an, Zumarragan, ehiza postu batetik tirokatuta; iaz, Donostian, etxebizitza batetik;

eta aurtan, Oñatin", diote, eta gaineratu dute: "Gupida handirik ez dute erakusten espezie babes-tuekiko eta badakite zeri tirokatzen ari diren". Donostiako kasuan, tiroa egin zuena harrapatu egin zuten, eta sei hilabeteko kartzela zigorra, isuna eta ehizatze eta animaliekin lan egiteko hiru urteko debekua ezarri zizkieten. Oñatiko kasuan, ostera, badakite ez dela samurra izango belatza hil zuena atzematea: "Baina baten batek delitu bat egin du eta iker-tu, behintzat, egin behar da".

ULMA

Grupo ULMA, S. Coop.

Oñati

### OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

**Eguna:** 2016ko ekainaren 17a  
**Ordua:** 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena  
**Tokia:** MU-Enpresagintzako auditorioa - Oñati (Gipuzkoa)

**GAIZERRENDA**

- Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko
- 2015eko gestio soziala aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea, eta, kasuan kasu, 2016ko Gestio Plana eta kostu mankomunatuaren jardueraren zerbizuen aurrekontu berrestea
- 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea
- 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena
- Egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez, ULMA Taldeko POGU III eta Barne Araudi Kooperatiboko 42 artikulua aldatzea onartzearen berrestea, hala badagokio
- MONDRAGON Inversiones, S. Coop.en desinbertsioa
- ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaroko gaien buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea
- Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
- Zaintza Batzordeko kideak berritzea
- Kontseilu Sozialako kideak berritzea
- Ahalmek eskuordetzea
- Galde-eskeak

**OHARRAK:** Bazkideei gogorarazten zaie Grupo ULMA, S. Coop.eko (aurreantzeran, "Kooperatiba") sozietatearen egoitza eskuragarri dituztela urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan diren. Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitza eskuragarri dituztela proposatutako Barne Araudiaren eta POGU III-ko aldaketan testu osoak eta deien emateko edo bidaltzeko eskua ditzaketela; eta (II) "Etorbizuneko MONDRAGON" nonentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onspen-proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko kooperatiba elkartuei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 6.1 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitza eskuragarri dituztela ere, eratzeko proposatzen den bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 6.2 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA  
Oñati, 2016ko ekainaren 2a

# "Oso pozik", eta "bigarren olatua" noiz helduko zain

Galdeketaren balorazio ona egin dute: "Herritarron baliabideekin egin dela hartu behar da kontuan"

**JOKIN BEREZIARTUA** | DEBAGOIENA  
Botoa emateko eskubidea zuten 16 urtetik gorako debagoiendarrren ia %30ak hartu zuen parte ekainaren 5eko herri galdeketa, eta horietatik %27k baiezkota eman zion Euskal Herriak estatu independentea osatzearen aldeko aukerari.

Ezusteko barik, eta aurreikusitako moduan gauzatu zen independentziaren gaineko herri galdeketa Debagoiengan, Aramaion barne. 09:00etan zabaldu zituzten hautestontziak eta hala koetan ohikoa den moduan, bereziki eguerdi partean eta arratsaldeko azken orduan izan zuten mugimendurik handiena herri galdeketa ahalbidetzeko lanean jardun zuten 650 bat boluntarioek.

**Herritarren baliabideekin egina**  
Galdeketa emaitzen askotariko irakurketak egin dira asteon. Antolatzaileek, baina, "oso positiboki" baloratu dute galdeketa: "Oso pozik gaude. Kontuan har-

tu behar da herritar batzuk antolatutakoa izan dela, ditugun baliabideekin. Kataluniarekin konparatzen badugu, emaitzak oso onak izan dira; 2010ean egin ziren herrietan bozketa gehienak han, eta parte-hartzeak ez ziren hemengoak baino altuagoak izan. Nahiz eta lan handia egin, gure baliabideak mugatuak dira eta



Erain Debagoienako zenbait kide Arrasateko lekalean, ekainaren 5eko galdeketa emaitzen berri ematen. | IMANOL SORIANO

igarri egiten da. Motorrak berotzea eta jendea animatzen joatea da garrantzitsuena", adierazi zuen galdeketa biamurtean Erain Debagoienako komunikazio taldeko bozeramaile Jon Goikoetxeak. Debagoienekoa -Aramaiokoa barne- eginda, herri

ekimen hori "hasiera besterik ez" dela azpimarratu dute behin eta berriro antolatzaileek: "Olatu txiki bat, laster etorriko den bigarren olatu bat elikatuko duena. Beste bat arte, izango da eta aukera". Etorkizunerako domino efektua lortu gura dute, hain justu.

## Eskerrik asko, Debagoiena!

*Eskerrik asko denoi, laguntza eman diguten enpresei, bozkatzera etorri zaretenoi, laguntzen ibili zaretenoi, errifak erosi dituzuenoi, animoak eman dizkiguzuenoi..., beti erabiltzen diren hitzak dira, baina, egia da zuen guztion parte hartzerik gabe ezingo genuela aurrera egin eta lortutako emaitzak lortu. Hau ekin besterik ez da egin, urrats bat izan da, eta gehiago ere etorriko dira, handiagoak eta hobeak ezinbestean. Bestelako baloraziorik egin aurretik, esan behar dugu pozik amaitu dugula izandako erantzunarekin eta bide onetik goazela. Zuei ere poz txiki bat ematea lortu badugu, ez da gutxi. Beste bat arte, izango da aukera eta.*

ERAIN DEBAGOIENA

### HERRI GALDEKETAKO EMAITZAK HERRIZ HERRI

	BOZKAK	%	BAI	%	EZ	%	ZURIAK	%	BALIOGABEAK	%
<b>Arrasate</b>	4.505	23,56	4.267	94,27	209	4,64	7	0,16	22	0,49
<b>Bergara</b>	3.731	30,26	3.531	94,97	154	4,12	17	0,45	17	0,45
<b>Oñati</b>	3.371	35,68	3.232	95,88	100	2,97	10	0,30	29	0,86
<b>Aretxabaleta</b>	1.700	29,41	1.618	95,18	69	4,06	2	0,12	11	0,65
<b>Eskoriatza</b>	894	26,60	803	89,82	86	9,62	3	0,34	2	0,22
<b>Antzuola</b>	709	40,42	681	96,05	19	2,68	1	0,14	8	1,13
<b>Aramaio</b>	639	51,24	602	94,21	28	4,38	2	0,31	7	1,10
<b>Elgeta</b>	345	36,86	338	97,97	7	2,03	0	0	0	0
<b>Leintz Gatzaga</b>	203	52,71	100	93,46	5	4,67	2	1,87	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.093</b>	<b>29,51</b>	<b>15.172</b>	<b>94,28</b>	<b>677</b>	<b>4,21</b>	<b>44</b>	<b>0,27</b>	<b>96</b>	<b>0,57</b>

Informazio gehiago 'Herriak' atalean.

ITURRIA: ERAIN DEBAGOIENA

Ekainaren 5eko jarraipen osoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Atxa, MUko errektore izendatu eta gutxira, 2015eko otsailean. | JAGOBA DOMINGO

## Trebakuntza biharko oinarria dela sinetsita

MUko errektore Xabier Atxa, 'Harira' saioan: "Goi mailako formakuntza da gure erronka nagusia"

**J.B.** | ARRASATE

Duela urte eta erdi hasi zen Mondragon Unibertsitateko errektore moduan Xabier Atxa (Oñati, 1966). "Modu naturalean" hartu zion erreleboa Josu Zabalarik; gainera, lan esparrua ez zaio batera ezezagun, 22 urte daramatza-eta, nola edo hala, MUn lanean.

Lau urtera arteko erronka izango du oñatiarrak. Orain arteko ibilbidearekin pozik dagoela esan du asteon Goiena Telebistako *Harira* saioan. Atxak azpimarratu du 73 urtean MUK egin duen ibilbidean lau fakultate sortu dituela.

Hala ere, gizartean beharren bat sortu eta hari erantzuteko eragilerik egon ezean, unibertsitatea zeregin horretan ere saiatuko dela aurreratu zuen: "Beharren bat identifikatuz gero eta behar horri erantzuteko beharrezkoa bada fakultate berri bat garatzea, gu saiatuko gara. 73 urtetan lau sortu ditugu, azkena duela sei urte". MUn erronka nagusia gazteen prestakuntza goi mailakoa izatea izango dela ere adierazi zuen Atxak *Harira*-n: "Gure misioa-

rekin bat doa, gure gazteen prestakuntza goi mailakoa izan behar da. Zergatik? Gazte horiek izango direlako etorkizuneko gure enpresak bultzatuko dituztenak". Izan ere, MUn DNAn enpresak daude. Oso unibertsitate espezializatua da, eta haien beharrei erantzuna emateko planifikatzen dituzte ikasketak, ikerketak eta beste.

### ESANAK

**"Beharrezkoa bada, saiatuko gara fakultate berri garatzen"**

**"Euskara, ingelesa eta gaztelera dira gure oinarria"**

**BIXENTE ATXA** | MU-KO ERREKTOREA

### Matrikulazioek gora

Bestalde, Atxak azpimarratu zuen geroago eta ikasle gehiago dituztela, matrikulazioak gora egin duelako, eta horrek indartu egiten duela Debagoieneko eskualdearen norabidearen egokitasuna. Gainera, eleaniztasunaren alde egindako apustua ere azpimarratu zuen MUko errektoreak: "Argi dugu euskara dela gure bidelaguna, baina ingelesa eta gaztelera oso garrantzitsuak dira guretzako. Duela zortzi urte erabaki genuen gure hizkuntza eredu hiru hizkuntza horietan oinarritu behar zela".

Etorkizunari zorrotz begiratu dio MUK, bereziki informazio eta komunikazio teknologiei dagokienez: "Industria 4.0 [etorkizuneko ziber-industria adimen-duna] delakoan talentua eta trebakuntza izango dira gakoak. MU izendatu dute koordinatzaile hurrengo urteetako formakuntza industria 4.0 horri begira emateko". Bestalde, ikus-entzunezko graduan erabateko berrikuntza egingo dute, ikasgaiei horrenbeste begiratu barik, ikasleak erdizuneari jarrita.



# Ezusteko gutxirekin abiarazi dute E26rako kanpaina

Gipuzkoako zein Arabako hautagaitzetan, Debagoieneko ordezkariak ere bada zerrendetan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gauerdian hasi da Espainiako Gorteetarako hauteskunde kanpaina, ekainaren 24ko gauerdia arte iraungo duena. Bitarte horretan, alderdi politikoen herritarrei aurkeztuko dizkiete hautagaitzak eta programak. Gipuzkoan hamaiaka aukeraren artean bozkatu ahalko dugu. Araban, aramaiorak aintzat hartuta, berriz, hamabi aukera izango dituzte.

## Elkarrekin-Ahal Dugu, batera

Aldaketa gutxi sumatuko ditugu orain dela sei hilabeteko kanpainarekiko, batetik, alderdi politikoaren hautagai gehienak berberak direlako, eta bestetik, euren mezuetan eta programetan ere aldaketa gutxi espero direlako.

Aldaketa bat aipatzekotan, nabarmena delako, Irabazik eta Ahal Duguk, bestela esanda, Espainiako IU eta Podemose alderdien hemengo ordezkariak batera joateko sortutako koalizioa da, gurean Elkarrekin-Ahal Dugu izena hartu duen koalizioa, alegia. Ikusiz dago indar metatze horri aurre egiteko ahaleginak egingo duten gainontzeko alderdiek zela edo hala, edo horretarako beharrik ez duten ikusten eta bakoitzak tinko eutsiko dion orain artekoari.

## Debagoienean nagusiak

Eskualdera etorrira, Debagoienean EH Bilduk, EAJk eta Elkarrekin-Ahal Duguk jasoko dituzte boto gehien. Oraingo honetan, edozein modutan, abenduaren 20an Podemosekin izan zen ezustekoa gaindituta izango dute bai herritarrek eta baita alderdiek ere. Ikusteko dago emaitza ikusgarri eta espero bako haiek erdiesten dituen orain koalizioa den Elkarrekin-Ahal Duguk.

## Debagoiendarrak zerrendetan

Azpimarratzekoa da, baita ere, Debagoienak baduela ordezkariak zerrendetan: EAJkoan errepikatu egingo dute Rafael Uribarren arrasatearrak Kongresurako eta Victoriano Gallastegi bergararrak Senaturako. Azken horrek, gainera, egin du senatari ibilbidea joan den abenduaren 20ko emaitzei esker, ibilbide motza izan arren.

Alderdi Sozialistak ere errepikatu egingo ditu pare bat izen, arrasatearrak biak ere: Rafaela Romero bigarren doa Kongresurako zerrendan eta Senaturako hautagaien artean, berriz, Oscar Garcia ordezkari moduan doa.

Eta Gipuzkoako ordezkariak borobiltzeko, Elkarrekin-Ahal Dugu koalizioaren zerrendan

Isabel Salud bergararra bigarren doa Kongresurako.

Beste debagoiendar bat bada, kasu honetan, Arabako zerrendetan: Itziar Lamarain arrasatearra, Alderdi Popularrak ordezkari artean aurkeztu duelako.

## Kanpaina

Hautagaitzak aurkeztuta, kanpainari ekin diote politikariek. Debagoienean EH Bildu izan da estreinakoa; ezustekorik ezean, atzo, Bergaran, ekitaldi xumea egin ondoren kartel jartze tradizionala egitekoak ziren.

Gaur, berriz, sozialisten bisita izango da; Arrasaten, goiz partean azoka txikira gerturatuko da Odon Elortza zerrendaburua, arrosak eta programa banatzera.

EAJk ekainaren 16rako du aurreikusita mitin nagusia Bergaran alderdikide entzutetsuekin.

Ekainaren 18an, berriz, etorriko da EH Bilduren zerrendaburu Beitialarrangoitia, hura ere Bergarara.

Eta Elkarrekin-Ahal Dugu koalizioak kanpainaren bigarren asterako du aurreikusita ekitaldia Debagoienean.

Ekitaldiaz gain, dena den, alderdiek bestelako ere egingo dituzte herritarren botoak erakartzeko.



Lapurreta jasan zuen estankoa, kanpoko aldetik. | GOIENA

# Aretxabaletako estankobatean lapurreta egin dute

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA

Aretxabaletako Bizkaia kaleko Ibarra estankobatean lapurreta egin zuten atzo, eguena, eguerdian, 12:40ak aldera, hain justu ere. Segurtasun sailatik helarazitako informazioaren arabera, estankoko langilearen eskuko telefonoa eta dirua ostu zituzten.

Hori egiteko, emakumezko batek labanarekin mehatxatu zuen estankoko langilea. Une hartan bakarrik zegoen estankoko dendaria. Era berean, lapurreta egiteko, estankoa barrutik ixtera behartu zuen lapurrak.

## Barrutik ixtera behartuta

Lekukoek adierazitakoaren arabera, lapurreta gertatu eta berehala automobil bat ikusi zuten abiadura azkarrean ingurutik ihes egiten. Ibilgailuan bi lagun zihoazen, andrazko eta gizonezko bana, hori ere lekukoaren arabera.

Bestalde, lapurrak ihes egin zuenean, estankoko alarma baliatuta ohartarazi zituen segurtasun indarrak estankoko jabeak. Hori horrela, Ertzainak eta Aretxabaletako udaltzainak berehala gerturatu ziren gertaera lekura. Ikerketa abiarazi du Segurtasun Sailak.

## Ekintzaileei bideratutako formazioa eta laguntzak antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak

Debagoieneko ekintzaileei zuzendutako bi ekimen martxan jarri ditu Mankomunitateak, Lanbide eta Bultz-Lan Consulting-ekin batera. Batetik, *Sortu zure enpresa Debagoienean* ikastaroa eskainiko dute enpresa ideia dutenentzat. 32 ordukoa izango da, doan eta uztailean egingo da. Bestetik, langabetuendako bi laguntza aurkeztu dituzte: enpresa-ideiak garatzeko eta enpresa-jarduera berriak abian jartzeko. Laguntzok eskatzeko epea ekainaren 23ra artekoa da. Informazio gehiago, Mankomunitatean.

# Beitialarrangoitia eta Otegi, aurrekanpaina ixten

U.M. | DEBAGOIENA

Arrasaten bata –Arnaldo Otegi–, Oñatin bestea –Marian Beitialarrangoitia–, biak ala biak Debagoienean izan dira kanpaina hasi baino lehenagoko egunotan.

## Beitialarrangoitia, pentsioez

Hain justu ere, Kongresurako EH Bilduren Gipuzkoako zerrendaburu Marian Beitialarrangoitia Oñatiko Eltzian izan zen eguaztenean, Duintasuna erretiratuen eskaera onartuta. Legebiltzarrean aurrera eramandako ekimen sozial eta, batez ere, pentsioak osatzeko prestatutako lege proposamenaren gainean jardun zuen, bertaratutakoekin solasaldia egin ez. Beitialarrangoitiak, besteak beste, adierazi zuen pentsiodunak babestu beharreko kolektiboa dela, eta pentsioen gaineko politiken garrantzia azpimarratu zuen. "Bizi dugun egoeran, badaude

hainbat kolektibo egoeraren okerra bizi dutenak, eta horietako bat pentsiodunena da. EH Bildurentzat kezka iturri izan dira pentsiodunak, uste dugu pertsona batek bizitza duina eramateko gutxieneko batzuk bermatze aldera, gai hau eztabaidaren erdigunean kokatzea komeni dela", onartu zuen.

Duintasuna elkartearen izenean, berriz, Jose Antonio Amundarainek nabarmendu zuen gizarte segurantzaren propio bat sortzea nahi dutela hemen.

## Otegi, herritarrekin berbetan

Bestalde, mitin klasikoak alde batera utzita, herritarrei hitza eman zien hitzaldi formatua izan zen EH Bilduk Arrasaten joan den barikuan antolatutakoa. Jende inguraturiko oholta gainera igo zen Arnaldo Otegi, alboan honako alderdikide hauek ere



Marian Beitialarrangoitia, Oñatiko Eltzian. | ENEKO AZURMENDI

bazituela: Marian Beitialarrangoitia, Iñaki Ostolatz, Iratxe Saez de Egilaz, Aitzol Cajaravilla eta Nerea Zubia.

Askotariko gaiak landu zituzten: Eskoziako prozesua, herritarren desilusioa, eredu kooperatiboa edo autogestioaren eredu garrantzitsua, besteak beste. Erreferentzia asko egin zizkion Arrasateri eta bailarari: "Eredugarria izan da bailara hau, herrigintzan, hizkuntzan eta arlo ekonomikoan", esan zuen. Ilusioa berreskuratu eta Arrasate bezalako ikur batean agintea berreskuratzeko beharra nabarmendu zuen.



Arnaldo Otegi, Arrasaten. | IMANOL SORIANO

# Gaur zabalduko dute AP-1eko Eskoriatzako zatia

E.A. | DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, arratsalde-gauetan, erabat lehengoratuko da zirkulazioa AP-1 autobidean (120 KP), Eskoriatzan. Hortaz, amaitu egingo dira 2015eko martxoaren 5ean erori zen mazela egonkortzeko lanak, Gasteizko noranzkoan galtzadaren erabat ixtea eragin zutenak. Geroztik, atsedetik gabe aritu dira lanean premiazko egoera hori konpontzeko.

Bide Azpiegitura diputatu Aintzane Oiarbidek adierazi du lehentasuna obra honetan, beti, "langileen eta AP-1eko erabiltzaileen segurtasuna bermatzea" izan dela eta, era berean, "ezegonkortasun arazo hori konpondu eta trafikoa behin betiko normaltzea".

## ZABALIK

**AITOR BIAIN BIDARTE**  
goiena.eus/komunitatea/



## Talde baten zailtasunak

Talde baten parte izatea zaila da. Edozein talderen kide izan den pertsona batek ongi daki urteak pasatzen diren heinean bizikidetzak, errespetua, fideltasuna, lantaldea... galdu egiten diren balioak izaten direla.

Eta, hori dela eta, talde horren jarduna aurrera eramateak zailtasun handiak dituela bidean.

Horregatik, 25 urte, 50 urte... betetzen dituzten taldeak, askotan, ez ditugu guztiz baloratzen.

50 urte bete dituzten taldeek atzetik 2.600 astetako bizikidetzak dute, eta, astean bi aldiz elkartzen badira, 5.200 saio dituzte bizkarrean.

Hori aurrera eramatea oso zaila da.

Gaur egun bizi garen gizarte hau konstantzia albo batera uzten ari da.

Bakoitzak bere buruari gehiago begiratzen baitiogu, eta ez taldeari.

Egia da gaur egun jendea mila istoriotan sartzen dela, baina goian idatzitako balio horiek berreskuratzea garrantzitsua dela uste dut. Pertsona hobeak izaten lagunduko baitigu.

Oñatiren kasuan, azken urteetan urteurren desberdinak bizi izan ditugu.

Ganbarak 20 urte, Oñatek 45 urte, eta, azkena, Oñati Abesbatza: aurreko urteko ezteiak bete ditu.

Bihotzez zoriondu nahi ditut talde guztiak, baina, bereziki, Oñati Abesbatzakoak, 50 urte ez direlako erraz betetzen.

Urte asko bizi izan nituen taldean gaztetxo nintzenez, eta, egia esan, oso oroitzapen onak datozkit burura.

Eta, noski, asko ikasi nuen beraiekin.

Beraz, eskerririk asko, bihotzez, Loliri, Imanoli eta kide guztiei, nire lehenengo pausuak zuekin ematen uzteagatik.

Orain, beste 50en bila. Zorionak!

**Bizikidetzak, errespetuak, fideltasuna... galdu egiten dira urteekin**

## USTEAK USTE

**JULEN IRIONDO** | jiriondo@goiena.eus

## Hain da gauza sinplea, baina...

Hain da gauza sinplea, baina... herri galdeketa ostean pozik ziren hartarako lanean jardun duten ordu luzez hainbat taldeetako kideak; pozik, herritarrei aukera eman zitelako, eta milakak esan zutelako *Bai* edo *Ez*; herritarrei *Bai* edo *Ez* esateko, iritzia emateko, aukera eman zitelako pozik; hain da gauza sinplea, baina... Eta baietz esatea ezetz esatea bezain sinple; baina aitortu behar zaie bigarreni domekako ariketan parte hartuta egindako ekarpena; euren gogoak defendatzeko bozkatzera zertan joanik ez izan arren, bozkatzera joan ziren horien; independente izan nahi ez dutenena, baina herritarrek hala erabakita. Gehiago bitez hurrengoetan!

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Garbiñe

**Luis Aranberri 'Amatiño'**  
<http://goo.gl/O2zluK>

Duela lau urte inor gutxi ezagutzen zuen. Orain, oster, denok "gutartzat" aldarrikatzen dugu. Espainiarra da; EITBn, euskalerritarra; Bizkaikoan, eusko-venezuelarra; Gipuzkoakoan, jatorriz gipuzkoarra eta, Eibarren, erdi eibartarra. Gure Garbiñe gajoa! Aldarrikatzea ondo dago, bultza egitea ere bai, baina nago ez ote den gehiegikeria patetiko samarra errealitateari bizkar ematea, Parisko partida amaitu bezain laster, EITBren berriemaileak egin zion elkarriketa laburra lekuko.

Hasteko, "zorionak" esan eta Garbiñe adierazi: "Gracias". Amaitzeko, berriz, "ahora... Toca vuelta al País Vasco?" galdetu eta Garbiñe, isilik, irribarre gozoaz erantzun: "Ahora... Toca vuelta al sofá!". Izan ere, zer erantzun, mikrofono aurrean, kazetariak ez baldin badaki Garbiñe Genevan (Suitza) bizi dena?

Sei urte baino ez zituela Bartzelonako tenis-eskolara eraman zuten neskato venezuelarrak zail izan lezake eibartartasun nabarmenik [...].

Euskal izakera zertan datzan badaki, ordea. Baina ez euskal senaren jabe delako, ez delako baizik. [...] *Ocho apellidos vascos* filma ikusi ostean zera esan omen zion aitari: "¡Te han clavado, papá!".

## Catherine Quinn

**Miren Amuriza Plaza**  
<http://goo.gl/K5ZE3z>

Ibilera pausatuekin dator Paddy. Zapata handiak dakartza, beltzak, urpekontzi astunen gisako; praka nasaiak larruzko gerrikoari atxikita; alkandora koadroduna eta jertse grisa zilborretik behera lotua; bibote urdindua, masail arrosak, betaurreko lodiak eta txapel irlandar tipikoa. Ikusleak pentsa lezake postari erretiratu bat dela, zeinak arratsak agortzen dituen golfean, Joyce irakurtzen, edo banjoa jotzen. Oker lebilke baina, Paddy Quinn 1981eko udaberri mundua Ipar Irlandara begira jarri zuen IRAko gose-grebalarietako bat da.

[...] Usaina, kartzelariak atean uzten zion ogi egin berriarena; itzala, ikusmena galdu ahala inguratzen zuen mamuarena; zaporea,

enegarrenez oka egin ostean irentsi listu garratzarena; hotsak, kidearen arnasestu agonikoa -siltasuna- kidearen neskaren garrasia. Baraualdian hildakoen oroigarri marmolezkoari so geratu da istant batez. Bobby Sands identifikatu du ikusleak, jarraian datoz beste bi, lau, sei, bederatzi izen. Eta 47. egunean koman sartu nintzen, esan du.

Artean Britainia Handiko lehen ministro zen Margaret Thatcherrek, zera erabaki zuen: behin preso koman sartzen zenean, bere senide zuzenek hauta zezatela gose greba akaburaino eraman ala ez. Uztailaren azkenetan sei ziren hildakoak eta nire ama izan zen medikuen interbentzioa eskatu zuen lehena, argitu du Paddyk.

Zelan zeukan izena zure amak? galdetu dio ikusleak. Gizonak bekokia zimurtu orduan, harriduraz, eta begiak kliskatu gero, hunkituta. Catherine Quinn, esan du, Catherine Quinn. Eta bat-batean Paddyren amak lainozkoa izateari utzi dio eta hezur-mamizko egin da; determinazio erabakior hura hartu eta iragazi zuen gorputza berreskuratu du; subjektu politiko bihurtu da. Lehen aldia ei da amaren izenaz galdetzen diotela.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Ubane Madera

**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.

**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zoriza Martin, Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia.

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzerain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-butxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.com

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 00


harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014

**ISSN:** 2174-369X

**Tirada:** 18.850 ale

**Difusioa:** 18.507 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## DUELA 10 URTE

2006-05-12

## Arrasateko udala hautsi egin zen

Gelmaren inguruko polemika tarteko, Arrasateko udaleko Aralarako zinegotzi Joxe Etxeberrriak dimititu egin zuen; horrek Gobernu batzarra egoera delikatuaren utzi zuen. EAJk eta EAK osatzen zuten orduko hartan Gobernu batzarra -EAJk sei zinegotzi zituen eta EAK, berriz, hiru-. Apurketa horrek zail utzi zuen aurrerantzean gobernazioa. Oposizioak hamaika zinegotzi zituen.



Agintariak inaugurazio ekitaldian. | GOIENA

2006-06-04

## Euskal Eskolaren jaia ospatu zen

Euskadiko eskola publikoak Oñatin bere jaialdia. Zazpi gune prestatu zituzten Oñatin, bakoitza kultura eta aisialdi eskaintza propioarekin. Pailazoak, tailerrak, kontzertuak, kale animazioa, jolasak eta natur guneak izan ziren gozagarri. Hain zuzen ere, naturak eta kulturak egin zuten bat. *Mugak gaindituz herriak biribildu* leloarekin egin zuten jaia eta 30.000 pertsonatik gora joan ziren Oñatira, Euskal Eskola Publikoaren jaira.

## DUELA 5 URTE

2011-06-10

## Euskaraz inskribatzen hasi

Oñatiko eta Eskoriatzako bake epaitegietan jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz inskribatu ahal izateko sistema berria ipini zuten martxan. Jaurlearitzak sortutako programa informatiko batek ahalbidetu zuen herrialdeko bi hizkuntza koofizialetan egin ahal izatea. Bergaran aurrez ere egin zitekeen.

## OÑATI

## HERRITARRAK

**Esteban Irusta** Apaiza izandakoa, musikaria eta irakaslea da, besteak beste, Esteban Irusta. Bizkaitarra sortzez, Oñatira etorri zen hamar urte zituela, agustindarren komentura. | MIREN ARREGI

# "Elizak gauza txar asko egin ditu, baina baita onak ere, eta ez dira kontuan hartzen"

**M**unitibarren jaio zen Esteban Irusta Mallea 1934. urtean. Bederatzi anai-arrebako familia bateko seme, hamar urterekin etorri zen Oñatiko agustindarren komentura. Erretiroa hartu zen irakasle lanetan. Apaizgintza utzita, hemezortzi urte egin ditu ezkontuta.

## Bi urte zenituen Espainiako gerra hasi zenean...

Gernikatik hamalau kilometrora dago Munitibar, eta, Gernika ez ezik, gure herria ere bonbardatu zuten. Ni ez naiz gogoratzen, baina anai-arrebei entzun izan diet askotan basora joaten ginela, etxeak bonbardatuko zituzten beldurrez. Nik badut hegazkin hotsen halako oroitzapen bat... Ondorioez ondo gogoratzen naiz; bonba zuloez, eta nola eliza ere suntsitu zuten.

## Oñatin daramazu, baina, bizitza ia osoa.

Hamar urterekin etorri nintzen Oñatira. Seminariora, agustindarren komentura. Anaia bat banuen oñatin, eta osaba ere bai. Tradizioa zen familian, eta ni ere hona etorri nintzen. Gure familia oso lotuta dago Oñatiko agustindarrekin. Hamabost urte inguru genituela Harora joan ginen eta

han egon ginen hiru bat urtez. 1960an bidali ninduten Lesakara. Han egon nintzen hemezortzi urtez; apaiz bihotzez erdi nafarra naiz, bertan pasatu nituen nire bizitzako urterik onenak. Gazte ginen-eta orduan. Organo jotzaile aritu nintzen, eta hango futbol taldean ere bai. Lau urtez egon nintzen eurekin jokatzeko.

**Apaiz, futbol jokalaria eta irakasle.** Lesakan hasi nintzen irakasle lanetan eta bizitza osoa eman dut horretan. Kolegio baten hasi nintzen eta euskara ere ematen genuen, debekatuta egon arren. Lezon ibili nintzen, eta Donostian ere aritu nintzen, Corazon de Maria ikastetxean.

**la bizitza osoa irakasle lanetan. Aldaketa handiak bizi izan dituzu, seguru.**

Nik bi garai bereizten ditut: hasierakoa, irakasle izatea errazagoa zen garaia, eta gaur egungoa. Lehen, irakasleek eta gurasoek bide bera jarraitzen zuten, eta gaur egun ez da horrela gertatzen. Lehengo gurasoek, zortzi, bederatziko seme-alaba izaten zituztenek, bazekiten zein arazo sortzen dituzten umeek taldean daudenean; gaur egungoek, aldiz, ume batekin edo birekin, ez dakite zer den hori. Izan ere, umeak oso desberdinak dira bakarka



Esteban Irusta, plazan, eta atzean Txantxiku Ikastola. | MIREN ARREGI

**"Basora joaten ginen, etxeak bonbardatuko zituzten beldurrez"**

**"Lehen, irakasleek eta gurasoek bide bera segitzen zuten; egun, ez da horrela"**

edo taldean daudenean. Orain, askoz ere zailagoa da irakasle izatea. Pena ematen didate gaurko irakasleek.

## Musikari ere bazara.

Komentuan egin nintzen musikari. Komentuak ziren orduko musika eskolak. Gregorianoa asko abesten genuen, partitura artean ibiltzen ginen. Hamar urterekin, musika klasikoa asko gustatzen zitzaidan. Musikagatik izan ez balitz, agian, ez nintzen apaiz ere egingo. Osaba organo jotzailea zen, anaia ere bai, eta nik ere organoa jotzen ikasi nuen; autodidakta izan nintzen.

## Komentuetan geroz eta jende gutxiago dago...

Guk uste genuen Vatikanoko kontzilioarekin gauzak aldatu egingo zirela, baina ez zen horrela gertatu. Aldaketa bakarra izan zen herriko hizkuntza sartu ahal izan genuela mezetan. Askok uste izan genuen apaizak ezkontzeko aukera emango zuela Vatikanokoak,

## NIRE HERRIAN

## EDERTASUNA

Herria bera da zoragarria. Egitura, urbanizazioa... Zer esanik, ez paisaia. Gu bertan bizi gara, eta, askotan, ez gara konturatzen; kanpoko baten begiekin ikusi beharko genuke. Bisitariak esaten dute benetan dela ederra. Alde horretatik, herri pribilegiatuan bizi garela esango nuke.

## ZIKINKERIA

Ez dut ulertzen horretan idazteko dagoen ohitura hori. Egiten dutenek, gainera, ez dute euren helburua lortzen, justu kontrakoa. Hori bakarrik ez, zikinkeria handia pilatzen da kaleetan; gurasoek ez diote behar besteko garrantzirik ematen garbitasunari. Hori ez da gertatzen Europako beste herrialde batzuetan.

baina alderdi horretan ez du aurrera egin Elizak.

## Apaiz izateari utzi zenion; erlijioak, baina, garrantzi handia izaten jarraitzen du zure bizitzan.

Sinistea laguntza handia da niretzat. Egonkortasun emozionala eskaintzen du fedeak. Ez dut ulertzen gaur egun dagoen Elizaren kontrako jarrera. Bi mila urtetan Elizak hanka-sartzeak izan ditu, noski, baina gauza onak ere egin ditu, eta ez dira kontuan hartzen; badirudi txarrak bakarrik egin dituela. Komunikabideetan ere txarra bakarrik agertzen da.

## Zerk kezkatzen zaitu?

Euskal Herriaren eta euskararen etorkizunak kezkatzen nau. ETB ere kendu dute Nafarroan... Garai baten, uste izan genuen ikastolen bitartez-eta gauzak hobera joango zirela, baina ez dut horrelakorik ikusten. Euskaldunak gara eta gurea dena defendatu beharko genuke.



# HERRIAK

ONATI

## Leintz bailarara, Garagaltzatik

- ▶ Aretxabaletara eta Eskoriatzara joateko bidea izan zen galtzada hori urte askoan
- ▶ Urrexolako eta Garagaltzako auzotarrek herrira hurbiltzeko ere erabiltzen zuten



Auzotarrak, galtzadaren berritze lanetan orain dela bi urte; udan lan gehiago egingo dituzte. | KONTZEJUPETIK

ESANAK

**"Galtzada berritzea garrantzitsua izan da, jendeak ikus dezan nolako bideak zeuden lehen"**

JERARDO ELORTZA | HISTORIALARIA

DATUA

# 70

UNITATEA

Duela bi urte, bidearen 70 metro berritu zituzten. Udan, galtzadaren beste zati bat berritu eta lan batzuk ere egingo dituzte.

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Oñati Aretxabaletarekin eta Eskoriatzarekin –Leintz bailara– lotzen zituen bide klasikoaren parte zen orain dela urte pare bat berritutako Garagaltza auzoko galtzada zatia.

Galtzada hura noiz eraiki zen guztiz ziurra ez bada ere, Erdi Arotik aurrera, behintzat, erabiltzen zela jakina da.

"Garai hartan aldapei ez zitzaion horrenbesteko garrantzirik ematen, bide motzeta bilatzen zen", dio Jerardo Elortza historialari oñatiarrak.

San Juan kale barrenean dagoen *Aingeru Guardakoa*-ren ondok igarotzen zen bidea, eta San Juan ermita alboko Kurpide eta Gaztelondo baserri ingurutik zeukan jarraipena. Arregiko aldatatik jaitsita, Lamiategitik barrena, Albarritzara iristen zen eta hortik Urrexolarako noranzkoa hartzen zuen bide honek. Urrexola Garai izeneko baserri ondok igarotzen zen eta hortik Aretxabaletarantz zihoan.

Oñatin, bi auzotatik igarotzen zen bidea, Garagaltza eta Urrexolatik, eta Aretxabaletan beste bi auzotatik, Goroeta eta Aozaratzatik, hain zuzen.

Tartean, gutxienez, hiru erreka zeharkatzen zituen bide zaha-

rrak: Deba, Artixa eta Urkulu errekek. Azken honen izenarekin arazoa egon izan da. Izan ere, batzuek Urkulu zen, baina beste batzuek Erguin ere deitzen zioten.

XX. mende ingurura arte, Urrexolako auzotarrek kalera hurbiltzeko bide hau erabiltzen zuten –gero, Olateko zentrala ireki zenean, Torreazotik bidea ireki zen eta hori ere baliatzen zuten–. Gorabehera handiko bidea zen, baina motzeta ere bai.

Honi lotuta, gainera, anekdota ezagun bat dago. Elortzak hone-  
la kontatzen du istorioa, barrez:

"Urrexolako amona bati, gaixotuta eta hiltzear zegoela, abadea gerturatu zitzaion eta barkatzen ote zuen galdetu zion. Amonak umorez hartu zuen galdera eta honela erantzun zion: 'Nik guztiei barkatzen diet, bati izan ezik'. Orduan, abadea zalantzati gelditu zen, nor izango ote zen pentsatzen, eta amonak bukatu zuen esanez: 'Arregiko aldapari ez diot sekula barkatuko pasara zi dizkidan sufrimendu guztiak'."

Esan bezala, auzotarrek erabiltzen zuten bide hau, kalera joateko. Batez ere, oinez ibiltzen ziren eta animaliak –mandoa eta

zaldia, gehienbat– baliatzen zituzten zamadun objektuak garraiatzeko. "Bidearen zati batzuetan gurdia ere erabiltzen zuten, baina aldapa handiegia zegoen hor, eta, zabalagoa izanda, baldarra goa ere bazen gurdia. Beraz, animaliak aproposagoak izaten ziren", azaldu du historialariak.

**Urrexola-Gaineko guda**

Luis Mitxelena idazleak bere *Textos arcaicos vascos* liburuan dio Urrexola-Gainean oinaztarren –Murgia, Urribarri...– eta ganboatarren –Araotz, Lazarraga, Garibai...– arteko hainbat gatazka

egon zirela 1388 eta 1401. urte bitartean, ohore eta lurra zirela eta. "Ohorea garrantzitsua zen, bai. Baina euren lursailak defendatzeko nahia bazegoen. Izan ere, interes ekonomikoak garrantzitsuak ziren. Horrez gain, ganaduarendako –zaldiak, ardiak, eta abar– zelaia behar zituzten", azaldu du Elortzak.

Guda haietan gertatutakoa azaltzen duten zenbait abesti gaur egun ere mantentzen dira oraindik, lekuko gisa.

**Gaur egun, berrituta**

Galtzada-harri zahar batzuk mantentzen ziren oraindik; horiek aprobetxatu eta harri berri batzuk gehituta, bidea berritzea erabaki zuten. Auzo-lanean egin zituzten lan horiek, *Auzotasuna* egitasmoaren barruan Oñatiko Udalak emandako diru laguntzarekin.

"Kurpide ingururaino nahiko ondo mantentzen zen antzinako bidea, baina inguruan txalet batzuk eraiki dituzte eta urbanizatu egin da zona hori", adierazi du Elortzak.

Onartu du galtzada berritzea garrantzitsua izan dela, behintzat, lekuko moduan balio dezan, jendea konturatu dadin nolako bideak erabiltzen ziren antzina.

Uda honetan, bidearen beste zati bat berritzeko asmoa dute.



Galtzada, gaur egun txukunduta. | ENEKO AZURMENDI

# Kirola kaleratu, erakutsi eta probatzera gonbidatu

Herriko talde gehienek jarduera bertatik bertara ikusi ahalko dute herritarrek, erdigunean (11:00-14:00)

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Arrasateko kirol taldeek urtean zehar egiten duten lanaren erakusgarri izatea. Horixe da bihar-ko Kirola Kalera Egunaren helburu nagusia. Herrian egiten diren kirol gehienak gertutik ezagutzeko aukera egongo da, eta herritarrei kirol ezberdinak probatzeko aukera eskainiko die Udaleko Kirol Zerbitzuak. Horretarako, erdialdeko lau gunek zehaz-

tu dituzte: Herriko Plaza, Iturriotz eta Erdiko kaleak; Garibai, Biteri eta inguruak; Portaloia eta Seber Altube; eta Jose Letona plaza -Iturriotz kalearen eta Arrasate pasealekuaren arteko plaza-txoa-.

**Ekintza ugari hiru ordutan**  
Ekintza guztiak 11:00etatik 14:00etara izango dira, kirola "ohiko esparruetatik plazara"

eramateko: "Gure asmoa da modalitate guztiak bata bestearengandik ahalik eta gertuen egotea, herritarrei jarduera guztiak ikusteko aukera emateko", adierazi dute Kirol Zerbitzutik.

Izan ere, egitarau luzea dago hiru ordurako: spinninga Jose Letona plazan (11:30-13:00); lasterketa laburrak Erdiko eta Iturriotz kaleen artean (12:30-13:00); Iturriotz aldeko elizako horman pilotari gazteenekin erakustaldia (12:00-13:00); errugbi ariketa ezberdinak Herriko Plazan (12:00-13:00); altuera-jauzi erakustaldia Herriko Plazan (13:00-14:00); penalti jaurtiketak eta binako zein hiruko futbol partidu motzak Seber Altuben (11:00-12:00); ginkana eta lauko eskubalo partiduak Seber Altuben (12:00-13:00); hiruko futbol partiduak -ate handiak zein txikiak erabilita- Seber Altuben (13:00-14:00); klubeko gazteenekin xake erakustaldia Portaloian (11:30-14:00); hiruko saskibalo partiduak eta jaurtiketa lehiaketak Biterin (12:30-13:30); cricket erakustaldia -espazio murriztuan- Biterin (11:00-12:00); aikido, judo, karate eta kenpo erakustaldiak Biterin (10:30-14:00); boccia erakustaldia eta gupil aukiekin ibiltzeko zirkuitu bat Olatxon edo



Hiruko saskibalo txapelketa Laubide plazan -bihar Biterin-, aurren. | IMANOL SORIANO

Biteri plazaren ondoan (12:00-14:00); ziklismo ginkana (11:30-13:00), enduro BTT eta trialsin erakustaldia Garibai etorbidean (13:00-14:00)...


Horrez gain, Amillena taldekoak ezingo dira, hasiera baten, parapentean etorri; antolatzaileen arabera, beste lehiaketa bat

dute egun berean, eta, hura eguraldiaren baldintzengatik bertan behera geratuko balitz, Biteri plazan egingo lukete erakustaldia. Era berean, Arrasate Dragoiko gimnastek, Mondraitzek eta Besaidek argazki eta bideo erakusketak jarriko dituzte goiz osoan zehar.

## PARTE HARTUKO DUTEN KIROL ELKARTEAK

- ▶ Dorletako Ama Txirindularitza Taldea.
- ▶ Arrasate Dragoi Gimnasia Taldea.
- ▶ Arrasate Atletiko taldea.
- ▶ Besaide Mendizale Elkartea.
- ▶ Arrasate Pilota Elkartea.
- ▶ Mondra Futbol Taldea.
- ▶ Arrasate Eskubalo Taldea.
- ▶ Mondrate Areto Futbol Taldea.
- ▶ Arrasate-San Andres Xake Elkartea.
- ▶ Arrasate Rugby Taldea.
- ▶ Mondraitz Kirol Kluba.
- ▶ Ointxe Saskibalo Taldea.
- ▶ Dordoka Kirol Elkartea.
- ▶ Amillena Debagoieneko Aire Kirol Taldea (beste lehiaketa baten parte hartzeko aukera ez badute etorriko dira).
- ▶ Desoreka Judo Kluba.
- ▶ Arrasate Aikido, Kenpo eta Judo Taldeak.
- ▶ Arrasate Cricket Kluba.

## EKINTZEN KOKALEKUA



1. Spining. 2. Atletismoa. 3. Pilota.
4. Altuera jauzi, Rugby eta Mendi Erakusketak. 5. Futbol, futbito eta eskubaloia. 6. Xake. 7. Argazki erakusleioa. 8. Saskibaloia.
9. Parapente eta criket. 10. Boccia.
11. Aikido, judo, karate eta kenpo.
12. Trialsin eta BTT ginkana.

IMANOL SORIANO

## Vasco-Navarro trenaren historia ikusgai

Gaur irekiko du erakusketa AZEk Kulturateko klaustroan, uztailearen 8ra arte

**J.B.** | ARRASATE  
Debagoienean 50 urtez gora eta behera ibili zen Vasco-Navarro trenaren historia erakutsiko du, gaurtik hasi eta uztailearen 8ra arte, Arrasate Zientzia Elkar-teak: *Arrasate-Mondragon Vasco-Navarro trenaren historia*. Argazkiek hartuko dute erakusketaren zati handiena -klaustroan zehar

egongo dira kokatuta-, baina dokumentu historiko batzuk eta ikus-entzunezkoak ere izango dira, eta baita gurutze-puntuz egindako lokomotora baten koadroa eta *Mondragon* lokomotora ospetsuaren maketa bat ere. Eta hori gutxi balitz, Lizarran hasi eta Gasteizera arteko geltokien maketak ere ikusi

ahalko dira. Erakusketa ireki aurretik aurkezpena egingo dute Kulturateko Loramendi gelan (19:00) eta ondoren klaustroa jaitsiko dira erakusketan zehar bisita gidatu bat egiteko.

Era berean, iazko erakusketan oinarritutako *Arrasate 1945 ametsaren etorkizuna* liburua aurkeztuko dute gaur.

## Independentziaren aldeko hautua ekainaren 5eko galdeketa, %23,56ko parte-hartzeaz

**J.B.** | ARRASATE

Erain Debagoienak antolatutako ekainaren 5eko herri galdeketa botoa ematera deituta zeuden 19.119 arrasatearretatik 4.505 izan ziren botoa eman zutenak. Arra-

saten bederatzita bozkaleku jarri zituzten, eta, ohiko hauteskundeetan ez bezala, edozein lekutan bozka zitekeen. Beheko taulan bozkalekuen arabera datuak kontsulta daitezke.

### BOTO KOPURUA BOZKALEKUEN ARABERA

GUNEA	BOZKAK	BAI	EZ	ZURI	BALIOGABEAK
San Andres	413	389	21	0	3
Musakola	449	418	28	1	2
Ferixalekua	2.476	2.374	91	4	7
Uribe	253	240	11	1	1
Arimazubi	337	321	14	0	2
Garagartza	88	86	1	1	0
Gesalibar	35	34	1	0	0
Erguin	347	311	30	0	6
Santa Marina	107	94	12	0	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.505</b>	<b>4.267</b>	<b>209</b>	<b>7</b>	<b>22</b>

\*Arrasatearrek edozein hauteslekutan eman ahal izan zuten botoa.

ITURRIA: ERAIN DEBAGOIENA

**Unzueta Sagardotegia**

*Uda garaian ere zabalik!*

Sagardotegi menua • Aste-bukaerako menua • Karta  
Ospakizun berezietarako jantoki bereiztuak  
Aparkalekua eta terraza

Zabola auzoa • 01001 Aramaio • 945 44 50 95

**Lore**

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

# Aprendicesen jabegorako prozesua, eztabaida-iturri

Kulturola egitasmorako ezinbestekoa den eraikina Udalaren esku geratzeko moduak zalantzak piztu ditu

**JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE**  
Kulturola egitasmoak aurrera egiteko ezinbestekoa zen Aprendices eraikina Udalaren jabetzara pasatzea, eta, horregatik, agintaldi hasiera ezker aritu da gobernu eraikin horren jabe zen Jaur-laritzako SPRI erakundearekin negoziazioan. Bost milioi euro inguruko inbertsioa aurreikusten duen egitasmo hori posible izateko, permuta lortu dute; Udalak Aprendices bereganatuko du eta SPRI, berriz, Udalarena den Zal-duspeko gunearen %35en jabe izango da -Udalak gune horren

%88 zuen jabetzan-: "Permutak bideragarritasuna emango dio egitasmoari; akordioa lortu izana pozik hartu dute kultura taldeek. Hori bai, harritu egin gaitu oposizioaren aldetik trabak jaso izana, herriarentzat hain ona den eta erabat despolitizatu nahi izan dugun erabaki batekiko", uste du Maria Ubarretxena alkateak. Gogorazi zuen permuta bat ez dagoe-la zertan osoko bilkuratik pasatu, baina "gardentasunagatik" landu zela gaia. Gobernuaren aldeko botoekin (10) eta oposizio taldeen abstentzioarekin (10) onartu zen.

**Oposizio taldeen abstentzioa**  
Oposizioak gobernuaren formak kritikatu ditu: "Kulturaren alde gaude eta teknikarien lana babes-ten dugu, baina gaia lasaitasun gehiagorekin landu beharko litzateke. Uste dugu adostasuna lortzea benetan erraza zela, baina formegatik ez dute lortu oposizio-ko inor konbentzitzea", adierazi du EH Bilduko Eneko Barberenak. Baleike ere abstenitu egin zen. Hitzarmena apiril hasiera ezker sinatuta zegoela eta "gardentasunik gabe" egin dela salatu zuen Igor Urizarrek.



Mikel Gangoiti, Biziz enbaxada ibiltarirako bizikleta bereziarekin. | M.G.

**Mikel Gangoiti | Donostia 2016ko Biziz ekimeneko partaidea**

## "Bidea da helburua, astiro eta gertu bidaiatu ahal izatea"

Kaliningradotik (Errusia) Donostiara bizikletan etorriko da gazte arrasatearra: 2.846 kilometro

**J.B. | ARRASATE**  
Bizikletan bidaiatzeari gustua hartu dio Mikel Gangoitik (Arrasate, 1984). Frantzia, Norvegia eta Iranen ibilitakoa da eta bada-ki zer den Aretxabaletatik Istanbulera (Turkia) ere bizikletan joatea, bakarrik. Horregatik, ezin aproposago da harendako Donostia 2016ko Biziz enbaxada ibiltaria. Kaliningradotik (Errusia) Donostiarainokoa da Gangoitiren ibilbidea; ekainaren 13an hasi eta irailaren 18an amaituko du abentura.

**Zertan datza Biziz ekimena?**  
Bost ibilbide tematiko jasotzen dituen enbaxada ibiltaria da. Ibilbideak gai ezberdinen araberak daude sailkatuta: komunitatea, arkitektura, gastronomia, bioaniztasuna eta sexualitatea. Azken hori da gurea, arrosa koloreko taldea, eta Kaliningradotik Donostiarainoko ibilbidea egingo duena. 2.846 kilometro egingo ditugu. Kaliningradon hasi, eta Polonia, Txekiar Errepublika, Alemania, Luxenburgua, Belgika eta Frantzia zeharkatuko ditugu.  
**Zure taldean zenbat lagun daude?**  
Taldea bakoitzean hiru lagun izango da, aldeztu aurretik Donostia 2016n proiektu bat duena aurkeztuta sexualitatearekin zerikusia duten hainbat esperientzia jasotzeko. Beste

biok bizikleta berezi baten joango gara, laguntzaile gisa. Taldekideak ez ditut ezagutzen; bidaiaren bigarren erronka bat izango da elkarbizitza bera.

**Bizikleta bereziak dira, ezta?**  
Motor txiki bat dute, eta, inongo kargarik gabe, 60 bat kilo izango dituzte. Ez da bizikleta elektriko, baina motor barik ezinezkoa litzateke mugitzea. Jendea eramateko aukera eskaintzen dute, eta atzean eramango ditugu gure gauzak. Eta noski, bizikletarendako ordezko piezak ere eramango ditugu, edozein matxura dugula ere gai izan behar dugu-eta horiek konpontzeko. Formazioa jaso dugu horretarako; esan daiteke beste bizikleta bat eramango dugula desmuntatuta. Autosufizientek izan behar dugu bidean, baina abenturak biziko ditugu, ziur. Horren bila goaz!

**Nolakoa da bizikletan bidaiatzea?**  
Dena gainean eramatearen tentsazioa gustatzen zait, eta, bereziki, jendearengandik gertu eta astiro pasatzea. Bidaiariaren eta bertakoaren artean sortzen den kimika hori ederra da, ez da lortzen beste modu batera bidaiatuta. Bizikletan zoazenean, bertakoen etxean, lorategian edo eurak eskaini ahal dizuten lekuan egiten duzu lo. Bideaz gozatzera eta ikastera goaz, bidea da helburua.



Udal Gobernu (EAJ-PSE-EE), Udalaren eta SPRIren arteko hitzarmena babesten; oposizioa abstenitu egin zen. | J.B.

## Ukrainako gerra hizpide duen dokumentala bihar

**J.B. | ARRASATE**  
Ibai Trebiñok eta Mikel Arregik ekoiztutako *Donbass: gerra Europaren bihotzean* dokumentalaren estreinaldia egingo da bihar, hilak 11, Amaia antzokian -19:30ean izango da emanaldia, Udaleko kultura gidan 20:00etan dela iragarri arren-. Ikus-entzunezkoaren bi egileak estreinaldian egongo dira: "Lehen emanaldia denez, ikusleekin harremana izan nahi dugu, Ukrainako gatazkari buruz duten zalantzak argitu eta euren iritzia zein den jakin".



JESUS MARI EGIDAZU

## Danborradarako banderadak

Umeen danborrada ekainaren 18an Biteri plazatik irtengo da, 19:00etan. SUDCek jakinarazi duenez, honako hauek dira aurtengo banderadak, ezkerretik eskuinera: Yerling Segura (Arrasateko bandera), Ainhoa Usatorre (SUDCen bandera), Tara Banamou (ikurrina) eta Brian Mena (jenerala). Aurten helduen ibilbide berbera egingo dute gartzetxoek.

**Izan AUTO-GIDARI ARGIA. Erosi Dacia bat.**

**Dacia Sandero 6.200€<sup>1</sup>-tik hasita**

**5 URTEKO<sup>1</sup> BERMEA**

[www.dacia.es](http://www.dacia.es) / 915 065 359 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.

1) Pila Betavolta PVPa, pertsonarik edo enpresaentzako Sandero Base 1.2 150ku (PSCV) modeloa erabiltzeko, jergak, beterrusia eta PVE-0 Pileta baliatuz jergak, itxiki moduko Sandero Luzeak 1.2 55 Ku (PSCV), 7.000 €, jergak, beterrusia eta PVE-0 Pileta baliatuz berri. Partikular eta enpresaentzako, berriak Dacia Sandero Base 1.2 150ku (PSCV) 6.200 €-tik hasita, 5 urteko bermea erabiltzeko. Aurrerako bi urteetan, kilometraje mugatutako, 3. urtean, bermea agortu egingo da 100.000 km-en mugarekin batera. Hitzarpenaren arabera, Dacia Sandero bakoiko berme-irizapena horretatik bermea hutsatuko du garrantzi bermea irizapen du 2 urte garrantzi edo gutxi 80.000 km. Lehen bermearen bermea (hau bermea hutsatzen duen bermea) 40.000 km-eraino. Tokiaren arabera 2016/06/01 eta 2016/06/30era. Egun da bermea hutsatzen duen berme-irizapenaren.

Dacia Sandero Gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,5etik 5,8ra arte. CO<sub>2</sub>-aren isuriak (g/km) 90etik 130era arte.

AUTOBERRI San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGÓN [www.autoberri.com](http://www.autoberri.com)

Dacia gobernatzen du



Arrasatearrak Euskadiko Aerobik Txapelketan. | IMANOL SORIANO

## Arrasate Dragoi Gimnasia taldekoek urte amaierako jaialdia egingo dute bihar

Lorpenez beteriko urtea biribiltzeko jaiak 11:00etan hasiko da Uarkapen

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

2015-2016 denboraldi bikaina egin dute Arrasate Dragoi Gimnasia Taldekoek. Gimnasia erritmikoan zein aerobikean maila paregabea eman dute eta hainbat sari indibidual eta kolektibo pilatu dituzte irailetik hona.

Lortutakoa ospatzeko eta zaleen babesa eskertzeko, kurtso amaierako erakustaldia antolatuta dute

biharko. Uarkape frontoian izango da, 11:00etatik aurrera, eta sarrera doakoa izango da ikusle guztientzat.

Bertan, 5 eta 20 urte bitarteko 120 gimnasta arituko dira, urte osoan zehar landutako ariketak erakusteko prest. Taldeka eta bakarka arituko dira eta pilota, soka, uztaia, mazoak eta zinta erabiliko dituzte euren trebeziak erakusteko.

### Entrenatzailea pozik

Urtean zehar pilatutako lorpenen zerrenda amaigabea da: Espainiako Aerobik Txapelketan bi domina, Euskadiko Aerobik Txapelketan hiru urrezko eta zilar bat, gimnasia erritmikoan Euskadiko infantiletako hirugarren postua, kadete mailako bigarrena eta gazteetan lortutako lehen postua, besteak beste.

"Urteko balorazioa guztiz positiboa da. Sari ugari lortu ditugu aerobik eta erritmikoan, eta txapelketa oso zailetan, gainera. Hala ere, emaitza guztien gainetik, urte osoan zehar neskek izan duten lanerako gaitasuna azpimarratu nahiko nuke. Entrenamenduetan zein txapelketetan euren maila onena eman dute, erabateko konpromisoa erakutsiz", adierazi du Edurne Elkoro entrenatzaileak.

## 2016ko Kirol Sariak

X.G. | ARRASATE

Udalak, herriko kirolariek aurten egindako lana gorai-patzeko, 2016ko Kirol Sariak ekitaldia antolatu du gaurko, egubakoitza, 18:30ean, udal-tereko osoko bilkuren aretoan.

Lehenengo Aukea sariek utzitako hutsunea betetzera datorren sariketa izango da. Arrasateko kirol elkarteek eta kirol munduko komunikabideek aukeratu dituzte aurtengo sarituak.

Arrasatear kirolari nabarmenena eta kirol munduan ibilbide aipagarria izan duen kirolari edota kirol elkarte sarituko dituzte. Sariez gain, aipamen bereziak egingo dituzte urtean zehar emaitza azpimarragarriak izan dituzte taldeentzako.

### Aurtengo aipamenak

Hiru talderi egingo diete aipamena aurten.

Mondra Futbol Taldeari dagokionez, igoera lortu duten erregional eta bigarren erregionalako taldeei eta, saskibaloian, Gipuzkoako txapeldun izatea lortu duen infantileko neskei egingo diete aipamena.

## Mendi irteera domekan

X.G. | ARRASATE

Besaide MEkoek Artzaintza-ren Bideko laugarren etapa antolatu dute domekarako.

Arraban hasi eta Izarran amaituko dute etapa. Guztira, hamazortzi kilometro egingo dituzte oinez eta sei ordu eta laurdeneko iraupena izango du, hamaiketakoak barne. Autobusa 07:30ean aterako da Garibaiko geltokitik, eta buelta 18:30ean izatea espero dute antolatzaileak. Federatuei mugatutako ibilaldia izango da. Bazkideentzat hamar euroko kostua izango du eta gaitzakoentzat, aldiz, hamahiru eurokoa.

### Irteera gehiago uztailean

Uztailaren 9an eta 10ean Lobos ibaiaren arroilako parke naturalera egingo dute irteera, eta izen ematea zabalik egongo da ekainaren 20a arte.

Bi etapa egingo dituzte, Puente de los Siete Ojos-era lehena, eta Pico del Pinar-era bigarrena. Federatuta egotea beharrezkoa izango da. Bazkideentzat 65 euroko kostua izango du eta ez direnentzat, aldiz, 70 eurokoa.

## Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua, Naroa Agirreren mailatik gertu

Axperentzat urrea eta Ruiz de Azuarentzat zilarra Euskadiko Txapelketan

X.G. | ARRASATE

Pasa den asteburuan Anoetan egindako Euskadiko Txapelketa Absolutuan domina sorta ederra pilatu dute Arrasate atletak. Zazpi lortu zituzten: lau urrezko, bi zilarrezko eta brontzeko bat.

### Pertika jauzian bikain

Zazpi dominetatik lau pertika jauzian pilatu zituzten. Maialen Axpek urrea lortu zuen 4,20 metroko jauziarekin eta Malen Ruiz de Azuak zilarra 4,15 metrokoarekin. Podiumeko lehen bi

koxxak beteta, momentu honetan Euskadi mailan goren goreneari daudela erakutsi zuten arrasatearrek, Naroa Agirre olinpiarren mailatik gertu.

Mutilek ere lan bikaina egin zuten. Istar Dapenak urrea eskuratu zuen 5,15 metroko jauziri esker. Jonathan Perezek ere lan txukuna egin zuen, eta 4,95 jauziarekin brontzea lortu zuen. Istar Dapena Jonathan Perezen maila gaintzeko gai dela erakusten ari da, eta ikusteko dago noraino hel daitekeen.

Aire libreko denboraldia hasi berri dute, eta hemendik eta abuztua heldu arte, euren markak hobetzeko aukerak izango dituzte. Ekaineko Espainiako txapelketa proba interesgarria izango da euren sasoi ona erakusteko.

### Domina gehiago

Malen Ruiz de Azuak urrezko domina lortu zuen luzera-jauzian, 5,35 metroko markari esker.

Eneko Carrascalek jauzi hirukoitzean urrea poltsikoratu zuen 14,78 metroko jauziarekin eta Ibai Fernandezek 100 metroko proban zilarra 11 segundoko denbora eginda.



MONDRA FUTBOL TALDEA

## Mondraren sari banaketa

Denboraldi bukaerako festa ospatu zuen Mondra futbol taldeak pasa den domekan. Monterronen egindako ekitaldian, urteko jokalariei onenei eta sutsuenei garaiak banatu zizkieten, eta baita entrenatzaile onenei ere. Sariez gain, klubaren aitortzen handiena eman zieten Iker Lopezi eta Jon Zabaletari; izan ere, taldean urte asko egin ondoren, datorren urtean ez jarraitzea erabaki dute.

## Ointxe!-ko nesken infantil taldea Galiziarra bidean Espainiako 32 talde onenen artean lehiazera

Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde geratu ondoren, Espainiako Txapelketan lehiazeko txartela eskuratu dute Ointxe! saskibaloia taldeko infantil mailako neskek. Espainiako 32 talde onenekin batera lehiatuko dira. D taldean jokatu dute arrasatearrek Valladolideko Uva Ponce, Kanariar uhartetako Spar Gran Canaria eta Malagako Palo Fym Italcementi taldeekin batera. Domekan egingo dute debuta, malagarren aurka, eta, hiru onenen artean geratuz gero, final-laurdenetarako sailkatuko dira.



Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe entrenamendu batean. | JAGOBIA DOMINGO



Goiena Classic Clubekoak topaketako kartelarekin. | OCTANE SHOTS PHOTOGRAPHY

# Ibilgailu klasikoaren maitaleentzako topaketa

- ▶ Goiena Classic Clubek antolatu du eta lehen edizioa izango da domekan
- ▶ Autoez gain, motor eta bizikleta klasikoak ere egongo dira ikusgai

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Auto eta motorren mundua etengabe berritzen eta bere burua berrasmutzen duen merkata da. Hala ere, berritasunak berritasun, badago gauzak beste era batera egiten zireneko motorzale ugari.

Urteak joan eta urteak etorri, funtzionatzen jarraitzen duten ibilgailu klasikoaren maitaleak, alegia. Beste garai batzuetako estetika eta xarma erosotasun modernoaren aldean nahiago dituztenak, eta 25 urtetik gorako ibil-

gailu horiek semeak balira bezala zaintzen dituztenak. Bailaran dagoen zaletasuna ikusirik, Goiena Classic Clubekoek Auto Klasikoaren Topaketa antolatu dute, lehen aldiz. Domekan izango da, eta Eroski supermerkatu alboan

egingo dute. 09:30ean hasiko dira autoak eta motorrak heltzen. "Auto Klasikoaren Topaketa izena jarri arren, 25 urtetik gorako motorrei eta bizikletei ere zabaldu diegu parte hartzeko deia", azaldu du Aitor Lopezek, Goiena Classic Clubeko kideak.

Giroa berotzeko, gunean bertan DJak eta hizlari bat arituko dira, eta bertako egarria asetzeko txosna bat jarriko dute. 11:30ak arte ibilgailuak ikusgai egongo dira. Orduan, motorrak piztu eta bira bat egingo dute. Bira eginda, berriz itzuliko dira Eroski alboko gunera, eta sari banaketa eta zozketa egingo dituzte. "Urrunen etorritakoari eta urte gehien dituen ibilgailuari sariak emango dizkiegu. Horretaz gain, elkarteko kamisetak eta pegatinak saltzeko postu bat jarriko dugu, eta bertako produktuak zozketatuko ditugu". Horren ostean, bazkaria egingo dute Eroskiko jatetxean.

## Goiena Classic Club

2015eko azaroan sortutako elkar-atea da. Debagoienean auto klasikoekiko zaletasuna dutenak batzeko eta elkarrekin gauzak antolatzeko helburuarekin sortu zuten.

"Behin elkarte sortuta, era honetako topaketa bat antolatzea komenigarria zela pentsatu genuen, jendeari gure burua ezagutarazteko. Sare sozialetan lan hori egin dugu aurretik, baina era honetako ekintzekin lortzen da herri mailan ezagutaraztea", adierazi du Aitor Lopezek.

## Nagusiaren Asteko azken eguna izango da gaurkoa

X.G. | ARRASATE

Etxaluzeko egoitzan askotariko ekintzak izan dituzte aurtengo Nagusiaren Astearen baitan.

Astelehenean eman zioten hasiera, diana txapelketarekin, eta, besteak beste, Iturbide egoitzako abesbatzaren emanaldia, danborradako entsegua eta Oñatiko erretiratuen *Hospital o manicomio* antzezlanaren izan dituzte astean zehar. Gaurko bolo txapelketarekin eta opariz betetako bingo bereziarekin amaituko dute edizioa.

## Harreman, pozik aurtengo Elkartasun Egunarekin

X.G. | ARRASATE

Harreman GKEkoak pozik daude aurtengo burutako Elkartasun Egunarekin. Eskerrak eman dizkiete hura posible egin duten erakunde eta babesle guztiei, beste behin, Harremanen jardunarengan konfiantza izateagatik.

## Aurtengo zozketa

Eroski Bidaiak babesleari esker, aurtengo 11. tonbola egin dute. Aurtengo zenbaki irabazlea 986 izan da.

## Udaberri Musikaldiko bi hitzordu asteburuan

X.G. | ARRASATE

Arrasate Musikalek antolatutako Udaberri Musikaldiko ez du etenik, eta ekintzaz betetarik dator.

Asteburu honetarako bi kontzertu antolatu dituzte. Lehena gaur izango da, egubakoitza, 18:30ean. Familien kontzertua egingo dute Kulturaten. Bigarrena biharko saxofoi eta gaita kontzertua izango da. 12:00etan hasiko da, Musika Eskolan bertan.

## Datorren astean ere bai

Datorren astean zehar ere ez dira hitzorduak faltako. Astelehenean tronpa kontzertua egingo dute, 18:30ean, Musika Eskolan, eta asteazkenean pianokoa, 18:00etan, leku berean. Eguenean, kantu kontzertua eskainiko dute.



ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN

## 'Euskaldunak Garra!'

Hori izan da aurtengo San Juan jaietarako esaldi lehiaketako irabazlea. Amets Arexolaleiba, Uxue Arexolaleiba eta Aitziber Erretolatza hirukoteak irabazi du. Haien esaldia joango da San Juan jaietako zapien idatzita, eta, ohore horretaz gain, 100 euroko dirusaria ere jaso dute irabazleek. Zorionak!

## 'Auzoko' proiektuaren dokumentala, auzotarrak erakartzeko helburuarekin

X.G. | ARRASATE

*Auzoko* proiektua euskaldunen plataformak sortutako egitasmoa da, inguruan bizi diren kanpotarrei euskara eta euskal kultura gerturatzeko asmoz.

Bertan, auzotarrek eta auzokideek hartzen dute parte. Auzokideak kanpotik etorritakoak dira eta auzotarrak, berriz, bertan bizi eta kanpokoei eus-

kara ikasten laguntzen dietenak. Arrasaten hiru talde daude, baina auzotar gehiago behar dituzte antolatzaileek. Hala, *Auzoko*-ri buruzko dokumentala egin dute, egitasmoa herri-tarrei erakutsi, eta auzotar berriak erakartzeko. Kulturaren proiektatuko dute, martitzenean, 19:00etan. Interesdunek 651 70 79 36 telefonora dei dezakete.

## Euskal Herriko irratizaleek topaketa egingo dute domekan

X.G. | ARRASATE

*Sunmit on the Air* euskal irratizaleek urtero antolatzen duten hitzordua da. Irratizaleentzako eta mendizaleentzako uztartzen dituen egitasmoa da. Aurtengoan, gipuzkoarrei egokituko zaie ekitaldia antolatzea, eta Arrasateko Irratizaleen Elkarteak kideek antolatu dute.

Nafarroa, Bizkai, Araba eta Gipuzkoako 40 irratizale inguru batuko dira domekako ekitaldian, nor bere emisio antenak eta bateriak motxilan hartuta.

Goizeko bederatzietan Aretxabaletako Galartza auzoan elkar-tu, eta Murugainera ibilaldia egingo dute. Behin han, ekipoak muntatu eta deiak egiten hasiko

dira, nor bere frekuentziatik. Batzuek frekuentziak bidali eta beste batzuek horiek jasotzean datza joko. Bidaltzen dituztenak aktibatzaileak dira eta jasotzen dituztenak, aldiz, ehiztariak.

UHF, VHF eta HF frekuentziak erabiliko dituzte. Bakoitzak hedapen maila bat du. VHF frekuentzietatik 150 edo 200 kilometroko hedapena izatera hel daitezke eta HF frekuentziekin mundu osora heltzeko gaitasuna dute aktibatzaileek.

## Lokal eskaera

Domekako egitasmoa Arrasaten lokal propio bat edukitzeko aldarria egiteko baliatu dute Arrasateko Irratizaleen Elkarteak.



Irratizaleentzako eta mendizaleentzako hitzordua. | ARRASATEKO IRRATIZALEEN ELKARTEA

# Ikastetxeetara oinez joateko egitasmoa jarriko dute martxan

San Martin Agirren eta Mariaren Lagundian bi asteko proba egiten ari dira

JULEN IRIONDO | BERGARA

Oraingo probaren ostean, asmoa da aipatutako ikastetxeei Aranzadi batzea datorren ikasturtean. Ikastetxe bakoitzak definituko ditu bere ibilbideak, eta ikasle eta gurasoak koordinatuko ditu, boluntarioak ere beharko dira eta ekimena aurrera eramateko.

Mugikortasuna eta Osasuna izan da ikasturte honetan herriko ikasleek Agenda 21en barruan landu duten gaia, eta hortik etorri da Eskola Bidea egitasmoa martxan jartzeko ideia, "haurren autonomia eta osasuna bultzatzeko", Hezkuntza zinegotzi Izaskun Labaienaren arabera.

San Martin Agirre ikastetxean, hango Guraso Elkartek ere proposamena egin zuen eskolara oinez joateko egitasmo bat martxan jartzeko: "Horrela hasi ginen gu, eta Udalaren gonbidapena jaso dugunean bat egin dugu proposamenarekin". Astelehenean hasi ziren, proba moduan, eta martitzenean "jende gehiago" animatu zela zioen San Martin Agirreko Miren Labordak.

Mariaren Lagundian ere pozik hartu dute udalaren proposamen hau. "Gurasoak ere animatu dira,



Umeak eskolara oinez. | JULEN IRIONDO

eta egun hauetakoa proba izango da. Baina asmoa datorren ikasturtean ere honekin aurrera egitea da", azaldu zuen Mariaren Lagundiko Erkuden Unamunok.

### Proiektuaren jarraipena

Ziortza Marzan bergararra master bat egiten ari da, *Osasunaren sustapena eta garapen soziala* izenburuko, eta arlo praktikoa Eskola Bidea proiektuaren jarraipena egitea izango da. "Haurrak etxetik eskolara bidea modu jasangarri eta seguruan egitea da helburua, batetik. Umeek auto-

nomia hartzen dute, eta ardurak hartzen hasten dira. Egitasmoaren onurak asko dira; adibidez: ibilbidea oinez egitea; lagunekin hizketan eta jolasean joatea; edo eskolara esna heltzea", adierazi du Marzanek.

Egitasmoa Lehen Hezkuntzako ikasleentzat izango da, baina Haur Hezkuntzan ere eskainiko dute aukera, "anaia-arrebak elkarrekin eskolara joan daitezen", Labaienek azaldu bezala. Ikasleak eskolara oinez joandakoa, txartel batean marka egingo diote, jasota gera dadin.

## Gustu guztietarako garagardoak eta jatekoa Demasa azokan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

500 pertsonarendako lekua dago atzo hasi eta domekan bukatuko den *Demasa* garagardo azokan. Jatorri desberdinetako hamabi garagardo mota eta jateko txerri-ukondoa eta saltxitxak eskainiko dituzte.

Antolatzaileek garagardo azoka "festa handi bat" izatea espero dute. Gaur eta bihar 18:00etan irekiko dute karpa, eta domekan, berriz, 12:00etatik 18:00etara izango da zabalik.

Zuzeneko musikarik ere ez da faltako azoka-gunea girotzeko. Gaur DJa izango da 21:00etan hasita, eta bihar, ordu berean, herriko Diablues&Bluecifer bikotearen kontzertua.

### Herri eragileen eguna

Domekan, azokaren baitan, Bergarako hainbat eragile bilduko dira, kilometroak 2016rekin elkarlanean dihardutenak.

11:00etatik aurrera, tailerrak izango dira. Esaterako, Blai-blai prozesuak bere txokoa izango du, eta buztin tailerra ere izango da. 13:00etan eskaintza bat egingo diete eragileei.

### Zirkuituaren aurkezpena

Domeka, era berean, aurtengo kilometroetako zirkuitu ofiziala aurkeztuko duten eguna ere

izango da. Hala, 11:00etan Aspanceko kideekin batera zirkuitua aztertuko dute, egokia ote den frogatzeko. Lokatzako kideekin ere egin ahal izango da bidea, bizikletaz.

13:00etan izango da aurkezpen ofiziala, ikastolan. Aurreratu dute zirkuituak bost kilometro izango dituela eta lau izango dela, urbanoa, eta 2007koaren antzekoa. Udalarekin batera diseinatu dute.

### Kongoren aldeko mugikorrak

Aranzadiko DBHko 3. mailakoek Kongoko Koltan meategietako egoeraren berri izan dute, eta euren laguntza emateko hautua egin dute. Telefono mugikorrek egiteko beharrezkoa den mineral bat da Koltana. Egoera politiko eta ekonomikoaren ondorioz, heldu zein umeek oso egoera txarrean egiten dute lan, eta urtero 22.000 pertsona inguru hiltzen dira.

Hala, Alboan GKEarekin kontaktuan jarri dira ikasleak, eta mugikor zaharrak batzeko kanpaina abiatu dute. Hilaren 13tik 21era bitartean ikastolako sarreran, korridoreetan eta kilometroko dendan jasoko dituzte gailuak. Eskatu dute posible bada gailuak erreseteatuta ekartzea.

## Antolatzaileak oso gustura domekako galdeketarekin

J.I. | BERGARA

Galdeketa "oso pozik" utzi zituen herriko Gure Esku Dago taldekoak: "Gure erronka zen %30eko parte-hartzera iristea, eta lortu genuen". Taldetik nabarmendu dute kopurua ona dela, kontuan izanda bozkatzera joandakoen artean ia denak -%95- baieztuaren aldekoak izan zirela eta galderari *-Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?* ezetz erantzungo lioketen ia guztiek ez parte hartzea erabaki zutela. Gure Esku Dago-ko Aitor Erañaren arabera, horri gehitu behar zaizkio galdeketa antolatu behar izan den moduan antolatu beharrak eragindako zailtasunak. Gainerakoan, eguna "zoragarri" joan zela dio Erañak; jendearen "poza eta ilusioa" nabarmendu ditu. [Informazio zabalagoa, 4. orrian]



HELDUEN ESKOLA

## Helduen eskolakoak Londresen

Begarako Helduen Eskolako ingeles taldeko hemeretzi ikasle eta beraien irakasleek Londresera egin zuten bidaiari maiatz bukaeran. Aukera ona izan zuten ikasitako praktikatzeko, eta eskolatik adierazitakoaren arabera, ondo moldatu ziren. Ingelesa praktikatzea zain, hiriko hainbat txoko bisitatzeko aukera izan zuten.

### EMAITZAK AUZOZ AUZO

GUNEAK	BOTOAK	BAI	EZ	ZURI	BALIOGABEAK
Seminarioa	2.451	2.344	85	11	11
Ibarra	142	136	4	1	1
Martokoa	261	246	13	2	0
Matxiategi	695	648	40	3	4
Angiozar	104	95	8	0	1
Osintxu	84	80	4	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.737</b>	<b>3.549</b>	<b>154</b>	<b>17</b>	<b>17</b>

ITURRIA: ERAIN DEBAGOENA

**BERGARA MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**TELEIXA BILTEGIAK**

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



Janaria ere etxera eramaten dugu

#### Plater gustukoenak:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadilla)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrek

Etor zaitez!

943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA



# Datorren asteburuan izango da hiruko saskibaloitxapelketa

Bederatzigarren edizioa da aurtengoa eta izen ematea zabalik dago jada

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Ekainaren 18an eta 19an jokatu da IX. hiruko saskibaloitxapelketa San Martin plazan, Bergara Kirol Elkarteko saskibaloitxapelketa sailak antolatuta. Saskibaloitxapelketa inguruko jaia izango da, eta zapatuan afaria egingo dute. Txartelak Ganbara, Depor, Egon eta Etxagi tabernetan daude salgai hilaren 15era arte. Nagusiendako 15 euro eta txikiendako 10.

## Izen ematea

3-4 pertsonako taldeak izango dira. Hilaren 15era arte dago izena emateko aukera, inskripzio-orriak bete eta Labegaraietako edo Agorrosingo kiroldegietan edo BKEren Bidekurutzetako bulegoan entregatuta. [www.bergarake.com](http://www.bergarake.com)-en ere egin daiteke.

## Kategoriak

Zazpi kategorია izango dira, benjaminetatik seniorretara



Antolatzaileak eta Soralue eta La Caixako babesleak aurkezpenean. | M.T.

(seniorretan bi maila: arrunta eta elite maila). Guztietan, emakumezkoen eta gizonezkoen txapelketa bana izango da. Irabazleek dirua eta garaikurra jasoko dute, eta bigarrenek garaikurra -elite mailan 100 euro ere bai-. Talderik "jatorrenak" ere izango du saria, eta, Bergarako talderik ez bada txapeladun suertatzen, herriko onei afari bat oparituko diete.

Hilaren 18an, egun osoz izango dira partiduak, 10:00etan hasita. Domekan, 10:00etaik 14:00etara, alebin eta benjamin mailetakoen partiduak jokatu dira. Zapatuan gainontzeko kategorია guztietakoek jokatu dute.

## Ekainaren 15ean, jolasak

Eguaztenean, benjamin eta alebinendako saski jokoak izango dira Labegaraietan (16:00-20:00).

# Musika eskola: hainbat saio ikasturtea amaitzeko

J.I. | BERGARA

Eskolako orkestra sinfonikoaren eta txistu taldearen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, 18:30ean, Mariaren Lagundiko elizan; domekan, berriz, Bergarako eta Azpeitiko musika eskoletako ikasleen organo kontzertua, Santa Mariñan, 19:00etan. Stoltz-Frères organoaren lagunen elkarteak antolatu du, eta sarrerako 5 euroak hura berritzeko poltsara bideratuko dituzte.

Ekainaren 15ean, eguaztana, 19:00etan hasita, Egon tabernan joko du Big Band-ak -baxua, bateria, teklatura eta haizezko instrumentuak-. Dantza ikuskizuna -zuzeneko musikarekin- izango da, berriz, hilaren 17an Muniben -eguraldi txarrarekin, Espoioian-, 22:00etan. Dantza eskolako ikasle guztiek parte hartuko dute, eta Zumarragako Irrintzi dantza taldekoek ere bai. Musika, berriz, musika eskolako ikasle eta irakasleek jarriko dute.



Maria Borislavova. | MUSIKA ESKOLA

## Zuzendaritza ikasketak

Hilaren 15era arte egin daiteke matrikula musika eskolan. Aurtentzen, ohiko eskaintzaren parte da. Banda, orkestra, abesbatza eta talde instrumentuen zuzendaritza teknikarena.

## Maria Borislavova

Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioko gitarra lehia- ketan ohorezko aipamena lortu du lehenengo nibelean.

## LABEGARAIETA

### EMAITZAK

SVC-Errefuxa	4-5
SVC-America	3-6
River City-HIS	3-5
Estrella Coja-Vodka Juniors	10-2
Komando Piperrak-Birgerias	12-1

### PARTIDUAK

Ekainak 12, Domeka	
15:00	HIS-Komando Piperrak / Arrano Zabalik
16:00	HIS-Arrano Zabalik / K. Piperrak
17:00	SVC-River City / Estrella Coja
18:00	Estrella Coja-River City / SVC
19:00	Errefuxa-Vodka Juniors / America
20:00	Birgerias-America / Vodka Juniors

## OHARRAK

### MASAJEAK SAN JOXEPEN

Martitzenetan, 15:30etik 20:30era.

### POL-POLEKOEN IRTEERA

Beteranoak. Hilak 18,19 Laguna Negrara. Izen ematea 13ra arte.

### EGUAZTENEN AZOKA

Txipirotiak nola garbitu eta errezetak. Pintxo potea Eruanek.



## Abian da udako futbol torneoa

Asteon jokatu dituzte Ipintzako udako txapelketako lehen partiduak, nesken, mutilen eta beteteranoen kategorietan. Kategoría guztiak batuta, denera, 26 taldek eman dute izena aurtengo edizioan, urtez urte errepikatzen dutenak zein berriak. Datozen asteetan zehar partidu interesgarriak ikusteko aukera izango da arratsaldeetan.

# Fin ibili dira herriko gimnasta gazteak Euskadiko txapelketan

M.T. | BERGARA

Joan den zapatuan, ekainak 4, gimnasia erritmikoko amateur mailako kadeteen Euskadiko txapelketa jokatu zen Durangon. Bergarako Ariznoa taldeko ordezkariak lan txukuna egin zuten bertan, eta podiumera igoztea ere lortu zuten.

A mailan, taldekako lehia- ketan, Ariznoakoek bigarren egin zuten. Bestalde, maila bereko bakarkakoan, Irati Gardokik hirugarren postua

eskuratu zuen, bai mazo parearekin egindako saioan, baita sailkapen orokorrean ere.

## Urte bukaerako erakustaldia

Ekainaren 17an, egubakoitza, Bergarako gimnastek ikasturte bukaerako erakustaldia eskainiko dute, hilabeteotan egindakoa plazaratzeko asmoz. 18:30etatik aurrera izango da hori, Labegaraietako kiroldegian.



Bigarren postua lortu zuen kadete taldea. | NAGORE JIMENEZ



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
[www.txipi.com](http://www.txipi.com)

**TXIPI**  
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

## UREDERRA

Iturgintza  
Beregintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

## Udaberri txapelketako hiru partidu izango dira gaur Udal Pilotalekuan

19:30ean hasita, alebin mailakoa izango da lehen partidua. Intxurreko ordezkariak Etxeberriak eta Pereirak osatutako Bergarako bikotearen aurka arituko dira. Jarraian, kadete mailako lau terdikoan Gallastegik Aloña Mendiko Perezen aurka jokatuko du. Bukatzeko, nagusietan, Iñarrak Legazpiko Ibaguren izango du aurrean.

## Bergarako Athleticzaleek bazkaria egingo dute hilaren 25ean

Urtero legez, aurtentzen ere denboraldi amaiera jai giroan ospatzeko hitzordua egin du Bergarako Athletic Club lagunartean. Ekainaren 25ean bazkaria egingo dute San Martzialen. Bazkideak eta Athleticzaleak gonbidatu dituzte, bereziki. Joan nahi dutenek izena eman behar dute hilaren 22a baino lehen Toki Ona bodegoian.



# Liztor beltzaren aurkako protokoloa indarrean dago

- ▶ Herritarren laguntza eskatu du udaltzaingoak habiak kentzeko
- ▶ 2016an dagoeneko bi kendu dituzte, biak Errekalde auzoan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Asiako liztorraren edo liztor beltzaren aurkako protokoloa indarrean jarri du Oñatiko Udalak udaltzaingoaren bitartez. Idoia Lazpita udaltzainguruak azaldu duen moduan, eurak arduratuko dira protokoloa gauzatzeaz eta herritarrei eskatu die habiaren bat ikusiz gero horren parte emateko euren deituta.

## Hamabost metro

Habiak txikiak direnean errazago kentzen dira eta tenis pilota bateko tamainako habia ikustean horren berri ematea inportantea da, "handiak kentzea askoz zailagoa" delako, udaltzaingoak bidalitako oharraren arabera.

Herritarrek habiaren abisua ematen duenean, gunera joango dira udaltzainak eta ze tamaina duen, non dagoen eta suntsitzeko ze baliabide behar diren aztertu dute. Habiak hamabost metro baino beheko baldin badago, udaltzainak eurak saiaturiko dira kentzen, Tomas Sagasti Basola-



Errekaldeko etxebizitza bateko balkoitik kendutako habia bat. | UDALTZAINGOA

nak zerbitzuaren laguntzarekin. Altuago baldin badago, suhiltzaileei egingo diete dei, udalak ez duelako hamabost metro baino gorago heltzen den garabirik.

2016an, dagoeneko, tamaina txikiko bi habia kendu dituzte,

biak Errekalde auzoan; bata ateri batean eta bestea balkoi batean. Horrelakorik ikusiz gero, herritarrek zenbaki hauek deitu behar dute horren berri emateko: 943 08 10 00 (Oñatiko udaltzaingoa) edo 112 (larrialdia).

## Erretiratuen Astea dute Pake Lekun astelehenetik

O.E. | OÑATI

Erretiratuen Astea ospatuko dute datorren astean Pake Leku elkartean eta egitaraua prest dute. "Egunero egongo da zerbait. Aurten ere saiaturiko gara denetarikoa antolatzen, eta alde horretatik ez dago nobedaderik. Osasunaren inguruko hitzaldia, bingo berezia, txokolata-jana eta urteroko bazkaria egingo ditugu, adibidez", aurreratu du Pake Lekuko presidentea, Tomas Igartuak.

Astelehenean Aloña abesbatzak emanaldia egingo du Santa Anan, 18:00etan, eta hori izango da asteko lehen ekitaldia. Martitzenean, berriz, Juan Jose Sagarzazu mediku oñatiarrak iktusari buruzko hitzaldia egingo du Santa Anan, 17:30ean. Eguazten goizean irteera egingo dute Ugarkalde eta ingurueta eta eguneko bingo berezian opariak egingo dira. Urteko bazkaria domekan izango da, Zubikoa kiroldegan, eta herriko bi nagusik omenaldia jasoko dute: Felix Arregik (90 urte) eta Guadalupe Arregik (95 urte). Musika, dantza eta bertsoak ere izango dira han.

## Jaiei lotuta hainbat deialdi egin ditu udalak

O.E. | OÑATI

Aurtengo San Migel eta Errosarixoa jaietarako hainbat deialdi zabaldu ditu Oñatiko Udalak. Sei guztira. Herri Eguneko talo taberna kudeatzeko deialdia da bat. Aurkezten den taldearen ardura izango da: horniketa eta ustiaketa osoa. Atzeko kaleko txosna hartzen duen taldearen ardura ere bera izango da. Udalak txosna eta soinu-ekipoa jarriko du eta udalarekin adostu beharko da txosnaren irekiera egutegia eta ordutegia. Gauza bera beteko da artzain txakur lehiaketako tabernan ere. Herri bazkarian parte hartzeko deialdia ere egin du udalak. Gutxienez 40 pertsona osaturiko taldea izan beharko da aurkezten dena eta 13:00etarako kiroldegi aurrean egoteko konpromisoa hartu beharko du. Lortutako irabazkiak ardura hartuko duen taldearendako izango da kasu guztietan. Seigarren deialdia da jaietako egitarauan argazkiak aurkeztekoa. Edozeinetara aurkezteko azken eguna ekainak 16 da. Kultura etxean eman behar da izena.

## Kutzak

Jaietako egitaraua osatzeko herritarren proposamenak jaso gura ditu udalak eta kultura etxeko eta udaletxeko sarretan kutxak jarriko ditu ideiak eta antolakuntzan parte hartu gura duten herritarren datuak jasotzeko.

## Garapen bideko proiektuendako diru laguntza

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak 90.000 euro emango ditu garapen bidean dauden herrialdeetan lan-kidetzako proiektuak gauzatzeko. Udalbatza osatzen duten zinegotziek aho batez onartu zuten erabaki hau maiatzeko ohiko osoko bilkuran.

Diru laguntza honen baldintzak eta oinarriak ekainaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren eta interesa dutenek 30 egun naturaleko epea dute, egun horretatik, eskaerak udaletxeko bulegoetan aurkezteko. Eskatzaile bakoitzak nahi adina proiektu eskaera egin ditzake.

Larrialdi egoeratan eman ohi duen diru laguntzaren oinarriak prestatzen ari dira.



Jendea Usakon bainua hartzeko asmoarekin atzo goizean. | JULEN IRIORNO

## Igerileku txikiko edukiera argi batekin kontrolatuko dute sorosleek

O.E. | OÑATI

Ekainaren 15ean, eguaztenean, zabalduko dute igerilekutik kanpoko belardira joateko dagoen atea eta erabilgarri egongo da irailaren 25era arte. Aurten, gainera, egongo da berritasunik zerbitzu horretan. Adibidez, belardian jan ahal izango da eta terrazan ezingo da erre.

Igerileku txikian bildu ohi den jende kopuru altuari dagoeneko, semaforo moduko bat jarriko dute aforo hori neurtzeko. Semaforo itxura izango duen argi foku batekin kontrolatuko dute edukiera hori sorosleek. Argi hori kolorez aldatzen da urrutiko aginte batekin, eta jende larregi dagoenean, gorri jarriko du sorosleak eta erabiltzaileek ezin dira igerilekura sartu, beste batzuk iristen ez diren bitartean. Uda sasoiari, arratsaldez egongo diren bi sorosleatariko batek

hartuko du ardura hori, behar denean bakarrik. Gainera, leku arazoak daudenean edo egon daitezkeenean, oharra jarriko dute harreraren baita ere. Uda sasoiari behin baino gehiagotan gerta daitekeela aurreratu dute udal ordezkariak. Sistema honekin segurtasuna bermatu gura dute.

Uda sasoiari saunako ordutegian ere aldatetako egongo dira: astelehen eta eguaztenean emakumeek erabiliko dute eta martitzen eta eguaztenean, gizonak. Egubakoitzetan eta asteburuetan erabilera mistoa izango da.

## Usako

Usakon zapatutik aurrera egongo da soroslea arratsaldeetan, irailaren 11 arte. Eguenean egon ziren urpekariak putzua garbitzen. Txakurrak lotuta eraman behar dira gune osoan, eta ezin dira uretan sartu.

## Oñatiko GED: "Eskerrik asko galdeketa arrakastaz egiten lagundu duzuen guztioi"

O.E. | OÑATI

Domekako herri galdeketa ahalbideratu duten herritarrei eskerrak emanez hasi du balorazioa Oñatiko Gure Esku Dago taldeak. "Herritarrek etorkizuna erabakitzeke protagonistak izan behar dute, eta horretan, erabakitzeke eskubidea

aldarrikatzeke gauzatzera pausoa eman dugu. Atzera buelta bako pausoa", dio taldeko kide Xabi Igartuak. Eta gaineratu du: "Oñatiar herenak baino gehiagok bere iritzia askatasunez adierazi du. Pozten gaitu bakarrik baino, beste 34 herrirekin batera egiteak".

## HAUTESLEKUETAN JASOTAKO DATUAK

KALEAK	BOZKAK	BAI	EZ	ZURI	BALIOGABEAK
<b>Olakua</b>	1.306	1.255	34	5	12
<b>Errekalde</b>	559	545	10	0	4
<b>Unibertsitatea</b>	1.506	1.432	56	5	13
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.371</b>	<b>3.232</b>	<b>100</b>	<b>10</b>	<b>29</b>

\*Hautesleak: 9.448

ITURRIA: ERAIN DEBAGOIENA



Oñatin 1989an egin zen Kilometroak egunean jendea Foruen plazatik Atzeko Kalera bidean. | YOUTUBE

# Hamasei talde sortu dira Kilometroak 2017rako

Herriko jaiekin bat egingo lukeelako festa horrek, irailaren 24an ospatuko da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatin ospatuko da Kilometroak festa datorren urtean eta Txantxiku Ikastola buru-belarri ari da dagoeneko hori antolatzen. Festak, gainera, berritasun nagusi bat izango du, data aldaketa.

Urriko lehen domekan ospatu izan da beti jai hori, baina herriko jaiekin bat egingo lukeela eta kezka sortu zitzaion bai udalari, baita ikastolari ere. "Egoera ondo aztertu ondoren erabaki dugu festa irailaren 24ra aurreratzea",

adierazi du Zigor Ibartzabalek, Txantxiku Ikastolako zuzendariak. Ikastolen Federazioak ere onartu du data aldaketa. Hala, normalean baino astebete lehenago ospatuko da datorren urtean Kilometroak festa. Jai horrek

data aldatzen duen lehen aldian izango da, gainera.

## Taldeak

Jai hori antolatzeko, lantaldeak egin dituzte Txantxiku ikastolan. "Hamasei lantalde osatu ditugu, denetariokoak daude: komunikazioa, salmenta, ikuskizunak, protokoloa, prebentzioa, osasuna, zirkuitua, segurtasuna, erronka, gure zozketa... Taldeak osatzen eta buruak identifikatzen hasi gara. Lehen urratsak badira ere, oraingo antolaketa ondo egitea garrantzitsua da, urteko lanak ondo joan daitezela", adierazi du Zigor Ibartzabalek.

Antolaketan lagundu gura duten herritarrendako zerrenda zabalik dago oraindik. "Orain, lantaldeetan aritzeko izenak jasotzen ari gara, ez da egunean bertan lan egiteko txandetan izena emateko deialdia. Hau da, urtean zehar egingo diren bileretan parte hartu eta antolakuntza lanetan aritzeko deialdia da", argitu du Ibartzabalek. Talde batean edo bestean izena eman gura duenak ikastolara bertara joanda eman dezake izena; baita web orrian ere edo [txantxiku@ikastola.eus](mailto:txantxiku@ikastola.eus) helbidera mezua idatziz.

## Esaldia eta irudia

2017ko Kilometroak festako leloa eta irudia ere ari da lantzen Txantxiku ikastola, "herriko talde eta pertsona ezberdinekin elkarlanean". Abestiaren letra eta doinuaren egileak eta zirkuitua aurrerago jakianarizko dituzte.

## NIRE USTEZ

JON SAGARZAZU



## Errefuxiatuen drama

rudika orain zuen buruetan errefuxiatu errukarriok, beren umetxoak bizkarrean hartuta, miseriaren ekipaia lurretik arrastaka, kostaldeko portuetan igarobide bila datozela. Eta zuek bien bitartean errege, zuen gutizien besaulkietan, zuen iritzi eta argudioen apainduraz, haien aurka orroka, aginpide oro kikilduta. Zer lortuko duzue horrekin, bada? Esango dizuet: ozarkeri eta gogorkeriaz justizia oro apurtzea, zuzenbidea deuseztatzea.

Demagun ordea Errege zuen bihozgabetasun hau erruki gehiegiz epaituz, erbestera bakarrik zigortuko zaituztela. Nora joango zarete bada, babes bila? Zein herrik, zuen injustizia ezagututa, emango dizue aterpe? Zoazte Frantziara edo Holandara, Alemaniako edozein lurraldetara, Espainia edo Portugalera, zuen aberrira ez beste edozein lekutara, mundu osoan errefuxiatu eta atzerritar!

Han, edonon, zuen zakarkeria bereko jendeak, gorroto eta bortizkeriaz, bizilekua ukatuko dizue lur-azalean, beren armak zuen aurka apuntatuta, zakurrak lez uxatuta, denok Jainkoaren seme, eginkari eta itxura zaretela ahaztuta.

Horra hor gure errefuxiatuen drama, eta zuen giza gabekeria ikaragarria.


(Shakespeareri egotzitako *Sir Thomas More* (1596) antzezlanetik egokitua).

## Oñati abesbatzako kideak "oso pozik" atera ziren kontzertutik

O.E. | OÑATI

50. urteurreneko kontzertua egin zuen Oñati abesbatzak hilaren 4an, eta "oso pozik" atera ziren. "Egia da lan asko egin dugula, baina emanaldian asko disfrutatu genuen. Oso pozik, gustura, gelditu ginen guztiok. Urteurrena polita ari da izaten", adierazi du abesbatzako kide den Mariangeles Aranburuk.

Entzule asko bildu ziren Santa Anan eta kontzertua ez zen izan edonolako; izan ere, urte hauetan guztietan abesbatzarendako esanguratsu izan diren abesbatzaren errepertorioa eskaini zuten; abesbatzan duen moduan,



Erakusketako argazki batzuk. | E.A.

emanaldian ere Aita Madinak protagonismo berezia izan zuen.

Abesbatzaren 50 urteak laburtzen duten argazkiak, partiturak eta bestelako elementuak kultura etxeko erakusketan ikus daitezke domekara bitartean.



HERMANSALONA

## Saharara heldu da materiala

Saharara bidaltzeko eskola materiala batu zen martxoan eta apirilean Oñatin eta material hori heldu da Saharako haurrengana. Ulman, Txantxiku Ikastolan eta Soroluzeko herri eskolan batutako materiala bidali zuten batera, eta Mahbes-Saharako haurrengana iritsi da. 200 motxila baino gehiago, margoak eta ipuinak zeuden jasotakoan artean.

## Reincidentes eta Egan taldeek joko dute Olakua auzoko jaietan

19:00etan hasiko dira gaur, egubakoitza, Olakua auzoko jaiak, trikitilari, erraldoi eta buruhandiekin batera. 22:00etan, Reincidentes, Lokuria eta Alerta Gorria taldeek joko dute kontzertua hasiko da. Bihar, berriz, Egan taldeak joko du. Domeka iluntzera bitartean, talogileak, euskal parrila, bizikleta irteera eta karaoke ere egingo dira.

## Eskola kiroleko azken jaiak izango dute gaur arratsaldean Zubikoan

Ikasturtea bukatzeaz dela amaitu da aurturten ere eskola kirola egitasmoa eta gaur, egubakoitza, azken jaiak egingo dute, 17:30ean, kiroldegian. LHko 3. mailatik 6. mailara arteko ikasleentzat sari eta opari banaketa egingo da. Ondoren, kirol programaren antolaketan parte hartu duten guraso eta laguntzaileendako luntxa.

## 'Askatasun istorioak' dokumentala botako du gaur Jeuskaldun-ek

Tolosaldean sortutako Jeuskaldun taldeak *Askatasun istorioak. Lau pertsona, lau istorio* dokumentala botako du gaur, egubakoitza, 19:30ean, Foruen plazan. "Jesusen maitale eta jarraitzailez" osatutako talde euskaldun bat da Jeuskaldun eta "askatasunaren beste ikuspegi bat" erakutsi gura du lan honekin.

## 'Hospital o manicomio' gaur, Ekuadorrerako dirua bidaltzeko

Ikusi Makusi antzerki taldeak *Hospital o manicomio* lana antzeztuko du gaur berriz. Oraingoan, baina, elkartasun helburu batekin egingo dute: hor batutako dirua Ekuadorrerako bidaliko dute, lurrikarak han sortu zituen kalteak konpontzen laguntzeko. Santa Ana antzokian izango da, 22:00etan. Sarrera bost euro da.

## 'Broadway bidean' emanaldia dute bihar Ganbarako abesbatzek

Ganbara kantu eskolak bigarren hiruhilabeteko kontzertua egingo du asteburuan. *Broadway bidean* du izena emanaldiak eta parte hartuko dute Ganbara Txikik, Ganbara Txikitxo abesbatzak eta kantu tailerreko neskek eta mutikoak. Emanaldia bihar, zapatua, da, Santa Anan, 19:00etan. Sarrera bost euro da.



Herriarteko txapelketan parte hartzen dabiren talde osoa. | JOSU OSA

## "Irudi onarekin bukatu eta zaleei partidu onak eskaini, hori da gura duguna"

Astigarragan 2-1 galduta, zapatuan Herriarteko itzulerakoa jokatu dute

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Zapatuan gertatzen dena gertatuta ere, Herriarteko Pilota Txapelketarako zituen helburuak soberan bete ditu dagoeneko herriko taldeak. Bihar, zapatua, kiroldegian 18:00etan hasiko dira hirugarren kanporaketako itzulerako partiduak, Astigarragaren aurka. Joanekoan esperotako emaitza izan zen eta 2-1 galdu zuten oñatiarrek. Josu Osa koordinatzaileak honako balorazio hau egin du: "Aurrez esperotako zailtasuna zuten hango bikoteek, batez ere, gazte eta nagusi mailakoek, eta emaitzak horrekin

bat etorri ziren. Lehen partiduan, espero genituen aukerak, eta hala izan zen, irabazi egin genuen eta (22-9); bigarren partiduan, maila handiko bikotea zuten euren, baina espero baino tanto gutxiago egin genituen (22-7); eta nagusietan, jakitun ginen euren mailaz, nahiz eta emaitza guk gura baino deigarriagoa izan (22-2)". Bereziki, kadete eta nagusietan erakutsitako mailaz da gustura Josu Osa.

### Aukerak baliatu

Osak gaineratzen duenez, "kanporaketan, hanka eta erdi kan-

poan" du herriko taldeak, "tanteoa oso aurka" duelako; baina honako hau gaineratzen du: "Ez dugu etsiko, eta gure aukera apurrik baliatzen saiatuko gara". Asmoa da "irudi onarekin bukatzea eta inguratzen diren zaleei partidu on batzuk eskaintzea".

Urte asko ziren, iaz arte, Oñati ez zela Herriartekora aurkezten, ez zituelako nahikoa pilotari. Iaz nagusi mailako taldea osatzea lortu zuen eta aurkeztu egin zen, baina lehenengo kanporaketa ez zuen gainditu. Hortaz, oraingoan, hirugarrenera ailegatuta, pozik dago taldea.

## Orain arteko moduko azkenengo Aloñako Igoeran, Murgiondo hirugarren

X.U./L.K. | OÑATI

47. Arantzazuko Igoeran hirugarren egin zuen Ulma taldeko Xabier Murgiondo txirrindulari oñatiarrak. Orain arteko formatuan egin den azkeneko Igoera da; datorren urtetik aurrera, beste modu batera egituratuko dute. Izan ere, oso proba gogorra eta esplosiboa izanik, ibilbidea luzatuko dute antolatzaileek datozen urteetara begira.

Murgiondok 22 minutu eta 42 segundo behar izan zituen proba egiteko; txapelkunak, Bazpi taldeko Jokin Alberdik, 22 minutu eta 27 segundoko denbora egin

zuen; bigarrena Bazpiko Iñigo Altuna izan zen, bi segundora.

### Aukerak baliatu

Murgiondo pozik azaldu da bere lorpenarekin: "Igoeran nahiko aurrean nindoan; hala ere, proba zaila izaten da, tentsio handikoa eta norberaren buruari asko exijitzekoa".

Bihar, zapatua, Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko du oñatiarrak; martitzenean, Euskadiko erlojupeko proba izango du. Hemendik bi astea Euskadiko Itzulia jokatu da eta hantxe egoteko asmoa du Murgiondok.



Xabier Murgiondo. | GOIENA

Yune Bermejo | Euskadiko txapelketa eskubaloian

## "Euskadiko entrenamenduetan, behintzat, egon gurako nuke"

L.K. | OÑATI

14 urteko Yune Bermejo eskubaloia Euskadiko txapelketa bilakatu zen zapatuan Oñatin jokatuak selekzioen arteko 38. txapelketan. Debagoiendar bakarra izan da Gipuzkoako selekzioan.

### Zorionak! Espero zenuen txapelketa izatea?

Eskerrik asko! Ez, ez nuen espero. Entrenatzen ibili nintzen eta txapelketa horretan parte hartzea espero nuen, bai, baina ez irabaztea.

### Atezain izateak ardura handiagoa sentiarazi dizu?

Nire lehenengo ikuspuntua zen atezain izateak erantzukizun handiagoa ematen zidala, baina orain konturatu naiz defentsak ez badu lan onik egiten nik ezin dudala gauza handirik egin.

### Zeintzuk dira orain dituzun asmoak?

Orain arte moduan jokatzen jarraitzea, eta hurrengo helbu-



Yune Bermejo. | GOIENA

rua da Euskadiko selekzioaren taldeko entrenamenduetan, behintzat, egotea.

### Oñatin badago eskubaloiarekiko afizioa?

Bai; afizio handia, gainera. Eta torneoa bera hemen jokatu, igarri nuen ekipoaren beraren eta nire kuadrillaren aldetik animu handiak ematen zizkidatela.

## 350 igerilari inguruk hartuko dute parte bihar arratsaldean egingo den Txantxi igeri lehiaketan

Txantxi igeri lehiaketaren 30. aldia izango da bihar arratsaldean Zubikoako igerilekuan egingo duten txapelketa. 350 igerilari inguru elkartuko dira. Gehienak inguruko herrietakoak izango dira, baina Bidasoa eta Fortuna taldeetako ordezkariak etorriko dira, baita Logroñotik eta Gasteiztik ere. Txapelketa arratsaldean izango da eta igerilekua 13:30era arte egongo da zabalik.

## Herriko gimnastek ekitaldia egingo dute domeka eguerdian, urtean zehar ikasitakoa erakusteko

Urte bukaerako erakustaldia egingo dute Aloña Mendiko 120 gimnasta inguruk domekan, 12:00etan, Zubikoa kiroldegian. Ikasturtean ikasi dituzten pauso, dantza eta ariketak etxekoei eta lagunei erakusteko ekitaldia izango da. Taldeka eta bakarka egingo dituzte ariketak, eta pilotak, uztaiak eta sokak erabiliko dituzte erakustaldian zehar. Kiroldegiko kantxa nagusian izango da erakustaldia.

## Kadete mailako txirrindularitza lasterketa jokatu da domekan, Aloña Mendik antolatuta

Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta, kadete mailako 30. Olakua Txirrindularitza Proba jokatu da domeka arratsaldean Oñatin. Txirrindulariak 16:00etan irtengo dira Olakua auzotik eta helmuga ere hantxe izango dute. Hauxe da egingo duten ibilbidea: Olakua-Zubillaga-Arrasate-Zubillaga-Oñati-Udana-Legazpi-Udana-Oñati-Zubillaga-Oñati-Olakua.



Lenceria  
eta  
Korseteria

Bidebarrieta kalea 19

Tel.: 943 78 34 44

OÑATI



Eroso sentitzeko...

- Besazpiko plegu txikiak ezabatzen ditu
- Azala sumindu gabe...
- Tularekin egindako tolestura bereziarekin

Ez zara damutuko!!

# Txarapeako lurrei eusteko proiektua egiten dabilta

Martxoko luiziak garbitu dituzte arriskua ekiditeko eta burdinazko hesia jarri dute, behin-behinean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Lur-jausia izan zen Txarapeako maldan, 34-36 eta 74-76 atarteetan atzealdean, martxoan. Orduan eroritako lurra dagoeneko kendu dute handik, eta etxeak babesteko hesia jarri. Hala ere, behin-behineko irtenbidea dela hori argitu du alkateak, Unai Elkorok: "Ekintza horiekin momentuz arriskua ekiditea lortu da, baina argi dugu ez dela behin betiko konponbidea".

## Konponbide onik ez

Alkateak onartu du arazoa asfaltatik datorrela: "Orain dela urte pare bat arazoa ekiditeko bio-ingeniaritzak gomendatutako landaketa bat egin zen malda horretan. Lehen urtean eutsi zion horrek, baina aurten, euria hasi orduko mugitu ziren lurrak". Halakorik berriro gerta ez dadin, txapekin osatutako burdinazko hesi bat jarri dute, behin-behinean. Horien helburua da lurrak etxeetaraino ez iristeko oztopo izatea.



Txarapeako maldan jarritako hesia eta hodia. | ARETXABALETAKO UDALA

## Proiektua egiten

Aurrera begira, behin betiko irtenbidea behar duela malda horrek jakinik, proiektu berri bat eskatu du Udalak. Eta hori gertu dagoenean lanei ekingo

dietela iragarri du Elkorok: "Obra horretarako bere garaian Bruesak utzitako abal bat dago gordeta, 500.000 euro ingurukoa. Hortaz, ez dela aurrekontu arazorik izango uste dugu".

# Paisaiak izan dituen aldaketak aztergai Urkulura irteera eginda

Otalorako aparkalekutik abiatuta Larrino aldera egingo dute domekan, eta landaretzaren eta animalien gainean jardun, Fermin Lezeta basozainak gidatuta

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Paisaia zelan aldatu den azken 50 urteotan ezagutzeko irteera antolatu du Udaleko Ingurumen Sailak, Urkulu ingurura. Fermin Lezeta basozainak egingo ditu gidari lanak, eta bertatik bertara emango du aldaketan berri. Domekan, hilaren 12an, da irteera; Otalorako aparkalekuan batuko dira, 11:00etan, bueltari ekiteko.

## Urkulutik Larrino aldera

"Aldaketa sozio-ekonomikoaren eraginez gure inguruko paisaiak izandako aldaketaren berri ematea da asmoa; lursailen jabeen beharren arabera aldaketak izan dira sarritan. Nire esperientziatik abiatuta emango dut horren berri, historian zehar, batez ere azken 50 urteotan, zelan joan den aldatzen hausnartuko

dugu elkarrekin inguruari behatuta", jakinarazi du Lezetak.

Aozaratza auzoko Otalora dorretzeko aparkalekutik abiatuta Larrino aldera egingo dute elkartzaren direnek, eta handik aztertuko dituzte inguruko bazterrak. Paisaiari erreparatuta bertako espezieen eta azken urteotan kanpotik etorri eta indarra hartu dutenen berri ere emango du, besteak beste, basozain eskoriatzarrak: "Landaretzaren gainean jardungo dugu, baita animalien gainean ere".

## Irailean ekimen gehiago

Ekainaren 5ean ospatzen den Ingurumenaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta antolatu du Udalak domekako irteera. "Horrekin batera beste hainbat ekintza egitea zen gure asmoa, Urkulu garbitu, esterako, azken urteotan egindako moduan, baina, azkenean, irailera atzeratzea erabaki dugu", jakinarazi du Ingurumen Saileko teknikari Anabel Diazek. Horrekin batera beste ekintzaren bat edo beste egingo dutela irailan gaineratu du.



Urkulu urtegi inguruko paisaia. | PELI BELTRAN DE HEREDIA

## NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO



## Ondo dala

50 urteiek atzian itxi eta gero, ez nauke jakingo esaten, aurrera edo atzera, nora begiraketan doten gehixau.

Zahartzaruakin batera bigarren umealdi bat eukitten dogule esaten da, ume etorri eta ume alde egiten dogule. Nerabezaruz ez dot holakoik entzun, baina, daueneko, fenomeno bitxixe zana gure artien nahiko errota eta geurekin gelditu dala esango nauke: baten bizitzan aro hauxe be errepikatu egiten da.

Nerabezarue, badakitue, urtietara ikusitue, behintzet,

berez ardura gutxiko sasoie dala, eta, hala eta be, urte bat gehixau noiz eukiko zain egoten gaiela, libriaue izeteko, karne-ta, lagunak, botue... eta ez dakit zer gehixau eskuetan eukiko dogula pentsaute. Mundue jateko ia gertu egoten da gizasemie.

Ba gauza bera sometan dot aurrejubilatze edo jubilatze dazenen artien. Egundotsu hori bete eta, behingoz, norbera izeteko egonezinaz, lanaren ardura barik, famelixako lanak egindde. Azkenien, libre; buruen, barrez, hortik aurrera egittekuek kabidu ezinik.

Arabar batek, berak erderaz, esaten eusten, baina, adin horretan urteiek beteteko grina hori ez dauela ulerketan, urteiek bete ahala, hirugarren adineko pilluen sartzen gaiela, eta horren atzetik laugarrenik ez ei dator.

Dana be bizipoza dala pentsau gure dot. Eta hori ez jaku txarto etorriko inori be.



Kurtzebarri eskolako kideak iazko jaialdian. | KURTZEBARRI ESKOLA

## Ikasturte bukaerako jaialdia egingo du Kurtzebarri bihar

M.A. | ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako kideek egun guztiko ospakizun dotorea iragarri dute ikasturteari agur esateko. Bihar, zapatua, izango da.

Jai giroa 11:00etan hasiko dute eskolako patioan, baina aurretik (10:00-11:00) tartak jasoko dituzte lehiaketarako. Eskolako batukadak girotuko ditu herriko kaleak, eta hainbat ekintza egingo dituzte bitartean.

Bihotzez ikasi dantzatuko dute 12:00etan, Iralabarri pla-

zan, eta ondoren batukadak eta buruhandiek, erraldoiek eta hankapaloek lagunduta Herriko Plazara joko dute. 13:00etan Eguzkiari agurra ikuskizuna egingo dute han.

Bazkaria pilotalekuan izango da. Ondoren, jolasak izango dituzte umeek (15:30-17:30) eta AZ Gaubela taldeak dantzari jarriko ditu gainerakoak (16:00-18:00). Bitartean eskolako patioan puzgarriak egingo dira, baita bolo txapelketa ere bolatokian.

## Posta bidezko botoa egitea eska daiteke batzokian

Ekainaren 26ko hauteskundeetan botoa ematera joan ezin dutenek posta bidezkoa eska dezaketela batzokian jakinarazi dute EAJko kideek. Ekainaren 14a bitartean dago epea: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, 18:00etatik 19:00etara; eta martitzen eta eguenetan, 11:00etatik 13:00etara.

## Musika eskolakoek kurtsoa agurtzeko jaiak dute martitzenean

Herriko Plazan elkartuko dira, martitzenean, hilaren 14an, 18:00etan, Leizarra musika eskolako hainbat ikasle eta irakasle. Urtean zehar ikasitakoaren berri emango dute emanaldi dotorea eginda eta jai giroan. Musika gustuko duten herritar guztiak gonbidatu dituzte.

# UDAko eta Eibarko beteranoak aurrez aurre bihar Ibarren

Kirol elkartearen 70. urteurrenaren harira antolatu dute partidua eta 11:30ean da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Futboleko botak janzteko sekula ez da berandu, eta, are gutxiago, lagun artean jokatzeko. Hori pentsatuta antolatu dute beteranoen arteko partidua UDAn 70. urteurrenaren baitan. Bihar, zapatua, UDA eta Eibar izango dira nor baino nor gehiago, 11:30ean, Ibarra futbol zelaian.

Hogeit lagun inguru ibili dira entrenatzen azken asteotan, eta elkartu dira Aramaiokoak, Arrasatekoak, Antzuolakoak... Guztiak UDAn jokatuak. Juan Cruz entrenatzaile aretxabaletarraren esanetara jardun dute lanean. "Seguru asko, Eibar gu baino hobeto prestatuta etorriko da, baina gure asmoa ondo pasatzea da, minik hartu gabe", esan dute.

**'Kirolez busti' aste bukaera**

Hurrengo aste bukaeran, ostera, kirola herritarrei gerturatze



Futbol jokalariek beteranoak eguazteneko entrenamendu saioan. | MIRARI ALTUBE

ahalegina egingo dute *Kirolez busti* ekimenarekin. Egubakoitzean, hilaren 17an, hasiko dute, bizikleta esprintak eginda Durana kalean. Eta zapatuan, hainbat kirol bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da. Doke txapelketarekin hasiko dute eguna, eta gero, erakustaldiak izango dira:

esku pilota; gimnasia erritmikoa; street boulderra; eta cricketa. Horrez gain, emakumeen gomazko paleta partiduak ere izango dira (MPB zirkuitua).

Domekan, patin irteera egingo dute; baita kirol egokitu erakustaldia ere. Eta bukatuko dute paella dastaketarekin.

# Musika eskolako bandak kontzertua egingo du gaur komentuko lorategian

Joan den astean abian jarritako 7x7 Kultura Kalean egitarau barruan dago

M.A. | ARETXABALETA

Leizarra musika eskolako bandak toki paregabea izango du kontzertua egiteko: agustindar komentuko lorategia. Gaur, egubakoitza, da, 19:00etan.

**Pirritx eta Porrotx, hilaren 17an**

Joan den egubakoitzean jarri zuten Udalak abian 7x7 Kultura Kalean ekimena, arrakasta handiarekin jarri ere. Jaiki elkarte dantzariak izan ziren protagonista orduan; astean, ostera, egon dira Kiki eta Koko pailazoak

(Azkona taldea) eta Gorka Olazabal ipuin kontalaria. "Eguraldi ona lagun, jende asko pilatu da ekitaldiotan; hortaz, gustura gaude", jakinarazi dute Kultura Saileko kideek.

Datorren eguaztenean musika eskolako konbo eta gitarra taldeen emanaldia izango da Herriko Plazan, 19:00etan. Eta hurrengo egubakoitzean, ekainaren 17an, *Amalur* antzezlana eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek; Herriko Plazan da, 19:00etan.



Kiki eta Moko pailazoak. | M.A.

# Gimnasia erritmiko erakustaldiak

M.A. | ARETXABALETA

Denboraldia bukatzen dabil egunotan Aretxabaletako gimnasia erritmikoko taldea, baina, bukatu aurretik, erakustaldi bi egin-

go dituzte datorren astean: eguaztenean, ekainak 15, Iturri-gorri pilotalekuan (19:00); eta zapatuan, ekainak 18, Herriko Plazan (12:00).

Esther Barcenillaren aginduetara egiten dute lan gimnastek; 25 inguruk, bi taldetan banatuta. Bukatzean dagoen denboraldia "gogorra" izan dela dio, baina gustura dago emaitzarekin: "Ondo egin dugu lan eta pozik gaude Gipuzkoako gimnasia federazioak antolatutako eskola arteko topaketetan izan garelako; otsailean, Bergaran, eta martxo-apiril inguruan Ibarren, Tolosan". Dagoeneko zortzi urte egin ditu Barcenillak taldea entrenatzen, eta gaur egun UDA barruan dago.

Datorren aste erakustaldiekin, urtean zehar ikasitako guztiaren berri eman gura diete gertukoei eta herritarrei: "Jendeak jakin dezan zer egiten dugun eta zenbat lan dagoen atzean".



Gimnasia erritmikoko taldeetako bat. | IRATI ELORTONDO

# Moda diseinuaren gaineko ikastaro bi Katalin Antxiarekin

M.A. | ARETXABALETA

Patroiak eta arropak neurrira egiten ikasteko ikastaro bi egingo ditu Katalin Antxia diseinatzaileak eta The Modubat proiektuaren sortzaileak. "Moda diseinua izendatu dut ikastaroa. Izan ere, patroigintza baino osatua da, josteko teknikak ere ikasiko ditugulako", jakinarazi du. Ekainaren 27tik uztailearen 8ra egingo ditu biak Arkupe kultura etxean, eta izena emateko epea zabalik dago; idatzi honako helbide honetara: [info@themodubat.com](mailto:info@themodubat.com). Hogeit orduko ikastaroak dira eta prezioa 90 euro da.



Katalin Antxia. | GOIENA

Zinez gustuko izango duela aurreratzen dut, eta aplikagarria izan daiteke beste edozein arlotan...", adierazi du Antxiak.

Bigarrena, ostera, aurretik ere beste ikastaroren bat egingo dute (16:00-18:00). "Bigarren fase hori beti izaten da esperimentalagoa, eta ikerketa horretarako oinarri bat eduki behar da", dio.

Patroigintza eta joskintza eskolak ematen dituen laugarren urtea izango da diseinatzaile aretxabaletarraren ikastaroa.



GOIENA

# 227 lagun Murrukixoren martxan

Pozik daude Murrukixo mendizale elkarteak joan den domekako mendi martxak emandakoekin: "Aurrekoan baino 45 lagun gehiago izan ziren, eta ez zen inolako arazorik izan. Pena, lainoa tarteko, paisaiarekin ezin gozatu izana...". Era berean, eskerrak eman gura dizkiete diruz lagundutako babesleei, boluntarioei eta mendizaleei.



BASOTXO

# 'Atxabalta Mugi' erretiratuentzat

Jarduera fisikoa bultzatzea helburu duen *Atxabalta Mugi* egitasmoa aurkeztuko die Udalak Basotxoko erretiratuei eguaztenean, ekainak 15, 18:30ean, erretiratuen egoitzan. Asier Muxikak, kirol teknikariak, eta Iñaki Olaetxeak, orientatzaileak, emango dizkiete azalpenak.

Joan den astean, ostera, bakardadearen gainean egin zien berba Rosi Rosado psikologo aretxabaletarrak, aretoa lepo beteta zela (argazkian).



Martitzenean, Ibai Egiak gidatutako oreka eta akrobazia tailerrean gustura izan ziren herriko gaztetxoak. | I.B.

## Arrakastatsua izaten ari da Aste Zapatista

Bihar izango da egun nagusia; bazkari mexikarra, musika... izango da plazan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako hamaseigarren Aste Zapatistak ekintza ugari egin ditu aste osoan zehar, eta orain arteko balorazio "positiboa" egin dute Chiapasen aldeko EskoZap taldekoek. Gaur egingo diren ekintzekin eta biharko egun handiarekin emango diote amaiera asteari.

Astelehenean, Eskoriatzako udaletxeko balkoian urteroko pankarta jarri, eta alde batetik bestera kolore ezberdinetako bandera txikiekin plaza apainduz hasi zuten eguna EskoZap-eko kideek; arratsaldean, berriz, Rakel Perez de Arenaza baserritarrek egindako *Gaixotasun kronikoak eta gure bizimodua* mahai inguruan jende ugari batu zen kulturara etxean.

### Akrobaziak egiten ikasten

Martitzenean, berriz, gaztetxoek disfrutatuko eguna izan zen. Izan ere, akrobazia eta oreka tailerra eskaini zuten Ilargi Berdea Donostiako zirku-eskolako taldekoek herriko plazan. Txiri-bueltak, *slackline*-aren gainean oreka mantentzea, saltoak egiten... ikasteko aukera izan zen, eta koltxoiak jarrita arrisku barik ederto ibili ziren haurrak. Ilargi Berdea taldeko Ibai Egiaren esanetan: "Ezezagutzaren aurrean beldurra izaten da lehenengo erantzuna, baina ez da horrela. Gainera, gorputzarentzat onura asko ditu".

Eguaztenean, berriz, *Brigadas internacionales en Chiapas. El EZLN y la participacion social civil* hitzaldia eta mahai ingurua izan zen, eta uste baino jende

gutxiago egon arren, izandakoak gustura egon ziren.

### Balorazio positiboa, oraingoz

Aste Zapatista amaitzeko bi egunen faltan, balorazio positiboa egin dute antolatzaileek: "Oraindik hainbat ekintza ditugu egiteko, baina ondo doa. Arrakasta handien akrobazia eta oreka tailerrak eta ikasleekin egin dugun lehiaketak izan dute", adierazi du Oihana Irazu kideak.

*Lur planetaren etorkizuna zuretzat da* lehiaketan 113 ikaslek hartu dute parte, eta poesia, bertsoak, marrazkiak... jaso dituzte. Guztiakin aukeraketa bat egin eta 20-25 lan onenak zapatuko bazkari mexikarrean jarriko dituzte ikusgai, eta nahi duenak botoa emateko aukera izango du.

## Entrenamendu funtzionala lantzeko makina berria probatzeko aukera dago kiroldegian

I.B. | ESKORIATZA

Manuel Muñoz kiroldegian entrenamendu funtzionalerako makina berria probatzeko aukera egongo da ekainean eta uztailean. Aste honetan bertan ekarri dute makina eta dagoeneko hasi dira ikastaroak. Bi ordukoak dira, martitzenetan eta eguenetan izango direnak.

Entrenamendu funtzionalak egiteko makina egokia da honako programa hauetarako: errehabilitazioa, egoera patologikoak eta lesioak ekiditeko, eta, horrelakorik izanez gero, funtzionalitatea berreskuratzeko; eta baita

kirol errendimendua hobetzera edo gauza zehatzak lantzerantz zuzendutako programetarako ere. Beraz, erabilera anitzeko entrenamendu makina da, erabiltzaileei zein kirol-guneari, besteak beste, honako aukera hauek emango dizkiena.

### Aukera ezberdinak

Helburu anitz landu daitezke: entrenamendu funtzionalak egiteko balio du, zirkuitu funtzionalan entrenatu daiteke, ohikoak ez diren erresistentziak erabiltzeko balio du, eta, horrekin, entrenamendu era berriak, lesioak



Kiroldegiko makina berria. | I.B.

ekiditeko balio du, kirol errendimendua hobetzen laguntzen du, eguneroko ekintzetan errendimendua hobetu daiteke, entrenamendu atseginak eta alaiak egiteko balio du... besteak beste.

## Luis Ezeiza herri eskolako jaialdia ospatuko da zapatuan

Gatibu musika taldearen 'Euritan dantzan' kantuarekin 'flashmob'-a egingo da

I.B. | ESKORIATZA

Urteroko jaialdia egingo dute zapatuan Luis Ezeiza ikastetxeok. 11:00etan hasita, dantzak egingo dituzte, lehenengo, herriko plazan, eta 12:00etan izango da eguneko hitzordu nagusia; izan ere, *flashmob*-a egingo dute Gatibu taldearen *Euritan dantzan* kantuarekin.

Plazako dantzak eginda, eskolako patioan jarraituko du festak. Eskola ondoko hesi zurian marrazkiak egingo dituzte haur, guraso eta irakasleek elkarrekin, eta ondoren, bazkari herrikoia egingo dute eskolako arkupeetan. Hau amaitzean, puzgarriak izango dituzte gaztetxoek, eta, jaialdiari

amaiera emateko, berriz, apar festa edo disko festa egingo da; eguraldiaren arabera bata edo bestea.

### Flashmob-a, ohitura jaialdian

Azken urteotan ohitura bilakatu da eskolako jaialdian *flashmob*-a, eta aurten ere ez da faltako. Oraingoan, ordea, ez dute bideoan grabatuko, ondo pasatzeko bakarrik antolatu dute.

Egingo duten dantza Gatibu taldearen abesti ezagunarena izango da; bere garaian, Hezkuntza Asterako prestatu zuten berbera. Hala, dantza ikasita dutela aprobetxatuz, guztiak batera dantzatzeko dute giro onean.



Iazko jaialdian Luis Ezeizakoak herriko plazan. | IMANOL SORIANO

## Bilbao Mendi Film Festibaleko film labur onenak Eskoriatzan

I.B. | ESKORIATZA

Mendi Tourraren lehen edizioa egingo da Eskoriatzan datorren astean. Kirol Elkarteak, Udalak, Baltistan Fundazioak eta Zineuskadik parte hartuko duten edizio honetan, Bilbao Mendi Film Festibalaren azken edizioako film labur onenak proiektatuko dira Zaldibar antzokian ekainaren 14an eta 16an.

Guztira, zazpi pelikula eskainiko dira, bi egunetan, 19:00etatik aurrera; 2T On Chamlang, Urzulo, Eclipse, A Line Across The Sky, Piztu, Panorama eta Jeff Lowe Metanoia. Sarrerak

kiroldegian eskuratu ahal izango dira, aurretiaz, edota saio egunetan bertan antzokiko leihatilari. Prezioak, berriz, 3 euro saioko edo bost euro bi eguneko bonua hartuta.

### 'Emakumeak Hushe bailaran'

Proiektzioekin batera, *Emakumeak Hushe Bailaran* argazki erakusketa jarriko da ekainaren 13tik 18ra bitartean Ibarraundi museoan. Orduetia 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da, eta bertan, Ibon Azpilikueta argazkilariaren irudi bilduma izango da ikusgai.

## Eskoriatzako Gimnasia Erritmiko Taldeak erakusketa egingo du herriko plazan egunean

Datorren egunean, ekainaren 16an, Eskoriatzako gimnasia erritmikoko ikasleek kurtso amaierako erakustaldia egingo dute herriko plazan, 18:30ean. Guztira, 26 gimnasta izango dira, sei eta hamazazpi urte bitartekoak, Esther Barcenilla irakaslearen gidaritzapean, eta bakarkako eta taldekako erakustaldiak egingo dituzte. Kategoria ezberdinetan banatuta, baloiarekin, zintarekin, mazoekin eta materialik erabili gabe egingo dituzte hainbat ariketa.



Bertsos Dinner ekimenak eman duena aurten iruditan. | KEPA ORMAETXEA

# Mikel Aristi: "Bidaia interesgarria eta oso positiboa izan da"

25 debagoiendar inguruk gozatu dute Bertso Dinner ekimenaz

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Asteburuan ospatu dute Bertso Dinner festa Irlandan. 25 debagoiendar inguru izan dira South Armagh eskualdeko Mullaghbawn herrian. Eta tartean, zazpi antzuolarrek gozatu dute hiru egunez antolatutako ekintzekin. "Oso bidaia positiboa izan da. Giro paregabea sortu da South Armagheko herritarren eta gure artean. Egin diguten

harrera ezin hobea izan da", kontatu du Mikel Aristi antzuolarrak.

## Bidaia interesgarria

Makina bat ekintzaz gozatu dutela azaldu du Kepa Ormaetxeak, antolatzaile taldeko kide arrasatearrak. "60 lagun joan gara Euskal Herri osotik. Egunik potoloena zapatukoa izan zen; lau orduko *tour* politikoa eduki genuen.

Irlandako ordezkarien artean hauek: Sinn Feinn alderdiko Irlandako Gobernu ministroa izandako Caitriona Ruan; preso ohien ordezkari Tomas Marron eta IRAko preso ohia den eta 1981. urteko gose grebako partaidea den Padi Quinn". Bisita gidatua ere izan zuten gatazka-guneetan barrena: "Oso interesgarria izan zen egin genuen ibilbidea; orduko gatazka-lekuetatik eta liskarrik

handienak gertatu ziren tokitik igaro ginen. Ekitaldi xume baten bidez, gure arteko preso eta iheslari ohiei ere omenaldia egin zieten. Esan behar dugu Euskal Herriarekiko duten jarrera ikusgarria dela; pila bat maite gaituzte". Zapatuan egin zuten bertso afaria. "Julio Soto eta Miren Amuriza bertsolarien eta Petti musikariaren saioekin oso gustura geratu ziren denak".



ANTZUOLAKO UDALA

## Bolatokia egiteko boluntario bila

Martxa onean, erretiratu talde batek ekin die bolatokia egiteko lanei Torresoroa atzealdeko berdegunean. Baina auzolanean parte hartzeko eta laguntzeko, gazteei ere deialdia egin gura die Udalak. Izan ere, asmoa da ekainerako prest izatea, herritarrek bolatokiaren udan goza dezaten. Sei mila euroko aurrekontua dauka inbertsioak: hiru mila euro Udaleko aurrekontukoak da eta beste hiru mila, Elay enpresak emandakoa.

## Herriko zirkulazio arau berria, onartuta

Buletin Ofizialean aurkeztu ostean, hilabetez alegazioak egiteko epea zabalik egongo da

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martitzeneko osoko bilkuran onartu zen zirkulazio arau berria EH Bilduren eta EAJren botoei esker (alderdi sozialista abstenitu egin zen). Hala, Buletin Ofizialean aurkeztuko da deialdia datorren astean: "Deialdia gaztelerara itzuli eta astebeite barru argitaratuko da Buletin Ofizialean. Hala, alegazioak egiteko aukera egongo da hilabeteko epean. Alegaziorik ez balego, handik hamar egunera indarrean jarriko da", dio Beñardo Kortabarria alkateak.

### Hilabetez proban

Egiten diren arau-haustek lehen hilabetez ohartarazi egingo dira. Baina, ondoren, isunak jarriko ditu udaltzainak. Hala, 60 eta 500 euro arteko

isunak izango dira. Helburua ez dela dirua batzea, "herri eroso bat edukitzea baizik", azpimarratu du alkateak.

## OHARRAK

### GIMNASIA ERRITMIKOA

Ekainaren 15ean, gimnasia erritmikoko ikasleek erakustaldia egingo dute pilotalekuan, 16:30ean.

### UEMA

Uemako proiektu berria aurkeztuko da ekainaren 15ean 18:30ean, Orlaranen.

### ERAKUSKETA

Ekainaren 17 eta 18an Edurne Uribesalgoren ikasleek egindako eskulanen erakusketa Orlaranen.

### GED: OTARREA

Domekan zozketatu zuten Gure Esku Dago-ren otarrea. Saritutako zenbakia 611 da. San Isidro egunean saldutakoa da. Sarituak ekainaren 18ra arte dauka. Bestela, hau da ordezkoa: 229. Otarrea Amaia Dendan dago. Informazioa 607 669 029 telefono zenbakian.

## MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

# LARREA

## TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34





## ELGETA

## Kultura kudeaketa esperientziak aztergai

Espaloian etorkizuna argitze aldera, gaur, 19:00etan, mahai-ingurua kafe antzokian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Kultura kudeaketa arituak diren hiru lagun esperientziak eta iritziak entzun gura dituzte, Elgetan, herriko kafe antzokiaren etorkizunak zein behar duen definitu aurretik. Hausnarketa prozesua iragarri zuten Udalak gaiaren inguruan, eta antzeko esperientzia ezberdinak ezagutzeko mahai-ingurua antolatuta dute gaurko.

Mahaiaren bueltan izango dira Espaloia kafe antzokiaren kudeaketa hamar urtez aritutako Iban Arantzabal, Gernikako Astrako Johana Olaberria eta Durangoko Plateruena kafe antzokiko Eneko Barberena. Debagoiendarrak dira hirurak eta bailarako kultura eskaintzaren inguruan ere ekarpen interesgarriak egin ditzakete.

Hainbat gairen bueltan galde-tuko zaie hiru hizlariei: ardura duten edo izan duten kultura eskaintzaren nolokotasuna, lehenetsitako irizpideak programazioa egiterakoan, euskararen garrantzia, harremana instituzio publikoekin, etorkizunera begirako erronkak, identifikatutako zailtasun nagusiak...

Mahai-ingurua 19:00etan hasiko da, Elgetako kafe antzokian, eta asmoa da ordubetan inguruko iraupena izatea.

### Txukuntze lanak martxan

Udalak 10.000 euroko diru-lerroa aurreikusi du antzokian lehen egokitzapen lanak egiteko. Iraitz Lazkano alkatearen esanetan, "gutxieneko baldintzetan ipintzeko". Garbiketa lanak martxan dira dagoeneko.



## Hirutan erre dute San Juan piloa

Umeak hasita daude San Juan bezperan sua egiteko piloa prestatzen. Fin ari dira lanean, nahiz eta hirutan erre dieten egindako piloa. Material gehiena, aurtan ere, industrialdeko enpresetatik jasotakoa da. San Juan bezperako ekitaldiei dagokienez, aurrera daiteke guraso elkarteak lotuta dauzkala ogitartekoen banaketa eta Amaia DJren emanaldia.

## Zabalik dute uztaileko udalekuetan izena emateko epea udaletxean

L.Z. | ELGETA

Ekainaren 27tik uztailearen 22ra emango du, aurtan, zerbitzua Elgetako Udalak, eta izena emateko epea zabalik da ekainaren 17ra bitartean.

2005etik 2013ra bitartean jaitako neska-mutikoei dago zuzenduta zerbitzua, eta goizez emango dute: 09:00etatik 13:00etara. Prezioak dira: astebete 40 euro, bi aste 60 euro, hiru aste 75 euro eta lau aste 90 euro. Hobariak daude bigarren seme-alabarengatik eta baita familiaren egoera ekonomikoaren arabera. Argibide gehiagorako, interesatuek udaletxera jo behar dute.

### Ekaineko hitzorduak

Gaur, barikua, Herri Eskolako lehen hezkuntzako neska-mutikoak Pasaian dira ikasturte amaierako irteera egiten. Haur Hezkuntzakoak atzo izan ziren Marinkako ur parkean.

Hurrengo asteetan hainbat ikuskizun daude iragarrita. Eskolako ikasturte amaierako ikuskizuna ekainaren 17an egingo dute, Espaloian, 15:00etan. Ikasturte amaierako bazkaria, berriz, ekainaren 23an izango da. Musika ikasleen ikasturte amaierako emanaldiari dagokionean ekainaren 26an izango da, Espaloia kafe antzokian.

## Beheko kaleko jaietako afarirako txartelak salgai daude

Hirugarren urtez egingo dituzte Torrealdea auzoko jaiak, eta ekainaren 17rako iragarri dituzte. Arratsaldean hasiko dira jaiak, umeendako bizikleta lasterketarekin, jokoekin, eta buruhandiek. Amaia DJ ere ez da faltako. Ondoren, afaria egingo dute. Txartelak salgai daude Goikoetxe harategian 12 eurotan. Menua da entsalada errusiarra, txerri-masailak, flana eta kafea. 22:15 bueltan gaztetxoendako karaoke jaialdia izango da aurtan berrikuntza nagusia. 23:00etatik aurrera mojito jai eta Gauargi taldearen emanaldia egingo dira.

## OHARRAK

### IPUINEN ORDUA

Gaur, liburutegian, ipuin kontalari saioa. 16:40an bost urtetik gorakoendako eta 17:25ean bi urtetik gorakoendako. Euskaraz.

### TUTOREA KZGUNEAN

Eguaztenean, hilak 15, dinamizatzailea kultura etxeko KZgunean izango da, 9:00etatik 10:30era.

### ERRETIRATUAK

Xalbadorpe elkarte ordezkariek Ozkarbi elkartearen izango dira domekan, hilak 12, 11:00etatik 13:00etara, urteko kuota kobratzeko eta ekainaren 21ean Errioxara egiteko duten irteerako izen-emateak jasotzen. Kuota da hamar euro, eta irteera 30.

## FRONTENIS TXAPELKETA

Aste bukaeran jokatu dituzte finalak. Emakumeetan hirugarren postua erabakitzeko partidua ere egingo dute.

### BIHAR, ZAPATUA, 19:00ETAN

HIRUGARREN POSTUAREN LEHIA: Idoia Serna-Mireia Rubio / Miren Argi Zeziaga-Liemi Mendizabal  
FINALA: Idoia Elkoro-Iratxe Bravo / Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa

### ETZI, DOMEGA, 11:00ETAN

FINALA: Eneko Maguregi-Andoni Elorza / Josu Mañarikua-Berñat Arabaolaza

### FINALERDIETAKO EMAITZAK

Miren Argi Zeziaga-Liemi Mendizabal / Idoia Elkoro-Iratxe Bravo	13-25
Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa / Mireia Rubio-Idoia Serna	25-24
Eneko Maguregi-Andoni Elorza / Imanol Albizu-Julen Barrutia	25-13
Josu Mañarikua-Berñat Arabaolaza / Mikel Arkarazo-Josu Aranzabal	25-00

## LEINTZ GATZAGA

## Luis Ezeiza eskolako gela desplazatua, ixteko arriskuan

Hezkuntza delegazioak dio ez dela bideragarria, hain ikasle gutxirekin

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

1972. urtean Leintz Gatzagako Eskola Unitarioa itxi zen, herriaren gainbehera demografikoaren ondorioz. 1998an, Gurel gurasoen elkarte eskola berri irekitzeko ahaleginetan hasi zen, eta, hainbat aukera aztertu ostean, Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolako gela desplazatu bat izatea lortu zuten.

Gaur egun, bi eta bost urte bitarteko sei ume daude bertan. Hala ere, ixteko arriskuan dago. Eskoriatzako eskolan matrikulazioak jaitsi direla eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Delegazioak dio ez dela bideragarria Gatzagako gela desplazatuak irakasle bat izatea. "Duela urtebete, delegaziotik esan ziguten gure eskola propioa ez zigutela emango, baina gela desplazatu hau

mantentzeko eta hobetzeko ahaleginak egingo zituztela. Orain, berriz, daukaguna itxi egin behar dela esan digute. Beraz, eskola barik geldituko da herria, ez eskola txiki propiorik, ezta gela desplazaturik ere", nabarmendu du Saioa Urrutiak, gurasoetako batek.

Hala ere, Gurel gurasoen elkarteak ez du amorerik eman nahi eta Hezkuntza Delegazioarekin batuko da datorren astean, gela desplazatua gatzagan mantentzeko asmoarekin. "Gure asmoa eurekin batzea da. Izan ere, ez dugu ulertzen jarrera aldaketa hau eta itxiera honek herriari kalte handia eragiten dio", azaldu du Aitziber Gorosabelek, guraso elkartearen kidea.

Negoiazio horiek aurrera doazen bitartean, Gorosabelek nabarmendu du sinadura bilke-

tak jarriko dituztela abian, eta zenbait elkarte, erakunde eta sindikaturen atxikimenduak bilatuko dituztela egoera honi aurre egiteko. "Hainbat lekutan edukiko ditugu sinatzeko paperak eta Internet bidez sinatzeko aukera ere jarriko dugu", adierazi du Gorosabelek.

### Aldarrikapena, asteburuan

Gainera, asteburuko Puntaik Punta jaialdia ere aprobetxatuko dute, bailara osoari euren egoeraz jakinarazteko eta herriaren eskola bat nahi dutela aldarrikatzeko. "Bakoitzak bere herriko informazioaren berri edukitzen duela uste dut. Jende asko egongo da jakin barik Gatzagan badaukagula gela desplazatu hau eta bertan herriko zenbait ume daudela. Horregatik, aukera egokia



Luis Ezeiza eskolako gela desplazatua. | ENEKO AZURMENDI

dugu asteburu honetan bailara osoak gure egoeraren berri izan dezan", onartu du guraso elkartearen kideak.

### Galera handia

Biek, bai Urrutiak eta baita Gorosabelek ere, bat egiten dute herriarendako izugarriko galera izango litzatekeela eskola gabe gelditzea. "Alde batetik, herriaren hazteak garrantzi handia dauka hurrengoak. Bestetik, guretzako are garrantzitsuagoa da umeak herriaren gelditzea. Plaza bat ume

barik egoteak ez du zentzu handirik herri batean, eta goizeko lehenengo ordutik arratsaldera arte herriaren umerik ez egotea ez da batera zentzuzkoa", azaldu du Gorosabelek.

Urrutiak, berriz, azpimarratu du bi urtetik goragoko umetxoak egunero joan beharko direla Eskoriatzara autobusean. "Egoera horren aurrean, herriak planto egiten du", dio.

Datorren astean bilduko da Gurel delegazioarekin eta ikusiko da zer pauso ematen diren.

# KIROLA

## FUTBOLA

Vanesa Gimbert | Athleticeko jokalaria

# "Egun hauetako ospakizunetan, taldekideen eta zaleen poztasun aurpegiekin geratzen naiz"

- ▶ Bergarako jokalaria ospakizunetan eman du astea, liga irabazi ostean
- ▶ Titulua irabazteak ez du ezustean harrapatu, hainbat liga eta kopa irabazi ditu eta

XABIER URZELAI | BERGARA

Vanesa Gimbert (Bergara, 1980) liga txapelduna da. Urte hasieran PUNTUAN elkarrizketa egin ziotenean, Athletic lider zegoen, eta, hilabete hauetan guztietan erregulartasun handia erakutsi ostean -29 partidutatik 25 irabazi dituzte, eta bakarria galdu-, joan den asteburuan lortu zuten, matematikoki, amestutako helburua, Bartzelonak Atletico Madril taldearen kontra barkatu ostean. GOIENAK aste barruko ospakizunak amaituta egin dio elkarrizketa bergararrari, gabarrak sortutako polemika oraindik baretu ez dela.

### Ajerik bai?

Ez, atzoko [martitzena] ospakizunak lasaiagoak izan ziren. Taldekideok etxeokoen eta Athleticeko zaleekin batera ospatu gura izan genuen liga txapeldun ginela, eta Begoñako elizan eta udaletxeko balkoian bizi izandako momentuak sekulakoak izan ziren. Benetako parranda domekan egin genuen. [Barre]

### Egun hauetan bizi izandakoa errepasatuta, ze momentu duzue gogoan?

Egun hauetako taldekideen eta zaleen poztasun aurpegiekin geratzen naiz. Domekan polita izan zen ikustea taldekideek zelan ospatzen zuten liga irabazi izana, eta martitzenean zaleen erantzunarekin geratzen naiz, guretako izugarria izan zen.

### Espero zenuten, esaterako, udaletxeko balkoian izandako harreraren horrenbeste jende egotea?

Bai eta ez. Batetik, aurreko urteetan Athleticekin beste kirol lorpen batzuk egindakoek [bost liga irabazi dituzte guztira] esaten ziguten baietz, jende asko egongo zela ospakizunetan, baina ez nuen halakorik espero.

### Egunotan askok eman dute gabarraren gaineko iritzia. Baina zer diozue jokariok?

Bada, jokariok gura genuen gauza bakarria zen kirol lorpen hau zaleekin batera ospatu, eta hori atzo egin ahal izan genuen; atzoko eguna ez nukeen beste ezerगतिक aldatuko. Klubak berak antolatutako eguna izan zen, hori euren erabakia izan zen, eta guk gozatu ederra hartu genuen.

**Gabarra ateratzeara ez zen jokariaren aldarrikapena izan.**



Vanesa Gimbert, Bergarako Agorrosin futbol zelaian. | JAGOBA DOMINGO

Jokariok kirol arloaz arduratuta gara, eta gureak ez diren arduratan ez gara sartu. Dena dela, klub honek emakumezkoen futbolaren alde egin duen apustua nabarmena da, eta ez da berria. Nik ulertzen dut kalean gai honen gainean eztabaida egotea, baina jokariok dagoeneko nekatu samar gaude.

### Alde horretatik, ze klubetan dabilta emakumezkoekin lana ondo egiten?

Hainbat talde daude. Bartzelona, esaterako, profesionalizatu egin da aurreko eta apustu sendoa egin dute. Jokariok bertako kirol hirian bizi dira, eta jardun osoa eskaintzen diote futbolari. Eta, badirudi Atletico Madril ere apustu garbia egiten dabilela.

## "Jokariok nekatu samar ere bagaude gabarraren polemikaz"

## "Taldea honen indarra mentalitatean egon da, indartsuak izan gara urte osoan"

### Liga luzea izaten dabil, nahiz eta dagoeneko lortu duzuen matematikoki txapelketa irabaztea. Ez da urte erraza izan.

Ez, lehia handia egon delako. Bestalde, taldean lesioak eta halakoak ere izan ditugu eta momentu gogorak gainditu behar izan ditugu. Uste dut talde honen indarra mentalitatean egon dela, mentalki gogorak izan gara. **Urte osoan Rayoren kontra baino ez duzue galdu. Zer gertatu zen partidu hartan?**

Ez genuen partidu onik egin, ez ginen behar den moduan zelairatu. Baina, behera etorri beharrean, porrotak espabilatzeko lagundu zigun. Bartzelona puntu bakarrera gerturatu zitzaigun, baina esnatu egin ginen, eta indarra hartu genuen hor. **Dena dela, lehenengo itzuli ona egin izanak asko lagundu dizue.**

Bai, erabakigarria izan zen. Hasieran ez badira lanak ondo egiten ondoren atzetik aurrera etorri beharra dago, eta hori oso nekagarria da. Lehenengo itzuli bikainaren ostean, bigarrean gora-beheraren bat izan dugu, baina ondo eutsi diogu lehen postuari. **Bartzelona bakarrik izan da zuei aurre egiteko kapaz?**

Bueno, eurak izan dira sailkapenean gehien estutu dutenak, baina hainbat talde daude denboraldi ona egin dutenak: Atletico, Real, Tenerife... Eta garbi dago

edozein berdegunetan galdu genitzakeela puntuak. Bigarren itzulian, batez ere, etxetik kanpora oso partidu gogorak izan ditugu. **Eta, arlo pertsonalean zelako urtea izan da?**

Ona. Iaz baino hobeto hasi ahal izan dut liga, indartsuago, erritmo handiagoarekin, baina egia da amaiera luzea egiten ari zaidala. Nire buruarekin oso zorrotza naiz, eta ligako azken txanpa honetara hobeto iritsi gurako nuke.

### Eta, ze itxura du etorkizunak? Athleticekin jarraitzeko asmotan?

Oraindik ez dugu gai horretaz berba egin. Orain, ospakizunekin gozatu gura izan dugu, eta egongo da aurrerago etorkizunaz berba egiteko astia.

## "Rayoren kontrako porrotak espabilatzeko balio izan zigun"

## "Ilusioari eusten diot, hori galtzean hobe da beste zerbaitetan hastea"

### Kazetariak orain gogoraziko dizue dagoeneko jokari veteranoa zaitugula...

[Barreak] Ez dago gogoraziko beharrik, ondo dakit hori. Partidu baten ostean errekuuperatzeko behar dudana denborak gogorazten dit dagoeneko ez naizela hasiberria.

### Eta, zer da geratzen da duela 16 urte Levantera iritsi zen gazte hartatik?

Bada, ez daukat oso garbi. Seguruena, futboleko jokatzeko jarraitzeko ilusioa. Izan ere, ilusioa galtzen den momentuan, hobe da beste gauza batzuetan hasi. Jokari moduan, berriz, seguru asko aldatu naizela. Ez dut orduko sasoi, baina bai urteek ematen duten esperientzia.

### Levante, Estudiantes, Sevilla, Rayo Vallecano, Espanyol eta Athletic. Ez da zerrenda makala.

Ez; futbolari esker batera eta bestera ibili naiz, eta leku guztietan daukat oroitzapen ona. Levanteko urteak ederrak izan ziren; pentsa, kategoria gorenera iritsi berria, gaztea... Oso ondo zaindu ninduten, eta Valentzia aldean oso ondo bizi dira. Estudiantesco urtea nahiko xelebrea izan zen, justu-justu jokatzeko elkartzeko ginelako, eta Sevillan ere oso ondo ibili nintzen. Klubaren 100. urteurrena zen eta emakumezko futbolaren aldeko apustua egin zuten; oso urte onak izan ziren, zaleen babes handia geneukan eta liga irabazteko puntuan egon ginen.

### Eta handik Madrilerara...

Bai; Rayoko lehenengo urtean Erreginaren Kopa irabazi genuen, eta ondoren beste bi liga. Eta egia da tituluak lortu dituzun lekuetan errazagoa dela oroitzapen onak gordetzea. Ondoren, Espanyolek egin zuen nire aldeko apustua, eta han beste Erregina Kopa bat irabazi genuen. **Katalunian zeundela iritsi zitzaizun Athleticekin eskaintza?**

Ez, lehenago. [Barre] Iñigo Juaristik urtero deitzen zidan Athleticeko etortzeko esanaz. Ezetz esan nion hainbat aldiz, nongoen tokian ondo nongoelako. Baina azkeneko deitu zidan baita, eta ez naiz damutzen.

## PADELA



Herritar bat padelean jokatzen. | GOIENA

## Padel txapelketa ekainean Arrasaten

XABIER URZELAI | ARRASATE

AKE Padel taldeak *Basque Nattion* izeneko txapelketa antolatu du hilabete honetarako. Txapelketa ekainaren 17tik 19ra bitarteko asteburuan jokatuko dute, Musakolako instalazioetan, eta izena emateko azken eguna ekainaren 12a izango da; hau da, datorren domeka.

### Kanporaketa formatuan

Txapelketa antolatzeko orduan, AKE Padeleko lagunek kanporaketa formatuaren alde egin dute, eta hiru kategoria jarri dituzte, guztira: gizonezkoak, emakumezkoak eta bikote mis-

toak. Hala, izena emateko bi aukera daude; izen ematea soilik egin gura duenak, opari barik, 5 euro ordaindu beharko ditu. Baina, 20 euro ordainduta, izena emateaz batera jokalaria eguzkitako betaurreko batzuk jasoko ditu -31 euro balio dute betaurrekoek-, eta interesa duenak e-postaz zehaztu dezake betaurrekoak ze koloretakoak gura dituen.

Hala, izena emateko idatzi mezua ake.padel@gmail helbidera datorren domeka baino lehen, eta ordainketa egin honako kontu korrontean: 30350047100470075137.

## MENDI BIZIKLETA

## Uztailaren 9an egingo dute Eskoxtreme martxa

X.U. | ESKORIATZA

Eskoriatzako mendi bizikleta zaleak hasita daude datorren uztailaren 9an egingo duten Eskoxtreme martxa prestatzen, eta dagoeneko zabalik dago izen emate epea (*kirol-probak.com*). Izen horrekin martxak urte gutxi egin baditu ere, hamarkada askotan Eskoriatzan antolatutako martxako erreleboa da, baina, udazkenean egin beharrean, udan antolatzen dute.

Ibilbide luzeak 47 kilometro izango ditu (2.000 metroko desnibela), eta azken urteotako ezaugarriari eutsiko diote, pista zabalak beharrean bidezidor jostagarriak erabiliko dituzte eta. Eta, ibilbide motza 36 kilometrokoa izango da, 1.500 metroko desnibelarekin. Sasoi puntu onean daudenei, baina, luzea egiteko gomendioa egiten diete antolatzaileek: "Motza ere paraje ederretan dago, baina luzea egiten dutenek 10 kilometro luze dituen bidezidor ikusgarri batekin gozatu ahal izango dute, Izuzkitatik Legutiraino doana. Horrenbestez, aurtengoa aurreko bi edizioak baino politagoa dela esango genuke. Hori bai, metro bakarra ere ez dago laua".

## PILOTA

## Aretxabaletan jokatuko dituzte Debarroko finalak domekan

X.U. | ARETXABALETA

Debarroko Txapelketaren 69. edizioa -Soraluce Saria 2016- azken fasera iritsi da, Debagoieneko pilotariak domekan jokatuko dituzte-eta finalak, Aretxabaletan. Azpimarratzekoa da Bergarako pilotariak txapelketan zehar egindako lana, kategoriatan ordezkaritza izango dute-eta finalean. Kontrara, nahiz eta finalak Aretxabaletan antolatuko dituzten, ezingo da herrikiderik Iturrigorri pilotalekuan lehian ikusi.

Etzi 10:30ean hasiko dute pilota jaialdia, eta, hasteko, gazteenen txanda izango da, kadete mailakoena. Hor Bergara eta Oñati izango dira zein

baino zein gehiago. Bergarako ordezkariak Etxaniz eta Gartzia izango dira eta Oñatiko perez-tarren kontra jokatuko dute.

### Gazteak, segidan

Gazte mailako finalera, berriz, Bergara eta Arrasate iritsi dira. Arrasate ordezkatu dute Zubizarretak eta Oterminek, eta Murua eta Llodio bergararrak izango dituzte aurrean.

Goizeko hirugarren partiduan, berriz, senior mailako pilotariak izango dira zein baino zein gehiago. Muguruza eta Iñarra ahaleginduko dira txapelak Bergarara eramaten, baina asmo bera izango dute Soraluzeko Atxotegik eta Boñinagak.



2014an Eskoriatzan jokatutako finalaren irudia. | GOIENA

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

[e.arrasate@gmail.com](mailto:e.arrasate@gmail.com)

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LEIHOAK

#### ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

### LOREZAINNTZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza


- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



## ESKUBALOIA



Federazioko, Oñatiko eta Galdakaoko eta Aloñako ordezkariak, eta jokalariek, aurkezpenean. | MIREIA BIKUÑA

## Euskadi-Egipto eskubaloia partidua, Juan Carlos Elorzaren omenez

- ▶ 23 urtez azpiko jokalariek lehiatuko dira gaur, egubakoitza, 19:30ean
- ▶ Aloña Mendiko jokalaria Aitor Billarrek elastiko berdearekin jokatuko du



Elorzak Gara eta Egin egunkarietan izandako lankideetako batzuk mahai-inguruan. | ANGEL BARRENA

### "Langile amorratua eta bihotz handikoa zen"

Juan Carlos Elorza (1960-2016) Aloñako eskubaloia jokalaria izan zen. Pibote postuan jokatzen zuen. Ostean, entrenatzaile lanetan hasi zen. Han ezagutu zuen Jose Luis Osinaga *Osi-k*. "Lesionatu nintzenez nire entrenatzailea zen. Ostean, berak animatu ninduen entrenatzaile lanetan hasteko", gogoratu du. *Egin*-en lanean hasi zenez Oñati utzi zuen, baina Aloña eta herria

bihotzean eraman zituen. "Eskubaloia eta Aloña Mendi zale amorratua zen. Beti zegoen guri laguntzeko gertu. Edozertarako. Eskubaloia aditu bilakatu zen eta hori guztiori erakutsi eta irakatsi zuen nonahi". "Langile amorratua", "zorrotza", "bihotz handikoa" eta "lagunen laguna" dira Elorzari buruz erabilitako adjektiboetako batzuk. "Oñati eta eskubaloia maite zituen".

## MIREIA BIKUÑA | OÑATI

23 urtez azpiko Euskadi-Egipto partidua jokatuko dute gaur, egubakoitza, Zubikoan, 19:30ean. Aloña Mendiko jokalaria eta entrenatzaile izandako Juan Carlos Elorza zenaren omenezko norgehiagoka izango da. Aloña Mendiko eskubaloia sailak eta Euskal Eskubaloia Federazioak elkarrekin antolatutako ekitaldia da. "Guretzat, ohorea izan da Elorzaren omenezko partidua Oñatin jokatzea", esan du federazioko presidente Jose Manuel Ruiz de Cenzano oñatiarrak.

Partidua hasi aurretik, aitor-tzak egiteko unea izango da. Juan Carlos Elorzaren familiak origarriak jasoko ditu federazioaren, Aloña Mendiren eta Udalaren eskutik. Omenaldi ekitaldia 19:20an hasiko da. Ostean, Euskadiko eta Egiptoko jokalariek aurkeztu, ereserkiak entzun eta lehia hasiko dute.

## Edukiera mugatua

Zubikoako kantxako sarrera doakoa izango da, baina, federazioak antolatutako ekitaldia izanik, edukiera mugatua egongo da. Aloña Mendik pertsona bakoitzeko txartel bat banatuko du. Guztira, 582 egin ditu. "17:30ean eskola kirolaren azken jaia egingo dute. Ostean, kantxa hustu egingo dugu eta 19:00etan zabalduko ditugu ateak", esan dute antolatzaileek. Sarreran banatzen diren txartelen zenbakiekin Euskal Selekzioaren kamiseta bat zozketatuko dute.

## Jokalaria onenak

Egiptoko selekzioa jokalaria onenekin dator EAEn jokatuko dituen hiru partiduetara. 23 urtez azpiko jokalaria esanguratsueni aurre egin ahal izateko, hamasei jokalaria deitu ditu Hugo Sanchezek, zuzendari teknikoak. Tartean dago Aloñako jokalaria Aitor Billar. "Taldea indartsua osatu dute. Joko azkarra egingo duen taldea", diote.

## Teknifikazio jardunaldiak

Partidua gain eta Elorzari omenaldia borobiltzeko, teknifikazio jardunaldiak egingo dituzte egubakoitzean eta zapatuan, entrenatzaileandako. Harrobiko jokalariek izango dituzte hizpide: nola hasi eurekin lanean, baloreak, heziketa... Gazteekin lanean dihardutenak edo inoiz lan egin dutenak izango dira hizlariak. Hain justu ere, Unai Arrieta, Juan Antonio Moreno, Reyes Karrere, Miguel Angel Izquierdo eta Gari-kantz Garagartza.

AITOR BILLAR  
ALOÑAKO JOKALARIA

"Ezusteko deia izan da, eta, etxean jokatuta, urduri nago"

Aloña Mendirekin egin duen denboraldiaren saria jaso du Aitor Billarrek.



OK-MAGAZINEA

## Ze sentimendu eragiten dizkizu selekzioaren deiak?

Ezusteko deia izan da. Ez nuen espero, eta, akaso, horregatik, urduri nago. Dena den, aukera aprobetxatu gurako nuke.

## Debuta egingo duzu Euskadiko Selekzioarekin.

Aurretik, infantil eta kadete mailetan, Gipuzkoarekin jokatuta izan dut. Baina Euskadirekin lehen aldian izango da.

## Eta Oñatin, gainera!

Bai, eta horrek urduriago jartzen nau, baina barruan dudan guztia emango dut. Talde biziak garelako esango nuke.

## Zer ekarpen egin diezaiokizu zuk joko mota horri?

Gogoa, seguru, eta intentsitatea ere bai. Maila handiko jokalariek daude eta haiei laguntzen ahaleginduko naiz.

## TRIATLOIA

## Ekainaren 19an, benjaminendako, alebinendako eta infantilendako triatloia

Igeriketa, korrika eta bizikleta probak Agorrosin gunean egingo dituzte



Iazko parte-hartzaileetako bi igeriketako proba bukatuta, Agorrosindik irteten. | GOIENA

## M.B. | BERGARA

II. Antxintxika Triatloi Txikia ekainaren 19an jokatuko dute, Bergarako Agorrosin gunean, 09:00etan. Benjaminendako, alebinendako eta infantilendako proba da. Adinaren arabera distantzia ezberdinak egingo dituzte: benjaminek, 50 metro igerian, bi kilometro bizikletan eta 400 metro korrika; alebinek, 100 metro igerian, lau kilometro bizikletan eta 800 metro korrika; eta infantilek, 150 metro igerian, lau kilometro bizikletan eta 800 metro korrika. Helburua da gazteen artean triatloia sustatzea. "Iaz harrituta gertatu ginen. 80 neska-mutikok eman zuten izena eta maila ona erakutsi zuten", esan du Antxintxika taldeko Mikel Labakak.

## Gipuzkoako txapelketa

Triatloi txikian parte hartzeko bi modu daude: bakarka edo erre-

leboka. Azken horretan, taldeko kide bakoitzak diziplina bat egingo du. "Errelebokako aukera ipini genuen parte-hartzea errazte aldera. Baina, iaz, gehienek bakar-karka hartu zuten parte. 20 talde egon ziren eta gainerako guztiak bakarka lehiatu ziren", diote.

Proba guztiak Agorrosin gunean egingo dituzte: igeriketa igerilekuan, korrika futbol zelai-pistan eta bizikleta ibilbidea Bergarako kaleetan.

Sariak ez dira falta izango. Mailaren arabera opariak egongo dira. Bada, azkarrenek sari potoloa irabaziko dute: Gipuzkoako txapelkunak izango dira.

## Informazioa

Triatloi txikiaren gaineko informazio gehiago gura duenarentako, bi aukera daude: [triatloitxikia@gmail.com](mailto:triatloitxikia@gmail.com) edo [www.antxintxika.org](http://www.antxintxika.org).

## MENDIA

## WOPeak proiektuaren azken erronka: Gasherbrum

X.U. | ARRASATE

Dagoeneko sei urte pasa dira 2010ean WOPeak proiektua mar-txan jarri zutenetik. Gorbeia (1.481 metro) lagunartean igota hasi zuten erronka hau, eta urte haue-tan beste sei mendi tontor igo ostean zortzimilakoa geratzen zaie, Gasherbrum.

Hala, Mikel Zabalza, Juan Vallejo eta Alberto Iñurrategi aste barruan abiatu dira Pakistan aldera. Asmoa da uztailean erdira arte garaierara ohitzea, eta bigarren hamabostaldian ahalegin-duko dira helburua betetzen.

### Jon Herranz-ek lagunduta

Espedizio honetako nobedade-tako bat izango da Jon Herranz

kameralari profesional ardura-tuko dela irudiak hartu eta erre-tratuak ateratzeaz. Hala, egune-rokoa sare sozialetara igotzeare-kin batera film bat egiteko aprobetxatuko dute materiala.

### Gasherbrum mendiak

Espedizio kideak ez doaz egin beharrekoearekin zehaztuta. Hau da, han aurkituko duten baldin-tzetara egokituko dira erronka zehazteko orduan: GI eta GII bate-ra egitea, edo GI hainbat bide erabilia igotzea, edo GII oso gutxitan erabili den bide bat erabilia igotzea, hainbat aukera dituzte. Alpetar estiloari eutsiko diote: "Gure partetik onena emate-a eskatuko diogu gure buruari".

## TXIRRINDULARITZA



DORLETAKO AMA

## Podiumean, ibarrekoak nagusi

Ezkioltsason lehiatu ziren joan den astean infantil eta alebin mailetako ziklistak, eta podiumera igo ziren bailarako hainbat ordezkari. Bihar, zapatua, Bergaran egingo dute Gipuzkoako erlojupeko txapelketa (17:00); domekan Oñatin 31. Olakua proba.

## FUTBOLA

### UDako eta Eibarko beterenen lagunartekoa, bihar

Aretxabaletako kirol elkarte UDak 70. urteurreneko ospa-kizunekin jarraitzen du, eta oraingo zapaturako, hilak 11, lagunarteko futbol partidua antolatu dute, Aretxabaletako eta Eibarko jokalariei beterenen artean. Partidua Ibarra-ko berdegunean jokatuko dute, zapatuan 11:30ean hasita.

## HOCKYA

### Euskadiko Kopa jokatuko dute bihar Bergaran

Hiru talde lehiatuko dira bihar Labegarietan jokatuko duten Euskadiko Kopan. 15:00etan Hanka Labankak eta Dragons taldeak jokatuko dute, 16:15ean Hanka Labankak eta Metropolitanok eta 17:30ean Dragonek eta Metropolitanok. 18:45ean banatuko dituzte sariak.

## MENDIA

## Kirol eskaintza polita dago Puntaik Punta jaian

X.U. | LEIINTZ GATZAGA

Asteburuan egingo dute Leintz Gatzagan Puntaik Punta jaialdia, eta bertan, nabarmentzeko moduko kirol jarduerak antolatu dituzte. (Informazio osoa 2. orrialdean)

Gaur bertan (00:00etan) mendi irteera egingo dute gaez, Atxorrotxera. Bihar, zapatua, 08:00etan beste mendi irteera bat izango da, 23 edo 17 kilometrokoa, eta 10:30erako familiendako antolatu dute beste irteera bat; kasu horretan, Jarindora. 16:00etan rappela egiteko irteera prestatu dute, Deba ibaian behera, eta 18:00etan Kalebloka edo street boulder-ira egingo dute.

Domekarako antolatu dituzten ekintzen artean, mendi bizikleta irteera egingo dute (09:00), eta, ordu bere-rako, ibilketa nordikoa egiteko irteera ere prestatu dute, baita bidezidor gidatuak ere –Debagoieneko gainontzeko herrietan–. 10:30ean osteraren mendi irteera egingo dute, familian: Hiruerreketara joango dira.



Wopeak espedizio kideak, aurkezpenean. | WOPeak

# BOTA ERRONKA



GOIENA TELEBISTA | BOTA ERRONKA | EUSKAL HERRIA EZAGUTZEKO BESTE MODU BAT  
EKAINAK 16, 22:00 | ION GARATEK ETA IRATZ URKIZUK AURKEZTUA

BABESLEA:



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

# KULTURA



Badiola -eskuinaldean-, Altzuzako Oteiza museoan egindako katalogoaren lehen aurkezpenean. | OTEIZA MUSEOA

## Jorge Oteiza maisuaren arte ondarea, sakon aztertuta

- ▶ 'Oteiza. Katalogo arrazoitua' lana aurkeztuko da bihar Arantzazun
- ▶ Txomin Badiolak egin du eta eskultorearen 2.752 lan batzen ditu

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Jorge Oteiza izan da, askoren iritziz, Euskal Herriak eman duen eskulturagilerik onena. Orain, bere lana biltzen duen katalogoa atera da argitara, Txomin Badiola artista ezagunak egin. Altzuzan, Nafarroan, egin zuten katalogoaren lehen aurkezpena, Oteiza museoan, hain zuzen, eta bihar eguerdian bigarrena egingo dute Arantzazuko Gandiaga topagunean. Izan ere, santutegi kanpoaldean dauden apostolu ezagunak Oteizaren lanaren ikur garrantzitsu dira.

12:00etan izango da aurkezpena, eta bertan izango dira Badiola bera, lanari buruzko argibideak ematen, baita Rafael Moneo arkitektoa ere, Oteiza Fundazio-Museoko presidentea den aldetik.

Oteizaren katalogo arrazoitua lan mardula da, bi liburukiz osatua, eta eskultorearen 2.752 jasotzen ditu, guztira. Hala ere, liburua ez da ohiko katalogo bat. Izan ere, obra guztiei buruzko informazioa eskaintzeaz gain, Badiolak Oteizaren obrak bere testuin-

guruan kokatu nahi izan ditu, haren bizipen pertsonal, artistiko eta esperimentalekin osatuta. Bestalde, Badiolak berak obra desberdinei buruz idatzitako saiakerak ere tartekatzen dira.

Lanaren hiru edizio egin dira, euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez, Oteizaren obra hainbat esparrutan zabaltzeko asmotan.

**Lanaren prozesua**

Duela bederatzirte hasi zituen Txomin Badiolak *Oteiza. Katalogo arrazoitua* osatzeko lehen lanak. Hala, 2007tik 2010era bitartean katalogazio jardunean aritu zen. "Denbora horretan, Oteizaren lanaren konplexutasuna deskribatzeko gai izango ziren hainbat kategoria definitu nituen", azal-

du du egileak. Ondoren, datu-base bat sortu zuen, eta, jarraian, lan guztiak lokalizatu, eta obra bakoitzari buruzko informazioak batzeko lanari ekin zion. "Hiru urtera, esan daiteke datu-baseak masa kritiko nahikoa zuela Oteizaren lanaren ikuspegi nahiko zabala eskaintzeko", dio Badiolak. Hala, hurrengo sei hilabeteetan

### Francisco Sanchezen 'Ghost Forest', erakusketa aretoan

Francisco Lopez artistak soinuarekin eta musika esperimentalarekin egiten du lan, eta arlo honetan nazioartean ezaguna da. Bada, uztailaren 10era arte bere *Ghost Forest* soinu instalazioa bisitatzeko aukera dago Arantzazuko erakusketa aretoan. Instalazio hau munduko hainbat basotan grabatutako soinu ambientalez osatuta dago.

Donostia 2016 hiriburutza kulturalaren baitako Entzumen Behatokia ekimenaren parte da erakusketa hau. *Ghost Forest* Bartzelonan, Amsterdamen eta Alemanian izan da Arantzazura iritsi aurretik.



Aurkezpen ekitaldia Donostian. | DONOSTIA 2016

#### FITXA



LIBURUA

**OTEIZA. ESKULTURA KATALOGO ARRAZOITUA**

**Generoa:** Arte katalogoa.

**Egilea:** Txomin Badiola (Bilbo, 1957).

**Argitaletxea:** Jorge Oteiza fundazioa eta Nerea argitaletxea.

**Orrialdeak:** Bi liburuki. 952 orrialde

#### ESANAK

**"Oteizaren konplexutasuna ikuspegi kritiko edo historikotik lantzea oso zaila izango litzateke"**

TXOMIN BADIOLA | EGILEA

publikazioa diseinatu zuen, jasotako informazio guztia "ahalik eta modu argiengan" eskaintzeko asmoz.

**Artistaren ikuspegia**

Mota honetako katalogoak historialariek edota bestelako adituek egin ohi dituzte, eta ez da arruntena lan hori artista batek burutzea. Hala ere, Badiolak dio artista ez den norbaitentzat lan ia ezinezkoa izango litzatekeela: "Oteizaren konplexutasuna hain da handia, oso zaila litzateke ikuspegi kritiko edo historikotik lantzea". Uste du eskultorearen lan prozesuak deskribatzeko ezinbestekoa dela antzeko egoera batean egon izana.

Txomin Badiolak aitortu du katalogo arrazoituaren ekimena ez zela berea izan, eta, proposatu ziotenean, hasiera batean ez zuela nahi izan. Gauza bera gertatu zitzaion, azaldu duenez, Bilbo eta New Yorkeko Guggenheim museoetako eta Madrilgo Reina Sofiako Oteizaren erakusketekin, zeinetan Badiolak komisario jardun zuen. Artista bilbotarrak dio lan horiek guztiak egin dituela promotoreek erantzukizun bat egotzi izan diotelako, eta, azkenean, erantzukizun horrekiko "sentsibilitatea" dela-eta baiezkota eman behar izan duela.

Dena den, Badiolak dio "pozik" dagoela lan hauek burutu izanaz, nahiz eta artista batentzat "oso zaila" den "beste artista bat uneoro motxilan eramatea".

Maixa Lizarribar | Trikitilaria eta trikiti irakaslea

# "Hamalau abesti eskainiko ditugu, bakoitza Arrasateko talde batekin"

Arrasateko Trikitixa Eskolak kontzertua eskainiko du, bihar, Monterronen, 18:30ean. 25. urteurrena ospatzeko kontzertua izango da hori

A.A./M.A. | ARRASATE

Maixa Lizarribar (Altzo, 1971) Arrasateko Trikitixa Eskolako irakaslea da. Bihar ospatuko du eskolak 25. urteurrena Monterronen egingo duen kontzertuarekin. Lizarribarrekin jardun dugu biharkoari begira.

**Ospakizun ederra izango da zapatukoa.**

Ikasturte bukaeran egiten dugun jaialdia berezia izango da aurren, kalera aterako baitugu. Ez horregatik bakarrik, gurekin musika egitera gonbidatu baititugu herriko hainbat talde. Guztira, hamalau abesti eskainiko ditugu eta horietako bakoitza herriko elkarte batekin: txistulariak, gaitariak, konpartsa, Lore Gazteak, txalapartariak...

**Eta trikitilariak, zenbat?**

Eskola guztiak hartuko du parte eta ikasle ohiak ere etorriko dira. Ehunen bueltan izango gara. Kantu batzuetan denok egongo gara eta beste batzuetan gutxi batzuk. **25. urteurreneko abestia ere aurkeztuko duzue zapatuan. Nork egin du abesti hori?**

Abestiaren letra Ane Zuazubiskarrek egin du eta melodia Beñat Apraizek -Trikitixa Eskolako ikaslea bera-. Trikiti bat da, nola ez, eta jende askoren parte hartzea duen abestia.

**Zapatuan kontzertuaren ondoren afaria ere egongo da.**

Ehunetik gora izango gara. Eguraldiak laguntzen badu, Biterin afalduko dugu.

**25 urte, baina, irailen beteko dituzue eskolak.**

Bai, eta egin gura ditugu ekintzak irailen ere. Besteak beste, ate irekiak egingo ditugu eta kontzerturen bat ere badugu buruan, agian, norbait ekarrita... Zehazteko dago guztia.



Maixa Lizarribar 25. urteurreneko kamisetarekin. | M.L.

## "Oso tresna estimatua da, emaitzak erraz ikusten dira"

**Zapatuan Arrasateko beste talde batzuekin elkarlanean arituko zarete, baina ba al du eskolak harremanik Arrasateko beste taldeekin?**

Ba, egia esan, gure artean ez ditugu lan gehiegi egiten, nor bere aldetik ari da. Egia da horrelakoetan elkartzen garela eta inor ez dagoela itxita. Gertatzen da, gainera, jende asko talde baten baino gehiagotan dabilela, eta horrek ere laguntzen du gauzak elkarrekin egiteko orduan, baina, orokorrean, nor bere aldetik lan egiten du.

**Hor dago Kulturola proiektua ere, Zerrajera eta Aprendices kulturgu-**

**ne bihurtzeko ekimena.**

Gogoz hartu dugun proiektua da. Luze egingo zaigu ikusi arte. **Eskolak bakarrik ez, zuk ere 25 urte egingo dituzu Trikitixa Eskolan.** Txiripaz hasi nintzen, egia esan. Kepa Junkera eta beste batzuk zebiltzan irakasle lanetan, eta haiek utzi zutenean etorri nintzen ni.

**Ikasle asko dituzu. Sasoi onean dago eskola, beraz.**

60 ikasle izandako urteak izan dira, baina aurren 130 badira. Hiru irakasle gara gaur egun.

**Ez da modaz pasatzen trikitia.**

Oso tresna estimatua da, eta, lan eginez, emaitzak erraz ikusten diren tresna bat da. Doinua bera ere bada estimatua. Eskola guztiak dabilta nahiko ondo.

**Ez daude trikiti eskola asko Euskal Herrian.**

Egia esan, ez. Sekulako zortea dugu, gaur egun trikiti musika eskoletan erakusten da.

## Reincidentes, Lokuria eta Alerta Gorria taldeen kontzertua Oñatin

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI  
Sevillako rock talde ezaguna Olara auzoko jaietan izango da, gaur, egubakoitza. Oñatin lehenengo aldia duten arren, Deba-goienean sarritan jo izan dute eta jarraitzaile eta lagun asko dituzte bertan. Fernando Madina abeslariak dio sekulako ilusioa duela gaurko, haren abizena oñatiarra delako. Hainbat alditan izandakoa da Oñatin, gurasoekin lehenengo, eta Evaristo (La Polla, Gatillazo...) bisitatzen geroago.

Reincidentesekin batera, Arbizuko Alerta Gorriak eta Oñatiko Lokuria taldeak osatuko dute gaur 22:00etan hasiko den kontzertuko kartela.

**30 urtetako ibilbidea**

Abenduan 30 urte beteko dituzte. Guztiak dira hastapenetako kideak; bat izan ezik, lehenengo formaziokoak. Oinarrian punk-rock taldea izaten jarraitzen du beste musika estiloetarik ere edaten badute ere.

Hastapenetako adinik ez dute baina indar berarekin jarraitzen dute; horren erakusle, bi ordutako emanaldian 39 kantu jotzen dituztela. Hementxe disko dituzte eta kontzertuetako kantu-zerrendan diskografia osoa dago ordezkaturik. Atera duten azkeneko lana Awkan da; taldearen filosofia jasotzen duen liburua, CDA eta eta bi DVD batzen dituena.



IMANOL SORIANO


## Harrera ona izan du Magia Mostrak

Asier Kidam gasteiztarrak ireki zuen zikloa egubakoitz iluntzean, familiei zuzendutako **1805** ikuskizunarekin. Zapatuan, ikuskizun bikoitza izan zen. Lehenengo, Tor eta Txoborro bikotearen txanda izan zen, eta beraien ostean, Imanol Ituiño bilbotarrarena. Domekan, magia tailerren txanda izan zen. Hitzorduek erantzun ona izan zuten herriarren aldetik.

## Goiena Klubeko ekaineko zozketa

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

**Tableta**  
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



**Liburu sorta**  
3 liburuko pack-a (Denbora bere lekura, San Ferminetan Lesakan, Muskerraren bidea).  
Parte hartzeko sariaren izena: Liburuak



**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



**Otarrea**  
Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



**PARTE HARTZEKO:**  
E-postaz: kluba@goiena.eus  
WhatsApp: KLUBA [ Saria ] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen daguen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indararen daguen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# Batzen jolas-dantza estreinatuko dute

Herritarrak ikusle izateari utzi eta dantzaren parte bihurtzea helburu duen dantza inklusiboa da

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Jose Ramon Vitoriak herriko kultur taldeekin elkarlanean sortutako jolas-dantza herrikoa da Batzen. Herritarrak ikusle izateari utzi eta dantzaren parte bihurtzea helburu duen dantza inklusiboa da. Elkarlan eta bizikidetzaz espazio berriak irekitzeko asmoz sortu du Vitoriak.

Errementari Dantza eta Txerri Dantza egin ondoren, dantza berri bat sortu du Jose Ramon Vitoria arrasatearrak. Batzen du izena, eta, aurrekoetan bezala, herriko kultur taldeekin elkarlanean sortu du. Bertan parte hartu dute: Arrasate Musikaleko Bandak, Arrasateko Gaiteroek, Arrasateko Txistulariek, Arrasateko Trikitilariak, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeek eta Portaloi Elkarteko Herrixa Dantzan-eko partaideak. Honela azaldu du Jose

Ramon Vitoriak, Huheziko ikerketa eta transferentzia arloko zuzendariak: "Ikusten dut musika eta dantzarekin batera gizarte eraikitze eta sustatzeko aukera handiak dauzkagula. Binomio horren aldeko apustua egiteko, ausartu egin naiz".

## Parte-hartzea sustatuz

Elkarlan eta bizikidetzaz espazio berriak irekitzeko asmoz sortutako dantza da, eta herritarren parte hartze aktiboa sustatzea du helburu. Aurreko bi dantzeekin ez bezala, Batzen-en herritarrak ikusle izateatik protagonista izatera pasatzea da Vitoriak lortu nahi duena. Herritar guztiak, gainera: haurrak, gazteak, helduak, etorkinak edo bertakoak.

Hori lortzeko, estetikari garrantzia kendu eta etikari garrantzia ematen dion dantza

izango da. Posizio eta mugimendu basiko batzuk izango ditu, baina gainontzeko ataletan dantza erabat librea izango da, herritar bakoitzaren mugimenduak bere egingo dituen. "Parte hartuko duen edozein herritarrek mugimendu librean egiteko aukera izango du".

## Atal ezberdineko dantza

Dantza hainbat atalez osatuta dago: kalejira, deia, gonbidapena, jolasa eta dantza. Ez da egun edo herri konkretu baterako sortu. "Edozein egunetarako, testuingurutarako sortutakoa da, ez dugu horretarako inongo baldintzarik jarri". Ospakizun bat tarteko, edozein lekutan egin daitekeen dantza izango da.

Ekainaren 18an estreinatuko dute, Arrasaten, Errementari Dantzaren entsegua bukatu ostean.



Iaz, Gandiaga Topagunean egindako kaligrafia-jardunaldia. | ARANTZAZU LETRAZ

## Kaligrafia-jardunaldia izango da, bigarren aldiz, Gandiaga topagunean

Ekainaren 17an eta 18an izango den jardunaldian Bego Viñuela kaligrafo ospetsua izango da

I.B | OÑATI

Iaz egindako jardunaldiek izandako arrakastaren ostean, aurtengo ere kaligrafia-jardunaldia egingo da Arantzazuko Gandiaga topagunean. Ekainaren 17an arratsaldean eta ekainaren 18an egun osoan izango da jardunaldia, eta, plazak mugatuak diren arren, plaza librean daude oraindik.

Arantzazu Gaur Fundazioak, Euskal Herriko Unibertsitateak (Letraz, Diseinu grafikoaren eta Tipografiaren ikerketa taldea), Bilbao Kaligrafiak eta J. Uriarte Tamayok elkarlanean aurkeztu duten jardunaldian, Kaligrafia Gotikoaren lantegia eta Bego Viñuela kaligrafo ospetsuaren ikastaroa izango da.

## Bego Viñuela kaligrafoa

Bego Viñuela kaligrafoa bertan izango da, berak ikasitakoa datozenei erakusten. EHU Arte Ederrak ikasi zituen, eta gero, Bartzelonan tipografia aurreratu masterra egin zuen. Ordutik hona, ikasten jarraitu du nazioarteko kurtsoetara joanaz, kaligrafo prestigioetsuarekin batera. Hala, mota ezberdineko tipografiaren hainbat ikastaro eman ditu: ingelesa, brush pen, gotikoa, erromatarra, espresiboa...

Kaligrafia-jardunaldien bigarren edizio honetan, gotikoaren tailerra emango du, letra mota honen trazatuaren ikastea, aldae-

ra ezberdinen estilistikekin. Aukera espresibo ezberdinak esploratuko dira teknika ezberdinekin, instrumentu eta euskarri ezberdinekin, hala, etorkizunera begira erakusteko moduko lanak egiten irakatsita.

Letra gotikoaren kaligrafia-formazio praktikoa honekin, alderdi funtsezkoenak eskuratzeko da helburua: idazte uniformetasunaren kontrola, trazu, erritmo, erregulartasuna, idatzizko hitzen testura orokorren sentsibilizazioaren aldaera formala...

## Nori zuzenduta

Tailer hau idazketaren formez liluratuta dauden pertsonei zuzenduta dago, baina baita leterekin lanean diharduten pertsonei ere: diseinatzaile grafikoak, tipografoak, ilustratzaileak, kaligrafoak, errotulaztaileak... baina, hala ere, ez dago aurre-jakintzarik izan beharrik.

Arantzazuko Gandiaga topagunean izango da: ekainaren 17an, 16:00etatik 20:00etara bitartean; eta 18an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Hala, izena eman nahi duenak 943 71 65 75 telefonora deitu edo [info@arantzazugandiaga.com](mailto:info@arantzazugandiaga.com) helbidera idatzi behar du. Kurtsoaren prezioa, berriz, 100 eurokoa izango da, eta banku-transferentziaz egin behar du ordainketa.



Batzen jolas-dantza aurkezpenean batutakoak talde argazkian. | XABI GOROSTIDI

## 'Escenas de Lorca' antzerkia izango da Arkupen

Berrizko antzerki tailerrekoek ekainaren 16an taularatuko dute beraien lana, 19:30ean

I.B | ARETXABAETA

Berrizko antzerki tailerrek *Escenas de Lorca* antzezlan eskainiko du Arkupe kultura etxean, datorren egunean, ekainaren 16an. 19:30ean izango da, eta sarrera doakoa izango da.

Rosa Martinezek zuzendutako lana da eta Bego Pereira, Lourdes Sanchez, Aroa Blanco eta Iban Quesadak interpretatutako dute; musika, berriz, Leire Balerdirena da. Hala, Federico Garcia Lorcaren hainbat eszena interpretatuko dituzte.

## Klasikoak taularatuz

*Bodas de Sangre*, *Yerma* eta *Bernarda Alba* izango dira interpretatuko dituzten hiru eszena klasikoak. Ase gabeko amatasuna, boterea eta askatasun falta, eta kausa sozialengatik ezinezko maitasuna izango dira hiru eszenetan landuko diren gaiak.

Hasiera batean, ez da existitzen eszena baten eta bestearen arteko ordenarik, baina badago elkar lotzen dituen hari bat; frustrazioa dena. Errealitatearen



Obrako protagonistak. | K.DOYLE

eta desiraren arteko gatazka egongo da, pasio indibidualak konbentzio sozialekin alderatuz. Hiru lanetan, emakume zapaldua eta, aldi berean, bere buruaz seguru dagoena irudikatuko da.



Leire Perez | Tronpeta-jolea

# "Mutil asko dabilta tronpeta jotzen, eta neska gutxi; hori aldatzea gustatuko litzaidake"

Leire Perez, Arrasate Musikal musika eskolan, tronpeta eskuan duela.



IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Leire Perez (Arrasate, 2001) zazpi urterekin hasi zen tronpeta jotzen. Batez ere mutilei zuzenduta zegoen instrumentua zela ikusita, neskek ere probatzeko aukera izan zezaketelako. Asteazkenetan entseatzeko du Arrasateko musika eskolan.

**Zergatik eta noiz hasi zinen tronpeta jotzen?**

Lehen hezkuntzako lehenengo mailan hasi nintzen tronpeta jotzen, zazpi urte nituela. Instrumentu ezberdinak ikustera joan ginen musika eskolara eta niri tronpeta gustatu zitzaidan. Tronpeta-jole guztiak mutilak ziren, eta, nik zerbait berria probatu nahi nuenez, animatu egin nintzen. Nire adineko neska guztiek beste instrumentu batzuk aukeratu zituzten, eta nik zerbait desberdina probatu nahi nuen.

**Arrasate Musikal musika eskolan zabilta. Noiz entseatzeko duzue?**

Asteazkenetan entseatzeko dut. Nire irakaslearekin egoten naiz, normalean, eta abesti ugari jotzen ditugu. Batzuetan, taldeko abestiak ere prestatzen ditugu. Nire irakasleak aukeratzen ditu, normalean, baina, nik ideiarekin bat baldin badaukat, proposamena egin eta jotzeko aukera izan ohi dugu.

**Kontzertuak eskaini dituzue taldean. Amaia antzokian. Nolako da esperientzia?**

Hasieran, oso urduri jartzen naiz, denak guri begira daudelako. Sentsazio arraroa da, baina jotzen jarraitzen dudana heinean lasaitu egiten naiz. Ahaztu egiten zait jendea guri begira dagoela. Kontzertua amaitutakoan, dena ondo joan bada, ederto sentitzen naiz. Abesti animatuak jotzea gustatzen zait, publikoak hobeto pasatzen du eta ni ere lasaiago egoten naiz. Taldean jotzen dugunean, denek gustatzen zaizkigun abestiak jotzen ditugunean ere lasaigo egoten naiz, dibertigarriagoa baita.

**Zenbat zarete taldean?**

Guztira, lau tronpeta-jolek, lau saxofoi-jolek eta bi tronboi-jolek osatzen dugu taldea. Batzuetan, bi bateria ere batzen dira taldera, baita beste talde batzuetakoak ere. Kontzertuetan, batzuetan, Big Band taldea ere egoten da gurekin.

**Gustatuko litzazuke beste instrumenturen bat jotzea?**

Ez dut beste instrumenturik

jotzen. Baina gitarra jotzen ikaslea gustatuko litzaidake. Orain, ez dut denborarik horretarako, baina espero dut etorkizunean ikasteko aukera izatea.

**Nola ikusten duzu tronpetaren egoera?**

Geroz eta jende gehiago hasi da tronpeta jotzen; lehen, gehienak helduak ziren, eta orain, gazte gehiago gaude. Horrez gain, bi neska bakarrik gaude, ni naiz zaharrena. Ni baino bi edo hiru urte gazteagoa da beste neska. Beti egon izan da tronpeta mutilekin lotuta; mutil asko daude, eta neska gutxi. Hori aldatzea nahiko nuke. Neskekin ez da oso lotuta egon, beste soinu batzuk nahiago ditugula suposatzen da beti. Baina, orokorrean, jende asko apuntatzen da, lagunengan artean influentzia handia dago apuntatzeko orduan. Oso instrumentu polita da eta jendeari asko gustatzen zaiola ematen du. Beti egon da tronpetarekiko zaletasuna herrian; hamar gazte inguru gaude eta helduak geroz eta gutxiago dira. Gehiago animatzen dira urtero; beraz, etorkizun ona izango duela pentsatzen dut.

**Euskal Herriko musika talde askotan geroz eta gehiago entzuten den instrumentua da.**

Bai, talde askotan egoten dira beti tronpeta-joleak. Estilo egokia da tronpeta taldean gehitzea. Edozer gauza jo dezakegu tronpetarekin eta abesti askotan oso soinu polita sortzen da. Leku ezberdinetan jotzeko aukera ematen du, gainera.

**Nola ikusten duzu tronpetaren egoera etorkizunean?**

Nire ustetan, geroz eta heldu gutxiago egongo dira. Gaztetxoak eta txikiak izango dira taldean gehien egongo direnak.

**Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**

Tronpeta jotzen jarraituko dut, asko gustatzen zait eta oso gustura nago taldean.

## PERTSONALA

**Abesti bat:** Skakeitan taldearen *Iraganeka*.

**Musika talde bat:** Vendetta.

**Telesail bat:** *Anatomia de Grey*.

**Kolore bat:** Urdina.

**Kontzertu bat:** Arrasate Musikalen jo genuen azkena.

**Herriko txokorik gogokoena:** Monterron.

**Amets bat:** Ikasketak ondo joatea eta etorkizunean lan on bat izatea.

**Kontzertuan jotzeko abesti bat:** *Kabaret*.

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Jaca. Etxebizitza ematen da errentan ekainaren 20tik aurrera, uztaile osoan zehar eta abuztuan...

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Egoera onean dagoen bi logelako etxebizitza hartuko genduz errentan...

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan...

Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan...

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan...

105. ETXEA OSATU

Debagoiena. Neska espainiarra logela behar du errentan...

Logela errentan Oñatin. Logela ematen da errentan erdiguinetik oso gertu dagoen duplex berri batean...

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakume bat behar du gertu etxeko lanak egiteko eta 3 eta 6 urteko bi ume zaintzeko...

Antzuola. Emakume edo neska euskaldun bat behar du 5 urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko...

Eskoriatza-Aretxabaleta. Irailetik aurrera umeak zaintzeko pertsona bat behar du gertu...

Ospitalera joateko laguntzaile. Aldizka, bi astean behin gutxi gora behera, familia bat Bergaratik Txagorritxura mediku kontsultetara...

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Zaintza lanetan, etxeko lanetan eta garbiketan aritzeko gertu nago...

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzaile gertu nagusiak zaintzeko...

Arrasate. 58 urteko emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko...

Bergara. Esperientziadun erizain laguntzaile goizez pertsona nagusiak zaintzeko prest...

Bergara. Neska euskalduna eta majisteritzako ikaslea udan haurrak zaintzeko prest...

Bergara. Neska gertu bulego eta lokalak garbitzeko eta nagusiak lagundu edota afariak gertatzeko...

Debagoiena. Arrasaten bizi den emakume pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest...

Debagoiena. Baserri lanetan eta ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke...

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Izan daitezke dependentzia dutenak edo ondo moldatzen direnak...

Debagoiena. Emakumea orduka etxeko lanak egiteko edo emakume nagusiak zaintzeko gertu...

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska orduka zaintza eta garbiketa lanetarako gertu...

Debagoiena. Etxe garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke...

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela, zaintza eta baserri lanetan arituko nintzateke...

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota jardun erdiz lan egingo nuke...

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egunez edota gauzez lan egingo nuke nagusi eta gaitxoak zaintzen...

Debagoiena. Etxeko lanak egiten, egunean zehar nagusiak zaintzen edota denetariako garbiketa lanetan aritzeko gertu nago...

Debagoiena. Etxeko lanak egiten, nagusiak zaintzen edota denetariako garbiketa lanetan aritzeko gertu nago...

Debagoiena. Etxeko lanak egiten, nagusiak zaintzen edota denetariako garbiketa lanetan aritzeko gertu nago...

Debagoiena. Geriatria ikasketak dituen emakumea gertu nagusiak zaintzeko...

Debagoiena. Geriatriako titulua duen neska prest orduka lan egiteko...

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketak, banaketak, mandatuak etxera eramateko edo denetariako lanak...

Debagoiena. Gizona prest adineko pertsonak zaintzeko, garbitasunak egiteko, lorategiko lanak, baserrien mantenua eta abar...

ZURE IRAGARKIAK
IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK: 943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak
Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

KOROSKI
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97 www.inmokoroski.com
ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA: Zubiaurre, 86 m², 3 log, trasteleku eta garaiea barne...

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz.
Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Zubi-garabiak eta jaso-makinak erabiltzeko ikasketak dauzkat...

6. MOTORRA
602. EROSI
7 plazakoa. Bigarren eskuko zazpi plazako ibilgailua erosi nuke.
8. DENETARIK
801. SALDU
Logela salgai. Estreinatutako gabeko logelako egurrezko altzariak salgai.
802. EROSI
Josteko makina. Josteko makina erosi nuke.
803. EMAN
Belarra. Eskoriatzako Mendio- la auzoan, 8.000 metroko zelaiko belarra ematen da.
804. HARTU
Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke.
806. GALDU
Mugi txartela. Arrasaten, San Andres edo Erguin inguruan, Mugi txartela galdu dut.
Mugikorra Bergaran. Kaixo, ostegunean, maiatzak 5, mugikorra galdutuen Ollagorria soziedade inguruan.
Mugikorra Oñatin. Mugikorra galdutuen ekainaren 2an San Lorenzo auzoko aldapa inguruan.
Patinetea Bergaran. Bergarako San Martin Eskolan, orain dela hilabete-maiatz hasieran-patinete bat aurkitu nuen.
Txamarra Aretxabaletan. Kaixo, maiatzaren 21 eta 22ko astebukaeran, Iralabarri plazan ume baten txamarra agertu da.
5. IRAKASKUNTZA
502. EMAN
Ingeles eskolak Bergaran. Maila guztiak. Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta Cambridge-ko azterketak prestatzeko ere bai.
Metagra Bergarak honako lanpostu hauek eskaintzen ditu.
HOTZEKO ESTANPAZIOKO LANGILEA
MEKANIZATU SAILERAKO LANGILEA

## ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Julen Sagastume Barrena**  
Ekainaren 14an, 4 urte.  
Zorionak! Ondo pasatu egun berezi honetan. Azkenian iritsi da eguna. Muxu handi bat, familia osoaren partetik, eta segi horrelakoa izaten, bitxito!



**ARRASATE**  
**Danel Unamuno Errarte**  
Ekainaren 13an, urtebete.  
Urtebete gure etxeko txikixak. Zorionak, Danel! Muxu handi-handi bat gu danon eta, batez ere, Helenaren, Anderren eta Mikelen partetik!



**BERGARA**  
**Naroa Garcia Urbieto**  
Ekainaren 12an, 2 urte.  
Zorionak, Naroa! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Maialenen partetik!



**ANTZUOLA**  
**Aitor eta Irati Mugica Barandiaran**  
Ekainaren 12an, urtebete. Urte askotarako, bikote! Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxekuen partetik. Batez be ama eta lehengusina Ainara, Aitziber eta Elene.



**ARRASATE**  
**Aimar Torres Valdes**  
Ekainaren 12an, 7 urte.  
Zorionak, txapeldun! Ondo ibili egun berezi honetan. Osaba-izeba Mikel eta Vanessak eta lehengusu Hugok. Asko maite zaitugu!



**BERRIZ**  
**Gorka Balseira Segovia**  
Ekainaren 11n, 2 urte.  
Izeba Usoa eta Ketyren partetik, zorionak eta musu handi bat!



**ANTZUOLA**  
**Hodei eta Ekaitz Labaien Arregi**  
Hodeik ekainaren 11n, 7 urte eta Ekaitzek abuztuaren 4an, 9 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu, bikote! Zapatuan bapo zelebrauku giro onian. Familixakuen partetik, patxo potolo ugeri!



**ARETXABAETA**  
**Arkaitz Kerejeta Abril**  
Ekainaren 10ean, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Oso-oso ondo pasatu, etxeko guztion partetik. Muxu handi bat Ainhitzeren, amatxoren eta aitatxoren partetik.



**OÑATI**  
**Alaia Olabe Casais**  
Ekainaren 10ean, urtebete. Zorionak, potxola! Egunka zorionez betetzen jarrai dezazula. Zure familiako eta, bereziki, aitatxoren eta amatxoren partetik. Muxu handi bat.



**ARRASATE**  
**Isaac Moreno**  
Ekainaren 9an, 6 urte.  
Arrebaren eta gurasoen partetik, ederto pasatu zure egunean! Asko maite zaitugu. Muxu bat!



**OÑATI**  
**Aner Guridi Arriaran**  
Ekainaren 8an, 7 urte.  
Zorionak, Aner! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Eleneren partetik. Disfrutatu zure eguna topera.



**ARRASATE**  
**Jose Mari Baños Maraver**  
Ekainaren 8an, 43 urte.  
Zorionak, tio Jose Mari! Ondo pasatu zure eguna eta musu handi bat, zure familiaren partetik. Irribarre horrekin ikusi nahi zaitugu beti. Denon atean lortuko dugu. Asko maite zaitugu. Onena zara!



**ARAMAIO**  
**Hegoa Bengoa Gomez de Segura eta Ander Bengoa**  
Ekainaren 8an, 6 urte. Zorionak, Hegoa eta aitatxo! Ondion be ospakizunekin jarraitetan dogu zuen urtebetetziak ospatzen! Patxo handi-handi bana, Ilargiren eta amatxoren partetik!



**ESKORIATZA**  
**Lur Arana Atxaga**  
Ekainaren 7an, 37 urte. Zorionak, aitatxo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta elkarrekin ospatuko dugu! Besarkada handia eta patxo erraldoi bat Unairen, Beñaten eta amatxoren partetik!



**BERGARA**  
**Jone Curado**  
Ekainaren 7an, 48 urte.  
Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure eguna eta ez aldatu inoiz! Zure lankiderik onenaren partetik!



**ESKORIATZA**  
**Maialen Apraiz Ansoa**  
Ekainaren 6an, 9 urte.  
Maialen, azkenean zure urtebetetzea heldu da! Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta musu handi bat.



**BERGARA**  
**Ekain Miranda Arabaolaza**  
Ekainaren 6an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ongi pasatu eta beti bezain sinpatiko jarraitu. Eneko, aitatxo eta amatxo.



**OÑATI**  
**Maren Agirre Zoilo**  
Ekainaren 6an, 10 urte.  
Zorionak, guapisima! 10 urte dagoeneko. Ondo pasatu eguna eta segi zaren modukoa izaten. Muxu handi bat, etxekoen eta, bereziki, Izaroren partetik.



**OÑATI**  
**Natale Orueta Santos**  
Ekainaren 6an, urtebete. Zorionak, Natale, etxeko danan eta, bereziki, zure anaia Peruren partetik! Zorionak zure lehen urtebetetzian, guapa!



**ARRASATE**  
**Jon Bereziartua Zabala**  
Ekainaren 5ean, urtebete. Zorionak, potxola! Urtebete munduari irribarre egiten, urtebete guretzako bizipoz iturri izaten. Segi horrela, polit hori!



**BERGARA**  
**Alazne Murgiondo Kortabarria**  
Ekainaren 5ean, 4 urte.  
Zorionak, printzesa! Belarritik lau tirakada eta muxu handi bat etxeko guztion eta, bereziki, Naiaren partetik!



**ARRASATE**  
**Maddi Etxebarria Maortua**  
Ekainaren 3an, 2 urte.  
Zorionak, poxpolin! Etxeko txikiñenak 2 urte! Zorionak, etxeko danon partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.  
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**  
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.  
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.  
**Posta elektronikoa**  
Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.  
**Ordezkaritzak**  
Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



## ZORION AGURRAK

GOIENA TELEBISTA | KORAPILO

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA

## ASTEAGOIENAN

**Arrasateko osoko bilkura osorik ikusgai**

Aste honetan egin da Arrasaten osoko bilkura eta bertan eztabaida eragin du Aprendices erai-kina Udalarena izatera pasatzeko prozesuak. Osoko bilkura guztia ikusi ahal izango da Goiena telebistan.

**'Arrasateko osoko bilkura'**  
Egubakoitza, 22:00

**'Bota erronka' saioaren estreinaldia**

Huheziko ikasleek ekoiztutako saioaren atal bakoitzean, bi aurkezle erronkak gainditu behar dituzte. Oraingoan, joaldun jantzita egin beharreko ibilbidea azkarren norik egiten duen ikusi ahal izango da.

**'Bota erronka'**  
Eguena, 22:00



Goiena telebistari buruzko informazio gehiago, helbide honetan: [Goiena.eus/](http://Goiena.eus/) telebista.

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

**Joseba eta Iraia**

Iraia Arzamendi eta Joseba Lareu eskoriatzarrak zapatuan ezkonduko dira. Familiarekin batera bazkalduta eta ostean lagunekin afaria eta parranda eginez ospatuko dute. "Danon partetik, oso zoriontsu izatea opa dotzuegu!"

**Mikel eta Jaione**

Mikel Uberuaga eta Jaione Oianguren zapatuan, ekainaren 11n, ezkonduko dira Markinako udaletxean. Ondoren, Atxondoko Akebaso jate-txera joango dira familiarekin eta lagunekin ospatzera. "Ondo-ondo pasatu eta ederto ibili Thailandia aldien! Musu bat Manexen partetik!"

**Nere eta Mariano**

"Zorionak zuen 25. urteurrenean, San Lorentzoko lagun partetik! Ondo pasatu eguna!"

**Amaia eta Josu**

Amaia eta Josu ekainaren 11n Beasaingo udaletxean ezkonduko dira. "Zorionak eta eztei-bidai zoragarria izan deizuela, Pataloren partetik!"

**Xabi eta Nerea**

Ekainaren 11n ezkonduko dira Gordexolan. "Zorionak, zuen lagun eta familiaren partetik. Ondo pasatu egun berezi honetan. Muxu handi bat, bikote!"

**Irati eta Jon**

Asteburu honetan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Disfrutatu gauro egunian eta ondo-ondo pasatu bidaian".

**Mikel eta Anaitz**


Mikel Ozerinjauregi eta Anaitz Loyola zapatuan ezkonduko dira. "Ekainaren 11n Bergaran ezkontza eguna ospatuko dugu guztiok. Zoriontsu izan zaitzela opa dizuegu, familia guztiaren partetik. Muxu potolo bat!"

**Judith eta Dani**

Judith eta Dani ekainaren 11n ezkonduko dira. "Zorionak, bikote, gurasoen, Ibanen eta lagun guztion partetik. Ondo pasatu zuen egunean. Gu hantxe egongo gara zuekin!"

## ESKELAK

## URTEURRENA

**Juan Maria Azpiazu Lizarralde**

'Txistu'

2015eko ekainaren 22an hil zen, 82 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Beti gure bihotzean egongo zara.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2016ko ekainaren 10ean.

## 6. URTEURRENA

**Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria**


2010eko ekainaren 8an hil zen. 44 urte zituela.




Senideetan senide lagunetan lagun adiorik ez duen betiko maitasun.

Bergaran, 2016ko ekainaren 10ean.

## URTEURRENA

**Luis Mari Gallastegi Altube**

2015eko ekainaren 4an hil zen.



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2016ko ekainaren 10ean.

## 10. URTEURRENA

**Ixabel Altuna Letamendi**

Gazteiz hil zen 2006ko ekainaren 15ean, 44 urte zituela.



Hamar urte joan dira jada zu gabe gaudenetik, Ixa baina mantentzen dugu barrenean zure izaera goxoaren oroimena.

Etxekoak. Oñatin, 2016ko ekainaren 10ean.

## URTEURRENA

**Miguel Angel Etxeberria Ugarte**

2015eko ekainaren 10ean hil zen, 61 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 11n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Zure alaitasuna eta bizipoza  
Zure umore ona  
Zure maitasuna ta laguntza

Pizturik irungo dute  
Gure bihotzetan.  
Beti gogoan izango zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2016ko ekainaren 10ean.

## URTEURRENA

**Maria Teresa Oyanguren Uribe-Etxebarria**

2015eko ekainaren 18an hil zen, 84 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 12an, 10:00etan, Eskoriatzako Zarimutz auzoko San Pedro elizan.

Bihotz onekoa eta eskuzabala izan zara. Eskerrik asko, bihotzez.

Berataratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko, familiaren izenean. Eskoriatzan, 2016ko ekainaren 10ean.

## URTEURRENA

**Mari Karmen Agirre Bergaretxe**

Elgetan hil zen 2014ko ekainaren 20an.

Bigarren urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 12an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Andre Mariaren parrokan.

*Bere bihotzaren ontasunak ezagutu zituztenen artean preziatua izatea lortu zuen.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Elgetan, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Lurdes Etxezarreta Agirre**

2015eko ekainaren 14an hil zen, 56 urte zituela.

*Lurdes maittia, jun zinaretik, bihotzaren erdian sentitzen zaitugu.*

Zure ahizpa eta bost anaiak. Antzuolan, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA


**Lurdes Etxezarreta Agirre**

2015eko ekainaren 14an hil zen, 56 urte zituela.

*Bihotzean*

Mairi eta Mikel. Antzuolan, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Luxi Elorza Guridi**Patxi Guridiren alarguna  
2016ko ekainaren 7an hil zen.*Zorionean argitu zuen zu sortu zinen eguna, ama zintza bat familirako eta bihotz euskalduna, merezi hainbat nola garaldu gure amama kuttuna?*

Iñaki eta Ainhoa. Oñatin, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Javier Bailez Peñin**  
'Mutue'

2016ko ekainaren 6an hil zen.

*Beti gogoan izango zaitugu.*

Txikitero kuadrilla. Aramaion, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Javier Bailez Peñin**  
'Mutue'

2016ko ekainaren 6an hil zen.

*Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

Kintoak. Aramaion, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Juan Miguel Epelde Narbaiza**

2016ko ekainaren 6an hil zen, 79 urte zituela.

*Nahiz eta gehiago ez zaitugun izango aldameanean, toki gaxo bat izango duzu gure bihotzean.*

Juldain senideak. Arrasaten, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Francisco Javier Bailez Peñin**  
'Mutue'

2016ko ekainaren 6an hil zen.

*Eskerrik asko emandako laguntza guztiagatik.*

Ehiztari txokoa. Aramaion, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Javier Bailez Peñin**

2016ko ekainaren 6an hil zen.

*Oso jatorra eta alaia izan zara.**Eskerrik asko, Javi.*

Anboto taberna. Aramaion, 2016ko ekainaren 10ean.

## ESKER ONA

**Juan Miguel Epelde Narbaiza**

2016ko ekainaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.

Familiaren izenean, eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Arrasaten, 2016ko ekainaren 10ean.

## ESKER ONA

**Francisco Javier Bailez Peñin**

2016ko ekainaren 6an hil zen, 59 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko.

*Beti pozik, beti alai, denon lagun, eta beti laguntzeko prest. Betirako gure barnean egongo zara. Asko maite zaitugu.*

Seme-alabak eta bikotekideak, anai-arrebak eta bikotekideak, koinatuak, bilobak, ilobak eta emazte ohia.

Aramaion, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIGARRIA

**Francisco Javier Bailez Peñin**  
'Mutue'

2016ko ekainaren 6an hil zen, 59 urte zituela.

*Zure galerak sortzen digu gaur tristura eta negarra, baina beti izango dugu gurekin zure irriparra.*

Naian lagunak. Aramaion, 2016ko ekainaren 10ean.

## ESKER ONA

**Anjel Urzelai Ganboa**  
'Elordui'

2016ko ekainaren 1ean hil zen, 56 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra-meza zapatuan izango da, ekainaren 11n, 19:30ean, agustindarren elizan. Aldez aurretik eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2016ko ekainaren 10ean.

## ESKER ONA

**Pepita Telleria Oria**

2016ko maiatzaren 18an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2016ko ekainaren 10ean.

## OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55  
BERGARA





Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Erreka jatetxean  
terrazako menua.  
Berenjena-hostorea.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:  
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-06-10

BUKATZEKO

## JULHNE27 kontzertua, denon eskura

- ▶ 'Jul' Bolinagaren omenez iaz Monterronen egindako jaialdiaren laburpena DVD bikoitzean jaso dute
- ▶ Ekainaren 21ean Amaia Udal Antzokian emango dute, eta ondoren salgai jarri hainbat tokitan

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

"Orain dela ia urtebete kontzertu errepikaezina antolatu genuen Arrasaten, Monterron parkean, JULHNE27 (Jul Harro Nago Ekainak 27) izenpean, gure lagun Jul Bolinagaren omenez", diote Jul-en Lagunak Taldeko kideek -Kepa Altube, Igor Sala eta Iker Barandiaran, besteak beste-, eta kontzertu hark emandakoa DVDan jaso dute orain, betiko iraun dezan.

### Betiko gordetzeko

Musikari eta lagun ugari elkartu ziren orduan. "Musikariei dago kienez, Jul-engandik eta berak izandako ibilbidearengandik hurbilen sentitutakoak aukeratu genituen. Ez genuen partaideen izenik zabaldu nahi izan, protagonista Jul zelako. Baina harrotasunez eta hunkituta esan dezakegu belaunaldi oso desberdinetako testigantza esanguratsuak eta egiazkoak lortu genituela", argitu dute. Eta kontzertua "itzela" izan zen, haien esanetan.

Ekainaren 27ko gau hura betiko gorde gura izan dute. "Kontzientzia ginen gau errepikaezina izango zela, Jul-ek ez du gutxiago merezi, eta erabaki genuen emanaldia irudiotan jasotzea,




Monterronen jasotako irudietako bat. | ARTEMAN

erretinan paratutakoa ahanzturak ezabatu ez zezan", jakinarazi dute.

Han bizitakoaren laburpena bi DVDtan batu dute: batean, RIPen kantutegian oinarrituta egindako emanaldi osoa; eta bestean, gainontzeko taldeen lagin bana, bakoitzeko hiruzpalau kantuta: Magnificent 7, Karrocerias Betoño, Piztu Punk eta The Potes. Guztira, bi orduko iraupena.

### Bost kamerarekin grabatua

Kontzertuaren irudiak grabatzearen ardura Arteman Komunikazioa enpresak izan zuen, Magu Mendibilen eta Unai Portillaren laguntzarekin, eta bost



DVDaren aurrealdea. | IBAI LAKUNZA

kamerarekin grabatu zuten. Soinuaren ardura, oster, Shot! grabazio estudioko Iñaki Bengoarena eta Danatek-eko Josu Lazkanoren (The Potes-en atala) izan

zen. Era berean, Iñaki Bengoak egin du masterizazioa. DVDaren edizioa eta postprodukzioa, oster, Goiena Komunikazio Zerbitzuek egin dute (Jagoba Domingo); eta diseinua, Ibai Lakunzak.

### Ekainaren 21ean Amaian

Laster jarriko dute salgai DVD bikoitza, 10 eurotan. Horren aurretik, baina, DVDa osorik emango dute Amaia Udal Antzokian ekainaren 21ean, martitzena, 19:30ean; sarrera doan izango da. Eta bertan aukera egongo da DVDa erosteko.

Era berean, ekainaren 24an DVDak saltzeko mahai bat jarriko dute Arrasaten, kalean.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Adostasuna eraikiz

Euskalgintzako erakundeak sortu ziren euskararen biziberritze prozesuari mesede egiteko, abiada azkartzeko, euskaltzaleasuna hedatzeko. Eta emaitza bikainak lortu dira, urte luzez. Baina denborarekin ajeak ere agertu dira. Esaterako, euskalgintzako erakundeak profesionalizatu direnean hurbilagoko interesak sortu zaizkie eta egunero koak gaina hartu dio arnas luzeko egitekoari. Honela, anbizioa apalduz joan da; eta eragina, neurri berean.

Baina euskaltzaleak hausnarrean gabiltza, han eta hemen. Zantzuak ondo irakurri ditugu, kezka garaiz sortu zaigu eta mugitzen hasi gara, etorkizuna usaintzen.

Eta usaimenak ez digu huts egin, denok antzeman dugu zein den euskararen etorkizunerako giltza: euskaltzaleon arteko lankidetzak. Hainbat forotan hartzen ari naiz parte, eta guztietan errepikatzen da zorieko mantra.

Adibide ezin hobea da *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentua, duela aste batzuk Euskararen Aholku Batzordean aho batez eta ilusioz onartu genuena. Balio handia du edukia, ekarpen askoren ondorio landua delako; baina edukiek adina balio du adostasuna eraikitzeko eta lankidetzak baliatzeke agertu den borondateak.

arizmendi ikastola PRO

konfiantzaz

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa  
Zure Lanerako Bidea

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 6tik 17ra

→ TAFYD → Mikroinformatika **Berrial**  
→ Erizaintzako zaintza osagarriak → Osasun larrialdiak **Berrial**

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbide@arizmendi.ikastola.eus

www.arizmendipro.eus